goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2014-01-10
EGUBAKOITZA
580. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Severiano Aiastui gogoan

Marianista jaio zela 100 urte bete dira | 2



Severiano Aiastui. | FABIAN MALDONADO

Gari eta Keu Oñatiko gaztelekuan izango dira gaur gauean | 25



Bastidaren omenez, Euskadiko Orkestra Bergaran | 24



Markel Uriartek Udalatx bizikletan jaitsita bete du lehen erronka | 23



"Epelen eraikitzen ari diren konpost-planta urte amaierarako bukatzea espero dugu"

**Iñaki Errazkin** | Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatua | 6

# EPELE GIPUZKOAKO BIGARREN KONPOST-PLANTA

Epeleko konpost-plantak izango duen itxura erakusteko maketa digitala landu dute Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan. | OSKAR ATORRASAGASTI



TANTAZ TANTA

## Milaka debagoiendarrek bat egingo dute presoen alde | 4

# Norberaren irabaziak herriaren mesedetan

Bergarako Udalak diru-sarien ordez bonuak banatuko ditu, herritarrek komertzioetan erabil ditzaten | 15

## Mantentze lanek izango dute lehentasuna Elgetan

Aurrekontua onartu dute Elgetan: 1.651.125 euro | 20

SINADURAK



MAIDER AZKARRAGA-URIZAR | 8



INAZIO ARREGI | 8



AINTZANE OIARBIDE | 32

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 28 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

# Gogoan du askok Severiano Aiastui, jaio zela 100 urte bete direnean


Severiano Aiastui, Argentinan ateratako argazkian. | FABIAN MALDONADO

▶ Marianista aretxabaletarrak lan handia egin zuen Argentinan indigenekin

▶ Oinez ibili zen urteetan herririk herri, eta 'Apaiz ibiltaria' deitzen zuten

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

"Comandancia Friasek gaur edateko ura badu, berari esker da. Adin txikikoen zentroak funtzionatzen badu, beragatik da. Elektrizitate sorgailuak funtzionatzen badu, beragatik da. Herrixka honek, mendia mendi eta bete gabeko promesak promesa, biziraun badu, hori ere berari zor dio, hainbeste analfabetismoren arrazoiak inoiz konprenitu ez zituenari". Severiano Aiastuiri buruzko hitzok jaso zituen Argentinako Chaco probintziako *Diario Norte* kazetak marianista aretxabaletarraren heriotzan, duela sei urte pasatxo, 2007ko azaroan. Zioten estimuaren erakusgarri garbia.

Eta jaio zela 100 bete diren honetan, faltan botatzen du oraindik askok garai batean hainbeste euskaldun hartu izan zuen herrialde hartan; asko hartu, baina Aita Severiano modukorik ez, Chaco probintziako oihan inguru hartan behintzat, ez euskaldunik ez beste inongorik, haren gaineko tesina egina duen Fabio Etxarri ikertzaile argentinarraren arabera: " Berak ekarri zuen beste batzuek ekarri ez zutena, egin zuen beste batzuek egin ez zutena. Aurretik ez zen beste Severiano bat izan, eta oraingoz ez da besterik iritsi. Eta, nire ustez, ez da iritsiko".

Severiano Aiastui 1914ko urtarrilaren 7an jaio zen –martitzenean izan zen, hortaz, jaiotzaren mendeurrena–. 11 urte zituela marianista izateko bideari ekin, eta, 1946an ordenatuta, hara eta hona ibili zen hainbat urtez, askotariko erlijio-ardura postuetan. 1969an misiolari joan zen Afrikara, eta etxetik hain urrun hamabi urte egin eta gero, 80ko hamarkadan, euren destinoa erabakitzeko aukera ematen zaien adinean hartu zuen marianista aretxabaletarrak zer eta, atsedena bilatu beharrean, Argentinara joateko deliberoa. Horrela iritsi zen Chaco probintziako –herrialdearen ipar-ekialdean– Comandancia Frias herrira, El Impenetrable izen esanguratsua duen oihan eremuan. Gehiengo indigena duen eremua, eta oso pobrea. "Indar eta bizitasun handiarekin, ulertu zuen bere misioa Lurrean ez zela bukatu", dio Fabio Etxarrik.

**Gabezia handiak**

Osasun eta hezkuntza azpiegitura gabezia handiarekin, egitura produktibo barik, Aita Severianok eginahalak eta bi egin zituen bertako bizilagunen bizi baldintzak hobetzeko. Horretarako, argi esaten zituen esan beharrekoak, esan behar zizkionari; eta laguntzen ziharduen haientzat ere bazuen. Ondorengoa, adibide: "Jendearen bizimodua oso estua da oro har. Baina, nik uste, etsipenak eragindako egoeraren onarpena gehiegizkoa dela. Etsi eta gauzak aldatzeko ezer ez egitea ez da ona, eta hortik nahikotxo dagoela uste dut. Kanpotik datorkeenetik gehiegi espero dute, bestearengandik: udaletik, probintziatik...".

Eta zailtasunen jakitun izan arren, zioen "lanerako jarrera" galdua zutela zenbait lekutan, eta lana dela irtenbidea, Fabio Etxarrik bere tesinan jasotzen duenez "lana ez delako bere horretan maldizio bat, eskuak eta inteligentzia eman dizkigun Jainkoaren bedeinkapena baizik".

## Aretxabaletako Aozaratzatik Argentinara, Afrikatik pasata

Aretxabaletako Aozaratza auzoko Otalora-Zelai baserrian jaio zen 1914an Severiano Aiastui. Zazpi anai-arrebatan gazteena, haren iloba eta ondorengo senideek etxetik urrun ezagutu zuten beti, etxe inguruan egin zituen urte apur batzuetan salbu. Severianoren anaiatako baten seme Jose Benitok dio, adibidez, bera soldadutza egitera joan zenean ikusi zuela lehen aldiz osaba.

Severianok "misiotara joateko gogoa" zuela dio Jose Benitok, nahiz eta nahi izan balu marianistetan ardura postuetan jarraitzeko aukera, izan, bazukeela onartu. Baina "ez zen handi-zalea". Eta Afrikara joan zen, Togora. Hango hamabi urteen ostean etxera itzuli eta beste pare bat eginda hartu zuen Argentinarako bidea, 70 zituela orduko: "Harritu gintuen, baina bera halakoxea zen". Eta familiakoek ondo dakite egon zen lekuetan oso maitatua izan zela Severiano, Argentinan kasu: "Ni egonda nago bera egon zen lekuan, oihanean, indigenekin; Afrikan moduko pobrezia zuten han. Eta gauza asko egin zituen".


Otalora-Zelai baserria, Severianoren sorlekua. | AIASTUI SENDIA






Indigenek bizi zituzten eragozpenen artean, handietako bat zen euren elikadurarako eta arropetarako lehengaiak mendian zituztela, eta lehengai horien kopuruak behera egin zuela deforestazioaren ondorioz. Honen aurrean, ondorengo hausnarketa egiten zuen marianista aretxabaletarrak; metafora gisa beste hainbat esparrutan aplika zitekeena: "Genuen aberastasun handiak ez du egoten jarraitu ez delako kudeaketa ona egin. Gastatu dena baino apur bat gehiago jarri behar da, urteetan bertan bizi izanagatik ondo ezagutzen dudan leku batean egiten duten moduan: han ez dute basoa mozten azken aldiz moztu zutenetik hazi dena baino gehiago". Ez dago gaizki esana.

**Zenbat kilometro oinez**

Severiano Aiastui berezi egin zuen beste ezaugarri bat izan zen denbora askoan oinez egin zituela leku batetik besterako joan-etorriak, mendian barrena. *Apaiz ibiltaria* goitizena jarri zioten. Kilometroak egiten zituen oinez, ezinbesteko gauza batzuk eramateko poltsa bakarrik zuela aldean. Eta ibiltzen zen batera eta bestera "Jainkoaren hitza" eramanez, "indioak bataiatuz", meza esatera joaten zen eta "Chacoko leku ezkutukoenetara eukaristia ematera", dakar gogora Etxarrik. Behin baino gehiagotan bide okerrak hartu ere bai. Han edo hemen egingo zuen lo, gauak harrapatzen zuen lekuan: "Impenetrable osoan sakabanatuta 80 etzaleku zituela" aitortzen zuen". Familia xumeen etxeetan; eurekin gaua pasatzea eskaintzen omen zioten, eta zuten janari apurra berarekin banatu ere bai. Bera ere halakoxea zelako.

Geroago etorri ziren zaldi bat, mandoa eta kamioneta. Horiek eman zioten aukera kilometro gehiago egiteko eta are toki bakartuagoetara iristeko, baita gauza gehiago garraiatzeko ere. Uholdeak izan ziren batean, adibidez, eta jendeak zituen gauzak galdu, ikusi omen zuten Severiano furgonetatik bereak zituen ondasun apurrak banatzen.

Eta herriko medikuak kontatzen ei du egun batzuetara berriro itzuli zela: "Kamioi bete zekarren; jendearen beharren arabera banatzeko eskatu zigun. Harrigarriena izan zen ordu batzuk beranduago ikusi nuela almazen batean esne litro bat fidantzan emateko eskatzen, ordaintzeko dirurik ez zuela-eta. Jendearentzako ehunka kilo elikagai ekarri zituen hark berberak".

Adibide bat baino ez da. Argentinako txoko hartako bizilagunak beti izango ditu eskertuta Aretxabaletako seme honek, egin zituen guztiengatik, hasierako zerrendarekin jarraituz amaitzeagatik: medikua eta anbulantzia bat lortu, topaleku komunitario bat sortu, umeentzako jangela bat aurrera atera, emakumeei baratzean erakutsi, baita sukaldean ere... Zer ez.




Bere izena jarri dioten Ospitalea, Comandancia Friasen. | CHACOPRENSA.NET

## Aita Severiano Aiastui ospitalea

**Irailean inauguratu zuten Comandancia Friasen berritu eta handitu egin duten ospitalea, eta Severiano Aiastui izena jarri diote. Inaugurazio ekitaldian, Jorge Capitanich gobernadoreak ondorengoa adierazi zuen: "Aita Severiano oroimenean mantendu nahi dugu, urruneko lekuetara Jainkoaren hitza eramateko eta behar gehien zutenei laguntzeko helburuarekin bide hauetan oinez eta zaldiz ibilitako Aita Severiano".**

**FABIO ETXARRI** | IKERTZAILE ARGENTINARRA

# "Dena ematen zuela zen bere balio nagusia"



FABIO ETXARRI

2004an aurkeztu zuen Severiano Aiastuiri buruzko tesina.

**100 urte gizon handi bat jaio zela, ezta?**

Urte asko gizon baten historiarako, baina urte gutxi gizateriaren historian. Uste dut data hori geratu behar dela ez bakarrik gipuzkoar guztien oroimenean, baizik eta euskaldun guztienean eta mundu osoko euskal jatorriko jendearenean, izan zenagatik eta ordezkatzen duenagatik, eta bizi izan zen eta bisitatu zuen leku bakoitzean utzi zuen aztarnagatik.

**Ze azpimarratuko zenuke bere balioetan?**

Dena ematen zuela, hori zen bere balio nagusia. Zuena ematea eta bere burua eskaintzea lagun hurkoari. Kristorengan sinisten dutenentzat, haren bizitza estiloaren jarraitzaile fidela izan zen. Sinisten ez dutenentzat, munduko erlijio guztiek darabiltzaten edota ateo sutsuenek preziatzen dituzten balioak zituen Severianok.

**Eta bere gizarte ekintzan?**

Hain handia izan zen bere gizarte ekintza, egon zen leku guztietan aitortzen dutela. Hemen, Chacon, pobreziarik handiena zuten eta duten herri indigenekin bizi izan zen, nahikoa elikagai barik, edateko ur barik eta elektrizitate barik. Berak ere pairatu zituen behar horiek, zuena denekin banatzen zuelako. Eta ez zuenean, bera arduratzen zen erakundeekin tramiteak egiteaz, urruneko lurralde haietara irits zedin iritsi behar zuena. Eta behar zenari eskatzen zizkion kontuak: funtzionario publikoei edo Elizako agintariei. Severianoren gizarte ekintza, niri iritziz, bere misio ekintzaren gainetik zegoen, ze berak zioen ezinezkoa zela gosez zegoen inori ebanjelioa helaraztea edo hezkuntza egokia ematea. Beraz, lehenengo saiatzen zen, ahal zuen neurrian, hain gaztigatuta zegoen herri horren beharrak asetzen.

**Nolakoa zen harremanetan?**

Ezagutu zuten guztiek esaten dute apaiz handia izateaz gain, ororen gainetik pertsona ona zela. Severianok esaten zuen: "Sotanaren azpian prakak ikusten dira; apaizaren azpitik gizona ikus daiteke". Eta hori praktikara eramaten zuen. Beti hitz egiteko prest, laguntzeko gertu, eta benetako irribarrea aurpegian zuela.

**Jendea oroitzen da hartaz?**

Hango jendea, berarekin bizi izan zirenak, ez soilik oroitu, ausartzen naiz esaten ez dutela inoiz ahaztuko, eta euren seme-alabei azalduko dietela zein izan zen Aita Severiano. Ez dut horren zalantzarik. Ez daude halako adibide asko, ez Argentinan ez munduan, eta beharrezkoa da hauek oroitzea eta derrigorrezkoa euren berri zabaltzea.

**"Seme-alabei azalduko diete zein izan zen Aita Severiano"**

**Eragin du bere pentsatzeko erak bertakoen pentsatzeko eta jarduteko moduetan?**

Kontuan izan behar da erdi-analfabetoa den komunitate batean bizi izan zela bera, ase bako oinarrizko beharrekin. Berak behin eta berriz esaten zien bazituztela eskubideak, hezkuntza euren hizkuntzan jasotzea, adibidez —euskaldunen adibidea jartzen zuen beti—. Eta hor egin zuten aurrera. Baina lurralde honetan ehunka Severiano eta urte askoko lana beharko lirateke hamarkada askoan klase politikoak aldatu zituen herri indigenotako zenbait gauza berriz ere aldatzeko. Baina ziur aski, jende askorengan izan du eragina. Eta batzuk bakarrik izanda ere, asko da, efektu biderkatzaileak baitaude.

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
*euskaltegi@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
*berg.eusk@udal.gipuzkoa.net*

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
*euskaltegia@oinati.net*

**Matrikula zabalik**
**Informa zaitez!**

emaiozu euskarari




UDAL EUSKALTEGIAK
ikasturtea curso 13/14

# Euskal presoen eskubideen aldeko milaka 'tanta'

## Debagoiendar ugarik bat egingo dute Tantaz Tanta ekimenarekin

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Euskal Herriko gainontzeko puntuetatik moduan, Debagoienetik ere milaka herritarrek bat egingo dute bihar, zapatua, Bilbon euskal presoen alde egingo dituzten ekimenekin. Horren erakusle da gure ibarreko herri guztietatik antolatu dituztela autobusak bertaratzeko (xehetasunak ondoko taulan).

Manifestazioa da bihar egingo diren ekitaldien artean nagusia. Azken urteetan egindakoetan, adibidez, 100.000 lagun inguru elkartu dira Bilboko kaleetan aldarri horrekin bat egiteko.

**Bi 'olatu', itsasoa osatzeko**

Biharko manifestazioaren kasuan, antolatzaileek azaldu dute ez dela manifestazio bat izango, "herritarren esku hartze bat baizik". Itsaso itxura hartuko du mobilizazio horrek, eta une gorena 18:30 aldera gertatuko da: "Marea 17:30 inguruan hasiko da goraka. Ordu horretan, bi olatu handi abiatuko dira, bata Casillatik eta bestea udaletxetik, preso eta iheslarien ehunka senitarteko buru direla. Hortik ordubetera, olatuek bat egingo dute tarteko puntu batean, eta, ekitaldi labur baten ondotik, *Itsasoa gara* kantua entzungo da Bilboko erdialde osoan. Minutu horietan, nork bere tokian, eskuetan duen tanta jasoko du zerurantz".

**Bi irteera ordu**

Edozelan ere, egun osoko egitaraua prestatu dute, eta antolatzaileek goizetik bertara joateko gonbidapena egin diete herritarrei. Hala, 11:00etatik aurrera, lau gune izango dira Bilboko Areatzan. Eta deialdi horrekin bat eginez, Debagoieneko hainbat herritan autobusen bi irteera ordu emango dituzte aukeran.

### EGITARAUA

**KARPA HANDIA**

| | |
|---|---|
| **11:00** | Zanpantzarra. |
| **11:00** | Umeendako ikuskizuna. |
| **12:30** | Petti, Francis, Gozategi, Kokein, Uluka, Hesian... |
| **15:15** | Tximeleta. |
| **19:30** | Gose, Xutik, Kaotiko. |

**KARPA TXIKIA**

| | |
|---|---|
| **11:00** | Sukaldearen irekiera. |
| **13:00** | Ogitartekoak, material salmenta, taberna... |
| **13:00** | Ogitartekoak, material salmenta, taberna... |

**PASEALEKUA**

| | |
|---|---|
| **Erakusketa** | Presoek egindako artelanak. |
| **Tantarikaturak** | Marrazkilari batzuek eginak. |
| **Enkantea** | Pertsona ospetsuen dohaintzak. 19:00ak arte dago aukera postura egiteko. |
| **Zozketa** | Motozikleta. |

**ARKUPEA**

| | |
|---|---|
| **11:00** | Puzgarriak. Rokodromoa; haurrentzako jolas eta tailerrak... |
| **12:00** | Pailazoak. |



Oñatin barauraldia, Gabonetan. | EKIÑE

### AUTOBUSAK HERRIZ HERRI

**Arrasate**
Garibai etorbidea. 11:00 edo 17:00.

**Bergara**
Autobus geltokia. 16:00

**Oñati**
Olakuako geltokia. 10:00 eta 15:00.

**Aretxabaleta**
Azbe ingurua. 11:00 eta 15:30.

**Eskoriatza**
15:00.

**Elgeta**
Herriko Plaza. 16:00

**Antzuola**
10:30 eta 15:30.

**Leintz Gatzaga**
15:00.

**Aramaio**
Biribilgunea. 15:00


Javier Mar ospitalean. | GOIENA

**Javier Mar**
Osasun Kudeaketa Unitateko arduraduna

# "Txertoei esker, heldu asko ez dira gripearekin kutsatu"

**A. TXINTXURRETA** | DEBAGOIENA

Gripea epidemia mailan dugu Debagoienean duela pare bat astetik. Epidemiaren puntu gorena 15 egun barru iritsiko dela uste dute medikuek eta otsail bukaerarako gripea epidemia mailatik kanpo egotea espero dute adituek. Javier Marrek, Osasun Kudeaketa Unitateko arduradunak, hala ere, lasaitasunerako mezua helarazi gura izan du:

**Epidemia mailan egon arren ez dugu kezkatu behar?**

Bada, ez; izan ere, oraingoz, ematen du ez dela izan behar epidemia indartsua. Orain arte nahiko ondo konpondu gara guk ikusi dugunarekin. Larrialdietan eta ospitalizazioetan nahiko ondo konpondu gara eta ez dugu arazorik eduki bailaran.

**Zeini eragin dio orain arte epidemiak?**

Kasu gehienak ume eta gazteenak izan dira, eta horiek ez dira larriak izan orokorrean. Helduak, berriz, ez dira asko kutsatu. Eta txertoak dira horren arrazoia. Normalean, txertoak ekoizteko asmatu behar da zelako birusek agertu behar duten hurrengo denboraldian eta hori beti ez da lortzen. Baina aurten, behintzat, gauzak oso ondo joan dira eta txertoek oso ondo funtzionatu dute. Seguru aski, hori da arrazoietako bat adierazteko zergatik ez dugun izan arazorik.

**Hala ere, ospitaleratze asko izaten dira...**

Baina Debagoieneko Ospitalean ohe nahikoa daude libre oraindik; izan ere, oheen %84 inguru daude okupatuta momentu hauetan. Hori normala da garai hauetan; izan ere, abendu bukaeran, urtarrilean eta otsailean egoten da gripe epidemiaren bat, eta, urte bakoitza desberdina izaten den arren, urtero ikusten ditugu horrelako egoerak ospitaleetan eta osasun zentroetan.

# Jose Gabriel Urizar aske utziko dute datorren astean

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Jose Gabriel Urizar *Gautxori* preso arrasatearrak berez oraingo zuen kartzeleko irteera data finkatuta, baina 197/2006 sententziatik eratorritako *Parot doktrina* ezarri gura zioten, eta haren arabera, ez lukete askatuko 2016ra arte. Edozelan ere, Estrasburgoko Giza Eskubideen epaitegiaren ebazpenak doktrina horren aplikazioa galarazi egiten duenez, datorren martitzenean, urtarrilaren 14an askatuko dute. Otsailean, 29 urte beteko lituzke preso. Gaur egun Puerto de Santamarian (Cadiz) dago preso.

Askatzen dutenerako (ordurik ez diote jakinarazi), bertan izango ditu hemendik joanda lagun eta senideak; 20 bat joango dira.

# Kutxabankek emandako pausoak "ez dira nahikoa"

**U.M.** | DEBAGOIENA

Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformaren ustez, Kutxabankek hipoteken erreferentzia moduan erabili izan den "IRPH indizearen erabilera bertan behera uzteko emandako pausoak ez dira nahikoa". Zentzu horretan azpimarratu gura dute hori aldarazteko aukera "bakarra" herritarrek dutela, "presio soziala eta mobilizazioa" erabilita. Presio horren ondorio positiboak adibide batekin jantzi ditu Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformak: 2014-ko urrian hipotekaren errebisioa tokatzen zitzaion Eskoriatzako familia bati IRPH aplikatu beharrean Euriborra + 1 aplikatu diote. Horri esker, hilero 238 euro gutxiago ordainduko dute hipoteka.

# Tratamendu gastuetan laguntzeko, frontenisa

## MUko ikasle talde batek frontenis txapelketa antolatu du neska aretxabaletar bati laguntzeko

**DANEL GARCIA** | OÑATI

Wantcoop enpresak (Mondragon Unibertsitateko Oñatiko LEINN graduko bigarren mailako 17 ikaslek osatutako enpresa) frontenis txapelketa antolatu du datorren urtarrilaren 19an Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Egun osoko txapelketa izango da, 09:30ean hasi eta 20:00etan bukatuko dena.

**20 euro bikoteko**

Ekimenaren helburua Aretxabaletako neska gazte bati laguntzea da. Hark duen gaixotasunari aurre egiteko behar duen tratamendua jasotzeko Bartzelonara joan-etorriak egin behar ditu, eta hain zuzen ere, bidaien gastuei aurre egiten lagundu gura dute txapelketaren antolatzaileek. Hori abiapuntu, txapelketan parte hartzeko urtarrilaren 18rako (egun bera barne) eman behar da izena, Aretxabaletan bertan (lekua ahalik eta lasterren zehaztuko dute), bikoteko 20 euro ordainduta.

Gazteak, emakumeak zein gizonezkoak gonbidatu gura dituzte parte hartzera. Gero, bi taldetan banatuko dituzte bikoteak.

**Eskerrak laguntzeagatik**

Wantcoop enpresa osatzen duten Mondragon Unibertsitateko ikasleek proiektu sozialak gauzatu gura dituzte, beharra duen jendeari laguntza emanez.

Edozelan ere, eta antolatu duten frontenis txapelketaren kasuan, eskerrak eman nahi dizkiete Aretxabaletako komertzioei, euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen txapelketa hau antolatzea.

# GOIENA papera da gora egin duen medio bakarrenetakoa

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Goienako hedabideen kontsumoak gora egin du aurten. Hala diote CIES erakundeak egindako inkestek eta baita Interneteko erabiltzaile kopurua eta haien joerak neurtzeko Google Analytics erremintak ere. *Goiena.net*-ek %20ko hazkundea izan du; GOIENA paperak 6.000 irakurle irabazi ditu Debagoienean eta Goiena telebista 7.000 lagunek ikusten dute astean barrena.

**Bakarrenetakoa**

Paperari dagokionez, CIESen arabera, %18,75eko hazkundea izan du; hau da, 6.000 irakurle irabazi ditu 2012arekin alderatuta. Gaur egun, 32.000 irakurle ditu gure eskualdean eta askogatik da nagusi, bigarren papereko irakurrienak, *El Diario Vasco*-k, 18.000 irakurle ditu-eta Debagoienean.

Gipuzkoan ere gora egin du GOIENA paperak. 35.000 irakurle ditu, iaz baino 2.000 gehiago. Gipuzkoan, laugarren egunkari irakurriena da *El Diario Vasco*, *Hitza* (Gipuzkoako *Hitza* guztiak) eta *Gara*-ren atzetik.

Kontuan hartzeko datu bat da GOIENA papera dela gora egin duen bakarrenetakoa. Izan ere, joera da paperekoek geroago eta irakurle gutxiago dituztela eta hori erakusten dute CIESen datuek. Esaterako, Gipuzkoan nagusi diren bost egunkarien artean *(El Diario Vasco, Hitza, Gara, Goiena* eta *Berria),* GOIENAk eta *Gara*-k bakarrik egin dute gora; besteek, behera.

DATUA

**6.000**

IRAKURLE

2012tik 6.000 irakurle irabazi ditu. Gaur egun, 32.000 irakurle ditu gure eskualdean. Hura da irakurriena.

# Erreklamazioak egiteko datuak batzen hasi da Ordaindu Elkartea

## Basauriko Edesa kooperatibako bazkideek, berriz, eserialdia egin zuten atzo

M.B./U.M. | ARRASATE

Mondragon Taldearen egoitzaren aurrean eserialdia egin zuten atzo, eguena, Edesako 100 bat langilek. Honako hauxe erreibindikatu gura izandute protestaldi horrekin: Fagor Etxetresnak eta bereziki Confort negozioko lanpostu bideragarriak defendatzea. Hala, bideragarritasun plan integralaren aldeko aldarria egin gura izan dute, eta Basauriko eta Bergarako plantak martxan jartzeko eskatu.

Debagoieneko Bazkideak plataformak aldarri horrekin bat egin du, "bideragarriak izan daitezkeen lanpostu guztien defentsan", baita Fagorreko bestelako langilek batzuek ere.



Edesako langileak Mondragon Taldearen egoitzaren aurrean. | MIREIA BIKUÑA

**Ordaindu, protestekin aurrera**

Bestalde, Ordaindu Elkartea buru-belarri hasi da lanean oraingo astean. Bi egunetan (martitzenean eta eguenean) bazkideen datuak batzen ibili da Arrasaten; eta atzo, eguena, berriz, kale agerraldia egin zuten, iluntzean, Biterin, orain arte egindako moduan, eta, horren harira, iragarri dute bide beretik segitzeko asmoa dutela, protestekin.

**Datuak, erreklamaziotarako**

Datu bilketari dagokionez, berriz, bazkideak zeuden deituta honako datu hauek eroatera: Fagor Etxetresnei, bai borondatezko ekarpen gisa, bai merkataritza-mailegu gisa, norberak egindako kapitalaren datua, eta norberaren datu pertsonalak. Horrela, erreklamazioa egiteko aukera izango da. Konkurtso-Mahaiaren aurrean.

Horrekin lotuta, iragarri dute datuok batzen segituko dutela. Eta horretarako hitzordua ere egin dute: datorren martitzenean, urtarrilaren 14an, 09:00etatik 12:00ak bitartean.

**Bazkideendako bakarrik**

Datuok biltzeaz gainera, Ordaindu Elkartetik jakinarazi dute elkarteari izaera ofiziala eman gura diotela eta zeregin horretan ere badihardutela egunotan.

Hala, elkarteak izaera ofiziala duenetik hasita, Ordainduren gastuak estaltzeko hiru hilabetean behin 25 euroko kuota ezartzea erabaki dute. Eta behin elkartea formalizatuta, bakar-bakarrik bazkide direnak artatuko dituztela ohartarazi dute.

Zeregin horiek guztiak egiteko Arrasaten lokal bat erabiltzen hasi da elkartea: Arrasate pasealekuko 3. zenbakian.



Permach, Galparsoro eta Errekondo, besteak beste, tanatorio sarreran.



Etxeberria eta Erkizia, besteak beste.



Hileta zibila, Aldain. | J. B. / Z.V.D.M.

# EAE-ANVko buruzagi historiko Kepa Bereziartuari azken agurra egin diote asteon

## Astelehenean hil zen azken urteotan Arrasate bizileku izan zuen Bereziartua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ezker abertzaleko hainbat buruzagik eta herritarrek Arrasateko Aldai parkean egindako hileta zibilean bat egin zuten Kepa Bereziartua EAE-ANVko militante historikoari azken agurra emateko, martitzenean (tanatorioan ere izan ziren horietako asko lehenago). Hileta zibila bera Bereziartuaren gorpua zeraman hilkutxa Aldai parkera heldu zenean hasi zen. EAE-ANVko bandera, lore sortak eta Bereziartuaren hiru argazki jarri zituzten militante historiakoaren hilkutxaren inguruan. Txalaparta doinuekin eta ikurrinak astinduz egin zioten ongietorria, eta ondoren bi arrasatearrek aurreskua dantzatu zioten.

Ezker abertzaleko buruzagien adierazpenak heldu ziren gero. Besteak beste, Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarretak 2007ko hauteskundeetan bizitakoak ekarri zituen gogora eta Bereziartuaren militantzia aktiboa goraipatu zuen. Periko Solabarriak hartu zuen hitza ondoren. 83 urteko euskal apaiz ohi eta politikari ezkertiarrak lagun handia joan dela esan zuen eta bihotzean beti gordeta eramango duela. Solabarriak zenbait bertso eskaini zizkion. Amaieran *Txoria Txori*, *Internazionala* eta *Eusko Gudariak* abestu zituzten.

Kepa Bereziartua Gasteizko Txagorritxuko ospitalean hil zen astelehenean, 64 urte zituela. EAE-ANVko presidente aukeratu zuten 2002ko ekainean, eta kargu hori bete zuen alderdia legez kanporatu zuten arte, 2008ra arte.

I. JARDUNALDIAK DONOSTIAN, 2014KO URTARRILAREN 16 ETA 17AN
UPV/EHUREN CARLOS SANTAMARIA ZENTROAN
LURRALDEA & HIZKUNTZA
HIZKUNTZA & LURRALDEA
LURRALDE-ANTOLAKUNTZAK ETA HIRIGINTZAK
HIZTUN-KOMUNITATEARENGAN DUTEN ERAGINA
WWW.UEU.ORG #LuHi
ANTOLATZAILEAK
Gipuzkoa BERRIA
UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA
KONTSEILUA
ueu
BABESLEA
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Iñaki Errazkin** | Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatua

# "Epelen eraikitzen ari diren konpost-planta urte amaierarako amaitzea espero dugu"

▸ Zubietako errauskailuaren kalteordainak ordainduta, hondakinez dihardu diputatuak

▸ Diputazioaren oraingo planak errauskailuarenaren erdia dela dio, 200 milioi euro

**ENEKO AZKARATE** | DONOSTIA

Hiri hondakinengatik dago hedabideetan sarri Gipuzkoako Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatua, beste ardura batzuk ere badituen arren. Eta hiri hondakinen gainean jardun dugu harekin, kontu honen gainean aldundiak dituen asmoak errepasatuta.

**Erraustegia Zubietan ez egiteko erabakia behin betikoa da?**

Kontratua geratu da bertan behera, baina egia da errauste plantaren aukerak zabalik jarraitzen duela, batez ere hainbat alderdi politikok hori defenditzen dutelako. Halere, etorkizuneko perspektiba batetik begiratuta eta hiri hondakinen gainean egiten dugun apustua kontuan hartuta, Gipuzkoan errauste planta bat eraikitzeak ez dauka bideragarritasunik, gure ustez. Balorizazio energetikoa egiteko aukerarik ez delako geratzen, geroago eta hiri hondakin gutxiago sortzen delako eta gehiago birziklatzen delako.

**Gipuzkoan, gaur egun, zenbat birziklatzen dugu?**

Oraindik ez dauzkagu 2013ko datuak, baina 2012koak kontuan hartuta %34ko tasa daukagu lurraldean. Sasietako mankomunitatean %50ean daude eta, beste muturrean, gutxien birziklatzen dutenen artean, Txingudi eta Debabarrena. Espero dugu %35-40 tarte horretan kokatzea 2013ko birziklatze maila. Pausoak ematen ari gara, baina oraindik inportanteenak emateko daude. 2016ari begira, %60ko birziklapen tasara ailegatu nahiko genuke.

**Zubietan aurreikusita zegoen errauste planta ez eraikitzearren 8 milioi eurotik gora ordaindu behar izan diozue enpresa eraikitzaileei. Dirua alferrik botatzea leporatu dizuete.**

Guk ez dugu horrela ikusten. Errauste plantaren proiektuak 400 milioi euroko kostua zuen. Eta guk, gaur egun, planteatzen ari garenak kostu horren erdia dauka. Hiri hondakinei, beste azpiegitura batzuen eta berrerabilpenaren bidez, probetxu eta etekin ekonomikoa atera nahi diegu. Hortaz, 8 milioi edo 200 milioi ordaintzea bada aukera, argi dago, egin dugun hautua egokia izan da.

**Enpresei ordaindu zaizkien kalteordain horien ondorioak igarriko ditugu herritarrok tasetan?**

Ez. Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan gaia eztabaidatu dute eta 2014ko zaborren tasa ez da igoko. Aldiz, jarraituko bagenu errauste plantaren azpiegiturarekin, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa behartuta legoke 2014ko tasa %50 igotzera eta horrek eragin zuzena izango luke herritarrengan.



Iñaki Errazkin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan, Donostian. | GFA

**Zer proposatzen duzue errauste plantaren ordez?**

Sei konpost-planta, biometanizaziorako bat eta trataera mekaniko-biologikoko hiru. Batzar Nagusietan onartuta daude eta ideia horrekin jarraitzen dugu. Indar legal guztia eta alderdien babesa dauka horrek.

**Egingo dira azpiegitura horiek?**

Gipuzkoan sortzen ditugun hiri hondakinen %80 tratatzeko, irteera emateko, aprobetxatzeko, aukera ematen digute azpiegitura horiek. Aipatzen dira materia organikoa tratatu eta berrerabili ahal izateko konpost-plantak, plastikoa eta beira tratatzekoak eta geratzen zaigun zatikiarendako, errefusarendako, beste aukera bat proposatzen dugu: tratamendu mekanikoa ematea, lehenbizi, zatiki horri. Gero, beste tratamendu biologiko bat, materia egonkortzeko eta bolumena txikitzeko. Eta, hori eman ostean, errefus zatiki hori erdira murriztu eta, behin egonkortuta, azken zatiki hori une honetan balorizatzeko aukerarik ez dagoenez, fardoetan batu eta degradatuta dauden tokietan, gordetegietan, sartzea proposatzen dugu, egunen batean, berreskuratzeko aukerarekin. Gipuzkoan horrelako gordetegi bat beharko genuke.

**Errefusaren azken zatikia gordetzeko biltegia non kokatuko den erabakita badaukazue?**

Oraindik ez. Datozen hilabeteotan egingo dugu lanketa hori mankomunitateekin batera. Gure lehentasuna, ordea, gordetegi horien aurretik tratamendurako plantak eraikitzea da. Itxierako emaitza izango litzateke gordetegi horien kokapena zehaztea.

**Zabortegi bereziak?**

Ez, zatiki hori gordetzeko planteatzen ditugun gordetegiek ez daukate zerikusirik gaur egungo zabortegiekin. Gainera, etorkizunean, arriskurik gabe, inori kalterik egin gabe, balorizatzeko aukera emango ligukete gordetegi horiek. Materiala atera eta berriro ere probetxua ateratzeko. Hori izango litzateke, nolabait, zirkuitua ixteko modua. Hainbat tokitan egiten dabiltza eta ekonomia eta ingurumenaren aldetik irteera egokia izango litzateke.

**Hori dena, azpiegitura horiek denak, errauste plantaren inbertsioaren erdiarekin?**

Bai, bai, hala da. Gainera, aurreko azpiegiturek baino 120 lanpostu gehiago sortzeko aukera eskaintzen digu, bilketan sor daitezkeen lanpostuez harago. Azpiegitura gehiago sortzeko aukera eskaintzen digu eta lanpostuena balioan jartzeko modukoa da, bereziki, krisi egoera honetan.

**Sei konpost-planta aipatzen ditu planak.**

Hori izango litzateke azken eszenatoki egokiena. Pausoz pauso joan beharko litzateke. Oraingoz, planteatzen dugu Bergaran, Epelen, eraikitzen ari diren konpost-planta. Bestetik, Lapatxekoa, Azpeitian, gaur egun martxan dagoena. Eta beste bat Zubietan, errauste planta eraiki behar zen lursail horietan kokatuko litzatekeena. Horretaz gain, Sasietan ere, Goierrirako, beste bat egitea planteatzen da. Horrekin nahikoa izango genuke datozen urteotan materia organikoa tratatzeko. Aurrerago, eskualde guztietan beharko genuke bana.

**Eta beste hondakinendako?**

Plastikoa eta beira tratatzeko plantak gaur egun baditugu eta nahikoa lirateke. Horiez gain, errefusaren tratamendu mekaniko eta biologikorako beste planta bat Zubietan bertan eraikiko litzateke. Hauek denak Batzar Nagusiek onartutako aurreko plangintzan ere agertzen ziren eta, hortaz, uste dugu adostasunez eraikitzen joateko aukerak baditugula.

**Ze epez ari gara?**

Adostasunean eta elkarlanean egiteko aukera badugu, azkarrago egingo ditugu.

**Epeleko planta ze egoeratan dago? Noizko egongo da?**

Aurtengo urte bukaeran amaitzea espero dugu. Une honetan lurrak -eta egokitu dira, planta eraikitzen hasteko. Bertan tratatuko dugu materia organikoa eta konposta egiteko tratatuko dugu. Konpost hori saldu egingo da ongarri moduan. Arazo dena soluzio edo etekin bihurtuko dugu bertan. Urtean 10.000 tona tratatzeko aukera izango luke. Hori eginda, une honetan Gipuzkoan jasotzen dugun materia organiko guztia tratatzeko aukera izango genuke Lapatxen eta Epelen. Horrek ez du esan nahi etorkizunean urratsak egin ahala eta materia organiko bereizi gehiago jaso ahala, beste plantarik beharko ez dugunik, eta horretarako proposatzen da Zubietakoa eta Sasietakoa.

**Ze inbertsio egin beharko da Epelen?**

Guztira, 7 milioi euro inguru.

**Aurtengo, abenduaren 31rako, zabortegi guztiak itxita?**

Plana zenbaterainoko adostasunez eta azkartasunez garatzen den, horren arabera doa zabortegiak ixtea. Gaur egun ditugun zabortegiak itxiko dira epe horretan besteak egiten badira aurretik. Batek bestea ekartzen du. Zabortegi horiek aspaldian beharko lukete itxita. Lehen data 2009an jarrita zen.

**"Epeleko eta Lapatxeko plantekin organiko guztia tratatuko dugu"**

**"Azken errefus zatikiarendako gordetegi bat planteatzen dugu"**

**"Azpiegitura berriekin 120 lanpostu gehiago sortuko genituzke"**

**"2016. urterako %60ko birziklapen tasara heltzea da gure helburua"**

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

20 euroko 100 erosketa-bonuren zozketen

# IRABAZLEAK

erosketak Debagoienean egitearren

EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



**ARETXABALETA**
Jose Ortiz Gutierrez
Mari Asun Esteban
Loly Mayoral
Mikel Altuna Lopez de Armentia
Esther Etxebarria
Loredi Beitia
Corpus Paul
Loraia Ortiz
Juanita Goñi
Maria Caceres
Mertxe Luelmo
Begoña Urkia

**ARRASATE**
M. Carmen Zabala Navarro
Ana Maria Bengoa Altuna
Luis Usatorre Aranzabal
Irati Olalde Gallastegi
Leire Zuazubiskar Otxandiano
Eva Errasti Arana
Amaya Bañuelos Kortabarria
Africa Marteatxe Etxebarria
Belen Jimenez Martinez
Ana Mari Fernandez Leon
Saioa Gomez Rubio
Arantza Garcia Bolinaga
Rosmery Montaña Parada
Justina Larrea Elorza
Tere Campollo Felix
Miren Garai Garai
Ainhoa Urrutia Almandoz
Andere Errasti Etxebarria
Juanma Vitoria Vallejo
Marisol Torres Parra
Laura Aguilar Alonso
Susana Carrasco Nogales
M. Jesus Lopez Moreiras
Jose Luis Perales Morales
Petra M. Inda Leibar
Ander Arejolaleiba Iria
Iosebe Gomez Aranburu
Ana Isabel Anaut de Miguel
Leire Etxebarria Abarrategi
Marisa Delgado Diez
Mikel Martin Sanz
Ana Isabel Najera Ortigosa
Marijo Bedia Perez
Maite Uribarren Jimenez
Rosarito Zubizarreta Guridi
Amaia Arregi Korta
Karmele Garai Uriarte
Itziar Mondragon Elorza
Nazaret Dominguez Ortega
Maribel Rojas Tomillero

**BERGARA**
Mariaje Alberdi Arizaga
Rosa Iñurrategi Lazpiur
Jose Antonio Cabo Fernandez
Egoitz Markiegi Aranburu
Begoña Payas Ametzua
Juan Cruz Azkarate Arizabaleta
Ixabel Arejolaleiba Aracama
Mertxe Gillegi Larrañaga
Saioa Martinez Martinez
Izaskun Iztueta Arando
Felix Igarza Iñarra
Irati Lazpiur Barankua
Mertxe Elkoroberezibar Odriozola
Margari Borda Remiro
Jose Luis Uribesalgo Gonzalez
Aitor Molina Moreno
Amaia Agirre Inza
Ines Borrego Caballero
M. Eugenia Basterra Arregi
M. Eugenia Arregi Eguren
Lorea Palacios Olamoja
M. Nieves Unamuno Vega
Irene Madinabeitia Uriarte
Ugutz Basauri Ganboa
M. Luisa Gesalaga Larrea
Miren Pereira Gonzalez
Itziar Arrue Aizpurua

**OÑATI**
Miren Zuazola Azurmendi
Ihanire Urteaga Cid
Mikel Sologaistoa
Mauro Gorostiaga Caballero
Nati Ormazabal Letamendi
Cristina Madina Arrondo
Myriam Etxegoien Arzuaga
Amaia Mundiñano Larraza
M. Asun Isasi
Pili Arzuaga
Nekane Murua Olalde
Goretti Madinabeitia Beitia
Andoni Elkoroiribe
Sonia Santos Soñora
Axibar Palacin Iñurritegi
Aitziber Arregi Telleria
Pili Zubizarreta Lapizondo
Ascension Dorado Muñoz
Mila Igartua Agirre
Ana M. Zumalde
Elena Altube Zurutuza

ESKERRIK ASKO
erosketak
zure herrian
egiteagatik,
eta zorionak!

Nork bere herriko dendari elkartean erabili ahal izango du 20 euroko bonua 2014ko martxoaren 31ra arte.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
aretxarte
BEDELKAR
ibai-arte
txanda

## ZABALIK

**MAIDER AZKARRAGA-URIZAR**
http://goiena.net/iritzia/



# Aluak aluen menpe

Oraingo honetan, gure aluak aluen menpe daudela ematen du. Gauza kuriosoa, gure barnean gertatzen denarekin betaurrekodun gizon batek erabakiko du zer egin.

Gure gorputzaren jabe izango balitz bezala, gure barnean gertatzen dena kontrolatu eta, gertatzen dena gertatuta ere, duzun adina izanda ere, bere legea betetzera behartuta egongo bagina bezala.

Gobernu matxista, frankista, elizkoia eta patriarkala.

Hauek dira gobernua definitzen duten hitzak.

Zuek erabaki behar al duzue ba nahi gabeko haurdunaldi baten aurrean zer egin behar dugun?

Zuen esanetan, haurdunaldiarekin aurrera jarraitu.

A bai, horixe; eta zuek ordainduko dituzue horien mantentzea?

**"Nik haurrik ez badut nahi, nahi dudana egingo dut eta punto"**

Ezinduak direnen kasuan, botikez, mediku kontsultez, behar duten atentzio guztiaz, zuek egingo al zarete kargu?

A, ez, noski, ez dago dirurik horretarako, baina itxura denez, gure eskubideak zapaltzeko gogoa bai.

Baina, hala ere, nik haurrik ez badut nahi, nahi dudana egingo dut eta punto.

Nire sabela, alua, bagina, ume-tokia eta gorputz osoa nirea delako, nirea bakarrik, eta munduan ez dago inor horiekin zer egin behar dudan esango didanik.

Nahi duten guztia esan eta inposatuko digute, bai, baina jakin, historia gizonen esku egon bada ere, iraultzarik izango bada, iraultza hau feminista izango dela, etorkizuna feminista izango dela.

Inor ez baita gure gorputzean gertatzen denaren jabe.

Egon ziur iraultza hau irabazi egingo dugula, zuek ikusi eta izan nahi ez duzuen berdintasuna izango dugula, eta egun horretan, gure abortuen odoletan itoko zaretela.

## USTEAK USTE

**INAZIO ARREGI** | iarregi@goiena.com

# Futbol klubak eta lehiakortasuna

Europar Batasuneko lehiakortasun komisarioak espedientе bana zabaldu die lehen mailako lau futbol talderi izaera juridiko berezia izanik sozietate zergako tipoa bost puntu txikiagoa zutelako. Gaiari behar bezalako sakontasunez oratzeko aukera galdu duela esango nuke, galerak aitortzen dituztenek ez dutelako zerga gehiago ordainduko tipoa bost puntu gehiago izanda ere. Iker bitza Almunia jaunak klubek instituzio publikoekin metatu dituzten zorrak, onartezina baita milioi askoko soldatak ordaintzen dituztenek Ogasunarekin egiten dituzten zorren bidez finantzatzea gehiegikeria horiek. Ez litzaieke xemeiko bakarrik onartu behar zorretan.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Arrasate surrealista

**Eneko Barberena**
blogak.goiena.net/barberenea/

Madrilgo San Ildefontso ikastetxeko haurren ahotsen oihartzunak egon dira Arrasateko gabon afaloste eta bazkaloste gehien-gehienetan. [...] Poza eta zoriona etxe askotan beraz, bejondeiela (bejondeigula) eta jakin bezate ganoraz gastatzen. Izan ere, bada diruak ekarritako bizi aldaketak, bizkarroien arrimatzea eta antzekoak, madarikatzen dituenik. Aurkia eta ifrentzua beraz, baina onetik gehiago Silviok dioen moduan *pero el que nace bien parado, en procurarse lo que anhela no tiene que invertir salud.*

Kontrara imaginatzen dut etxe gutxitan hitz egin dela Grumaleko langileek Arrasaten egin zuten egonaldiari buruz. Seber Altube plazan egon ziren kanpaldian, manifestatu ziren, batzuk ikusi genituen. Gehienok ez ditugu aintzat hartu zoritxarrez. Loteria, dezimo eta bazkideen birkolokazio forman, hori da hizpide nire inguruan behintzat.

Eta Grumaleko langileek gogorarazi didate orain dela urte gutxi, herrian bertan, Moldcam enpresako (behialako Uribesalgo) langileek eraman zuten borroka. Itxiera lotsagarri bat eta gero, jabeen lukurreria eta gero, espekulazio inmobiliario lotsagabeena eta gero, bakarrik manifestatu ziren. Apenas egin zien kasu inork. Lau katuk soilik. Kale gorrira bota zituzten beharginak, San Andres auzoko hilotz erraldoiak apenas gogoraraten digun jazo zena.

Nire kontzientzian iltzaturik ditut duintasun eta bakardade erakustaldi horiek.

Orduan ikasi nuen, arrazoia izatea ez dela nahikoa mundu honetan irabazteko, beste hainbat gauza behar dela. Grumaleko langileak oharkabean pasa zaizkigu, Arrasate surrealista honetan. Jaien eta loterien bestondoa dugu, hein baten normala izan litekeen moduan. Baina esanguratsua beste behin beharginak bakarrik manifestatu direla egiaztatzea…

P.S. Grumaleko langileen kanpaldiari buruzko informazioa: *http://uztarria.com/aktualitatea/1387359889.*

# Zerotik

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.info/blogak/lertxundi/

Urtearen agurrak balantzeak ekartzen ditu. Eta zifrak ematen. Urtean zehar, hainbeste istripu eta hainbeste hildako errepideetan. Lantegietan. Ezbehar domestikoetan. Balantzea egiten da genero indarkeriak hil dituen emakumeena ere. Iaz, hainbeste. [...] Urtero hasten gara kontatzen. Zerotik. Urtero ekiten diogu kontaketari, urtero berritzen dugu zerrenda.

Dagoeneko, hedabideek eman digute indarkeria sexistaren lehen biktimaren berri. Laster emango digute bigarren biktimarena. Hirugarrenarena… Orratza hasi da berriro lanean, zorrotz, kupidagabe. Ea aurten iaz baino gutxiago diren, ea iazko marka hausten den. Zenbatzen joango gara zenbat diren, hilketa bakoitzaren xehetasunak ezagutuko ditugu.

Eta urte bukaerara iritsitakoan, berriro zeroan jarriko dugu kontabilitatea. Hutsetik hasteko, beti hutsetik.

Baina kontagailua zeroan jarrita ere, errutina makabroak pausarik ez.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Gallardon, gure gorputza gurea da!

**Irati Garai**
(Oñatiko sare feministaren izenean)
Oñati

Itxaroten geunden, bagenekien Alberto Ruiz Gallardon justizia ministroak abortuaren lege erreforma proposatuko zuela. Baina honen aurrean ezin gara ez isilik, ez geldirik egon!

PPren lege erreforma honen bidez abortatzea debekatuko digute. Egungo legeari esker 14 astetaraino libreki abortatzeko eskubidea deuseztatuko da eta 2 baldintzatan soilik abortatu ahal izango da: bortxakeria kasuan, 12 astera arte, eta emakumearen osasuna arrisku larrian dagoenean, 22 astera arte. Hori horrela, umekiak malformazioak izatea ere ez da abortatzeko baldintza izango. 2 baldintza hauen kasuan ere abortatu ahal izateko jarraitu beharreko irizpide medikoak zorroztuko dituzte, gainera, eta aholkularitza behartu: guztira 3 medikuren onarpena jaso beharko du emakumeak. Ez al gara gure gorputzarekin eta bizitzarekin egin nahi duguna erabakitzeko gai?

Abortatzeko eskubidearen kontrako eraso larria iruditzen zaigu lege erreforma hau, ez baitigu gure gorputzaren gainean erabakitzen uzten. Haurra izan edo abortatuko duen erabakitzeko eskubidea oso-osorik emakumearena da eta ez politikari, epaile edo inongo gotzainena.

Gauza jakina da, gainera, eskubide honen debekuak ez duela abortuekin bukatuko. Abortatzen jarraituko dugu, baina modu klandestinoan, honek dakartzan ondorio larriekin: baliabide ekonomiko handiak dituztenek soilik abortatu ahal izango dute, beste herrialde batera joanez; baliabiderik ez dutenek, ordea, euren bizitza eta osasuna arriskuan jarriko dute abortu klandestinoetara joz.

Emakumeok emakume sentitu eta izateko ez dugu amatasunaren beharrik eta erreforma honekin, azken finean, horretara soilik mugatzen gaituzte, hori baita Espainiako eskuin muturreko kontserbadore faxisten ustez gizarte honetan dugun papera. Esan beharra dago Alderdi Popularra urteetako emakumeon borroka etengabeari esker lortutako guztia deuseztatzeko gai ez litzatekeela izango Eliza katolikoaren babesik gabe. Abortatzeko eskubidea ideologia patriarkal kontserbatzaileak kendu nahi digu.

Neurriz kanpoko erreforma honek gizarte osoari eragiten digu eta honen aurrean ezin gara geldirik egon. Denok mobilizazioetan parte hartzera animatu behar gara. Orain, inoiz baino ozenago, entzun gaitzatela: gure gorputza, gure bizitza, gure erabakia!

## Tobera, umorez eta dotoreziaz: eskerrik asko denoi!

**Iraitz Agirre Aranguren**
Arrasate

Hirugarren urtez, Debagoieneko Tobera burutu zen abenduaren 28an, non eta Bergaran, bailarako *partido judizialean*. Hirugarren Tobera honekin, nolabait, eskualdeko hiru herri handien *trilogia* itxi dugu, arrakastaz, umorez eta dotoreziaz, zela bestela! Eta aurtengo Toberan, azalkeriaz eta itxuraz aritu garen arren, komunitategintza, bailara izaera, eragile eta pertsonen arteko igurtziak, benetako besarkadak eta etorkizuneko erronkak izan ditugu hizpide, Bergarararentzat ez ezik, herri guztien erronka ere badirenak.

Bagaratik, Tobera hau sortzen, idazten, antolatzen, osatzen eta egiten lagundu diguzuen guztioi eskerrak eman gura dizkizuegu. Inoizko Tobera parte hartzaileena izan dela ez dago zalantzarik, gidoigintzatik hasi eta herri epaiketa satirikoa antzeztu artean, asko izan baitzarete modu batera edo bestera zuen aletxoa eskaini duzuenak. Laguntza eman diguzuen bergarar, auzotar eta debagoiendar guztiei gure eskerrik beroena. Gidoigintzan aritu zareten denoi, eta baita berau osatzeko ekarpenak egin dituzuenoi ere (Juan Martin Elexpuru, Idoia Etxebarria, Joxe Mari Larrañaga, Maialen, hiru Nereak, Ane eta Ione, Enaitz Alustiza, Ainhoa Larrañaga eta beste hamaika herritar!). Eskerrak Aranzadi Ikastola, Ipintza Institutua eta Zabalotegi aretoko langileei, entseguak egiteko lekua utzi eta beti, laguntzeko prest egoteagatik. Baita ezohiko udal plenoan parte hartu zenuten herri eragileetako ordezkariei eta herritarrei ere. Zela ez, Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatza, Alai taldea, San Josepe abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoko Soka Taldea eta Bergarako Musika Eskolari ere gure eskerrik beroena, eta bereziki, Valen Moñuxi. Nola ez, iazko Toberako lantaldeari, Oñatiko plaka jartzeko ekitaldian egindako lanagatik. Soinuako eta Goienako lagunei, urtero bezala, egindako lan itzelagatik. Bergarako frontoiko tabernako lagunei, beti laguntzeko prest! Eta nola ez, Bergarako Udalari, gure eskerrik beroena eta eskertuena, Toberari emandako babesagatik.

Eta batez ere, eta nagusiki, Herri Epaiketa Satiriko honetan antzezle lanetan aritu zareten lagun guztioi. Zuek barik, beste behin ere, Tobera egitea ezinezkoa izango litzatekeelako! Eskerrik asko, bihotzez!

## Hondakinak, adostasunak, talantea, desobedientzia zibila, etab.

**Piter Encinas**
(Arrasateko Ekologistak Martxan taldeko kidea)
Arrasate

Beste ezer esan baino lehenago, oso garbi utzi nahi dut birziklatzeko modu onena atez atekoa dela, zalantzarik gabe. Hau baieztatzeko, ez dugu Catalunyara joan behar, hemen, Euskadin ere, badaukagu horretarako aukera.

Arrasaten lortutako akordioa oso ona dela pentsatzen dugu, bai helburuei dagokienez, baita prozedurei dagokienez; jakina, gero denborak esango digu aproposena izango den ala ez. Lehen urratsa egin dugu, eta guk uste dugu oso positiboa izan dela, lortu dugulako ikuspuntu desberdineko pertsonak eta erakundeak elkartzea geuk eragiten dugun arazoa konpontzeko.

Bestalde, STOP PaP eta PSOEren jokabidea, nire iritziz, ez da izan oso mesedegarria Arrasaterentzat.Horrexegatik, gogoratu nahiko nuke erakunde hauek lehenengo eta bakarra izan zen bilerara joan zirela eta baldintza politikoak jarri zituztela mahai horretan egoteko; eta hori guztia gutxi izango ez balitz, ez zutela nahi izan ekologistok han egon gintezen. Norbaitek beste inori parte hartzeko betoa egiten badio, erakunde horren eskubideak murrizten ditu. Gero, demokraziaz lezioak eman nahi dituzte?

Zoritxarrez, Euskadin politika ustelduta dago. Hemen, batzuek ez dute aurkariekin argazki berean atera nahi, ez du inporta adostasun batera ailegatzen diren ala ez. Catalunyan, PSOE atez atekoaren alde dago eta parte hartzen du 100 herri baino gehiagotan. Zoritxarrez, politikari batzuek jauntxoen gisa jokatzen dute, eta hauek norbanakoen interesei lehentasuna ematen diete herriaren interesen aurrean.

Bukatzeko, aipatu nahi dut hondakinen mahaiaren garaipen handienetariko bat izan zela helburuei moduari baino garrantzi handiagoa ematea. Denok ados geunden: gaur egungo egoera eutsiezina zen, elkarrekin zerbait egin behar genuen. Izan ere, Eskoriatzan, Bergaran edota Legazpin gertatzen dena ez da zuzena, diktadura edo estatu-kolpe baten aurrean desobedientzia zibilerako deia egitea normala da, baina hemen gertatzen dena, uf! Norbaitzuk burutik jota daude.

## Antzuolako udaletxean, bandera española

**Euge Arrizabalaga eta Mikel Lete**
(Antzuolako EAJren zinegotziak)
Antzuola

Ezker Abertzaleak presa dauka Antzuolako udaletxean bandera española zintzilikatzeko. Urteko azken plenoan horrela agintzen duen sententziaren berri eman ziguten, hilabete lehenago jasotakoa.

Ez jartzeko asmoa balute, gure babesa eskainiko geniela esan genien.

Baina agindua ezinbestekoa dela erantzun ziguten.

Aginduaren aurrean ahaleginak egiteko eskatu diegu: betebeharra ahal den gehien atzeratzeko, zirrikitu legalak bilatzeko, bide guztiak agortzeko. Baina Ezker Abertzaleak ez du horrelakoetan denbora galdu nahi.

Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotziok badakigu antzuolarren gehiengo zabal batek ez daukala, ordea, Ezker Abertzalearen presarik bandera española udaletxeko balkoian dantzan ikusteko.

Baina Sortuk sententziaren betebeharra eperik laburrenean gauzatu behar dela interpretatzen du. Urtarrilaren 12an, txintxo-txintxo jarriko dutela esan digute.

Ez da ulertzen erraza Sorturen bat-bateko premia. Are gutxiago, Españako lege beraren arabera, sententziaren ohartarazpen ofiziala jaso zenetik bi hilabete… otsailaren amaieran betetzen direnean.

Non geratu dira Ezker Abertzalearen betiko aldarriak? Non, beste batzuek jarri behar izan dutenean (gehienetan Auzitegietako urte luzeetako ibilbidea gehiago luzatu ezin ostean) manifa jendetsuetan botatako irainak? Non, Ezker Abertzaleak, Sortuk, Bilduk, beste batzuei hain erraz eskaintzen dizkieten "desobedientziak" eta "plantoak"?

Antza denez, hutsaren pareko.

Udalbatzan bertan, alkateak erantzun zigunez, Antzuolak ezin omen dio 150.000 euroko isunari aurre egin. Antza, garestiegia da duintasunaren prezioa. Ez dakigu, ordea, nondik atera duten isunarena, Udalak ez baitu horrelako isun mehatxurik jaso; galdetu dugunean, behintzat, hori izan da eman diguten erantzuna, ez dela horrelakorik jaso.

1991-1995 agintaldian, EAJko Roke Inarra alkate zela, Udalbatzak bandera española Madrilera bueltan bidaltzeko erabakia hartu zuen. Orduan, Ezker Abertzaleak bat egin omen zuen erabaki harekin, eta bandera pakete batean Madrileko bidean jarri zen. Orain, berriz, Sortuk EAJko zinegotzion oniritzia lortu nahi izan du arrapaladan bandera española –handia edo txikia, finean, bandera española– Udaletxean jartzeko. Ez diegu eman, Antzuolatik Madrilera doan distantzia baino handiagoa dagoelako erabaki baten eta bestearen artean.

Hala erabaki badute, jar bezate beraiek. Guk ez diegu horregatik "español!" deituko. Baina bai akordaraziko diegula zein ulergaitza eta kontraesankorra, eta, beharbada, koldarra ere, izaten ari den euren jarrera. Zein erraz eskatzen dieten beste batzuei "hitzetatik ekintzetara" pasatzeko, eta zein erraz justifikatzen dioten euren buruari "hitzetatik kontrako ekintzetara" pasatzea.

## Eskerrik asko!

**Angel M. Garcia**
(Kabalgataren antolakuntzaren izenean)
Arrasate

Arrasateko Errege Kabalgataren batzordeak eskerrak eman nahi dizkie Arrasateko Udalari, Udaltzaingoari, obretako brigadari, SUDCi, merkataritza-dendei, banketxeei eta kabalgatan parte hartu dutenei. Umeengan eta Iturbide egoitzan eta Debagoieneko ospitalean daudenengan ilusioa piztu dute.

Eskerrik asko, bereziki, Julio Bellidori, azken 23 urteetan Baltasar errege zoragarria izan delako eta pertsona guztiei ilusioa eta poza eskaini dielako.

# HERRIAK



Hemendik aurrera, Arrikrutzeko kobak itxita egongo dira urtarrilean eta otsailean. | SERGIO LABURU

OÑATI

## Udalak aldatu egingo du turismo baliabideen kudeaketa eredua

Martxotik enpresa bakarra arduratuko da Arrikrutz–Oñatiko Koben eta Turismo Bulegoaren kudeaketaz

TXOMIN MADINA | OÑATI

Asteburu honetan Arrikrutz-Oñatiko Kobak bisitatzera doanak itxita aurkituko ditu ateak, eta horrela egongo dira datorren martxora arte. Izan ere, aurrerantzean, aldaketak egongo dira koben ordutegi eta egutegian.

"Kobak zabaldu zirenean aurreikuspen batzuk egin ziren: pentsatzen zen 60.000 bisitari izango zituztela kobek urtean, baina laurdenera ere ez dira iritsi. Ondorioz, eredua birdimentsionatu eta egungo errealitatera egokitu gura dugu", dio Oñatiko alkate eta Sozioekonomia batzordeko kide Mikel Biainek. Ondorioz, aurrerantzean, itxita egongo dira urtarrilean eta otsailean, eta behin zabaldutakoan, baita astelehen eta martitzenetan ere. Bada, aurtengo urtarrilean egongo dira zenbait bisita, aurretik hitzartuta zeudenak, hain zuzen ere.

### Kudeaketa, enpresa bakarrak

Aldaketak, baina, ez dira egutegira bakarrik mugatuko, kudeaketa bera ere aldatu egingo da-eta. Orain arte, enpresa bat arduratu da Arrikrutzeko koben kudeaketaz eta beste bat Turismo Bulegoaz. Udalaren Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziaren bitartez (OGTA), Arrikrutzeko kobek 140.000 euro jaso izan dituzte urtean eta Turismo Bulegoak, 70.000.

Bi enpresei oraintxe bukatu zaie kontratua, eta hori aprobetxatu du Udalak bi baliabideen kudeaketa bateratzeko.

**DATUAK**

| URTEA | ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK BISITARIAK | TURISMO BULEGOA ERABILTZAILEAK |
|---|---|---|
| 2007 | 25.000 | – |
| 2008 | 18.211 | 16.317 |
| 2009 | 14.767 | 18.165 |
| 2010 | 15.504 | 15.912 |
| 2011 | 13.799 | 17.481 |
| 2012 | 14.138 | 17.862 |
| 2013* | 14.136 | 15.539 |

*2013ko abenduko datuak zehazteke daude

ITURRIA: OGTA

### Martxotik aurrera

Dagoeneko onartuta eta argitaratuta daude lehiaketa publikoaren pleguak, eta martxo hasierarako esleipena eginda egotea da Udalaren asmoa. Lehiaketa irabazten duen enpresak 90.000 izango ditu bere gain bi enpresak kudeatzeko. Baina ez da hori izango duen diru iturri bakarra: "Arrikrutz bisitatzeko sarreren eta bisita gidatuen sarreren prezioak enpresak berak finkatuko ditu; uste dugu hori pizgarria izango dela enpresak ahalik eta bisitari gehien erakartzeko lan egin dezan", dio Biainek. Momentu honetan zazpi langile dabiltza lanean Arrikrutzeko Kobetan eta Turismo Bulegoan, baina ez dago jakiterik aurrerantzean zenbat egongo diren. Esleipena bi urterako egingo da, bi urte gehiago luzatzeko aukerarekin.

Aldaketa horrekin, gainera, Udalak OGTA enpresa publikoari egiten dion kapital handitzea (urtean 300.000 euro) %30 murriztuko du. "Azkenean, lortu gura duguna da Udalak dituen turismo baliabideak ahalik eta modu egokienean eta Udalari ahalik eta gastu txikiena ekarriz egitea", zehaztu du alkateak. Gaineratu du aldaketek ez dutela zerikusirik Arrikrutzen ematen den zerbitzuaren kalitatearekin: "Oso zerbitzu ona da, ia pertsonalizatua; baina egungo errealitatera moldatu behar da. Zalantza barik, horrek izango du eraginik zerbitzuan, baina eredu berri honen aldeko proba egin behar dugu".

Arrikrutzeko kobetan ez bezala, Turismo Bulegoan ez dute oraingo egutegi eta ordutegiarekin lotutako aldaketarik egingo: turismo bulegoen euskal sarea den Itourbasken sartuta dago, eta, hain zuzen, hor finkatzen diren irizpideak derrigorrez errespetatu behar dira.

### Turismoaren aldeko apustua

Mikel Biainen esanetan, turismoaren aldeko apustuak garrantzitsua izaten jarraitzen du Udalarentzat: "Errealitate sozioekonomikoaren ikuspuntutik Oñati herri industriala da, turismoak ez du horrenbesteko pisurik, baina bere alde lan egiten jarraituko dugu".

Horren harira, erronka da turismoaren fluxua mantentzea eta bisitak luzeagoak izatea. Hori lortzeko bidean, besteak beste, autokarabanendako aparkalekua egiteko proiektua eta Arantzazuko aterpetxea aipatzen ditu Biainek.

**Arrikrutzen kasuan, alkateak adierazi du hasierako aurreikuspenak ez direla bete**

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak







bai euskarari
zerbitzua euskaraz

BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Azkarragaurizar: "Beldur barik azaldu zuen kexa eta iradokizunak"

2014rako asmoez egin dugu berba asteon alkatearekin; herritarrengana hurbiltzea, erronketako bat

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Inazio Azkarragaurizar alkatea Arrasate Irratian egon da asteon, hasi berri dugun urtea aitzaki, hainbat gairen gainean berba egiteko. Arlo pertsonaletik osasuna eskatu dio 2014ari: "Topiko bat izango da, baina osasuna da garrantzitsuena". Izan ere, dioenez, alkate izateak ez du tarte larregi uzten erronka pertsonaletarako: "Nire lanarekin ez dut izaten denborarik ia ezertarako. Kirol gehiago egin gurako nuke, denbora gehiago hartzea bizikletan ibiltzeko".

Nolakoa izaten da alkatearen lanegun bat? Hona erantzuna: "Lanegun luzeak izaten dira, batez ere asteko lehen egunak. 08:30erako udaletxean egoten naiz eta 20:00ak edo 21:00ak arte ez dut amaitzen. Gero etxera, lasaitasun apur bat hartzera. Hori bai, ez da erraza izaten, hainbat kontu egiteke geratzen dira-eta".

**Pozik lantaldearekin**

Arrasateko ordezkari gorenaren paperean jarrita legealdi hasierako lehentasunak betetzen joatea du helburu alkateak: "Horretarako Udal Gobernuko kideen, udal langileen eta neurri baten ere herritarren laguntza beharko dugu". Izan ere, herritarrengandik gertuago egon gura du Azkarragaurizarrek: "Gerturatu udaletxera eta azaldu zuen kexa, zalantza edo iradokizunak, beldur barik". Herritarrengandik jasotako inpresioa ona da "orokorrean" eta Gobernu taldearekin ere "pozik" dago: "Talde ona dut ondoan, inplikatua. Nor bere arloan buru-belarri ari da lanean".

Eta oposizioaren gainean zer? "Oposizioko kideei eskatuko nieke arduraz jokatzen jarrai dezatela, orain arte bezala. Era berean, elkarlanerako gertu egon daitezela; ados gauden gaietan elkarlana ezinbestekoa izango da".

**Fagor Etxetresnak eta loteria**

2013ak utzi dituen gertaeren artean, Fagor Etxetresnen itxiera eta *El Gordo* loteria Arrasaten tokatu izana nabarmendu ditu alkateak: "Sentsazio kontrajarriak dira. Fagorren itxiera kolpe latza izan zen, baina pixkanaka irteteko gai izango gara. Bestalde, loteriak poz handia eragin du; eskerrak jende askori tokatu zaiola".



Inazio Azkarragaurizar alkatea udaletxean. | JOKIN BEREZIARTUA

**Udal tasak, KPIaren arabera**

Urte berriak prezio berriak dakartza; udal zerbitzuen tasak KPIaren arabera igoko dira: "Zerbitzuak mantendu ahal izateko beharrezkoa ikusten genuen KPIaren araberako igoera egitea. Hori bai, laguntzarako behar bereziak dituzten pertsonei laguntzeko gertu gaude. Izan ere, guretako lehentasuna pertsonak dira".

**TAO, ongizatea, hondakinak...**

Urte berriarekin beste proiektu bat jarri da martxan: TAO sistema. Urtarrilaren 2a ezkero dago indarrean, unibertsitate inguruan. Balorazio bat egiteko "goizegi" dela uste du Azkarragaurizarrek baina sistemak ondo funtzionatuko duela dio, eta baita erdialdean jartzeko modukoa dela ere.

Nafarroa etorbideko gizarte zerbitzuetako bulego berriak urte amaieran bukatuko dira: "Zerbitzua hobetzea gura dugu, pertsonalizatuagoa izan dadin". Orain arte udaletxean egon dira bulegoak eta "behar handia" zegoen horiek lekuz aldatzeko.

Hiri hondakinak biltzeko sistema berria ere aurten ezarriko da: "Nahiz eta edukiontziekin egin sistema berria izango da, adostutakoa. Edukiontzi berdea [beirarena ez, bestea] kenduko dugu eta horren ordez marroia eta grisa jarri. Ikusiko dugu gai garen jendea inplikatu eta denon artean hondakinak ondo biltzeko".

Bestalde, Azoka Plazako postuak aurten esleitu behar dira. Igogailu bat jarri, postuak lekualdatu eta azoka bera egokitzen joatea "erronka garrantzitsua" izango da 2014ra begira. GUreztatu azoka biziberritzeko ekimena begi onez ikusten du Arrasateko ordezkari gorenak: "Orain arteko inplikazioa oso zabala izan da. Orain, ondorioak gauzatzen hasteko unea da".

## Udal Gobernuak EAJrekin adostu ditu aurtengo aurrekontuak

31.711.604 euroko aurrekontua adostu zuen udalbatzak abenduaren 26ko osoko billkuran. 2014ko aurrekontua 2013koa baino %6,38 handiagoa izango da. Aurrekontuaren ardatz nagusiak honakoak izango dira, Udal Gobernuaren arabera: enplegua sustatzea, ongizatea bermatzea eta inbertsio berriak egitea. Aurten EAJrekin adostu dira aurrekontuak; jeltzaleek aurrekontuekin bat egiteko arrazoi nagusia izan da Udal Gobernuari aurkeztutako proposamen gehienak aintzat hartu direla. PSE-EEk, ordea, erabateko desadostasuna agertu zuen. Aritz Arrieta sozialisten bozeramailearen arabera, 2012an aurkeztutako zuzenketak ez dira kontuan hartu eta diru partida bat atez ateko bilketa sistemara bideratuko dela uste dute.

# Konpartsaren saria Itziar Araiztegik irabazi du

**J.B.** | ARRASATE

Itziar Araiztegik irabazi du Erraldoi eta Kilikien Konpartsak zozketatutako urdaiazpikoa eta gazta. Araiztegik eskuratu zuen sariduna izan den 1.707 zenbakia. Asteon eman dio saria Iñaki Arsuaga konpartsako kideak irabazleari. Konpartsakoek eskerrak eman gura dizkiete lagundu duten guztiei, eta jakinarazi dute laguntasun horri esker hainbat hilabetetara bi buruhandi ertain eta bi zaldiko txiki berri izango dituztela. Hilaren 4an *14-1-4, Konpartsak bizirik dirau* izeneko jaialdia egin zuten eta hainbat herritar gerturatu ziren gaitari, bertsolari eta erraldoiek piztutako girora. Kepa Junkera trikitilaria arduratu zen jaialdiari amaiera emateaz. Konpartsa sasoi onean dagoela erakutsi zuten horrela.



Araiztegi sariarekin. | GOIENA

## Autobus urbanoak beste geraleku bat du: Etxaluze atzean

Atzo ezkero beste geltoki bat du autobus urbanoak, erretiratuendako Etxaluze eraikinaren atzealdean. Herribusak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko egokitu du Udalak geraleku hori. Bada, geraleku berria jarri ostean, Maiatzaren Bata plazako biribilgunean zegoena kendu egin dute.





Xebas, Coco eta Kibubu –*gorila* esan gura du Kongon– izango dira biharko antzezlanaren protagonistak. | ARRASATEKO UDALA

# 'Kibubu' keinu bidezko antzezlana bihar Amaian

Marie de Jongh zigiluak abenduaren 29an estreinatutako obra dakar gurera

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Familia osoarendako antzezlan interesgarria ikusteko aukera izango da bihar Amaia antzokian (17:00). *Kibubu* du izenburu obrak, eta Marie de Jongh zigilu artistikoak –Tartean antzerki taldeak kudeatzen du– Bilboko Alhondigan estreinatu zuen abenduaren 29an. Testurik gabeko obra da, keinu bidezkoa. 50 minutu irauten du eta sarrerak Udalaren webgunean –*www.arrasate-mondragon.org*– daude salgai bost eurotan.

**Kibubu gorila, ikusle zaila**

Antzezlanak Xebas eta Coco pailazo bikotearen proiektu berria du abiapuntu. Pailazoak dira biak eta ilusioa gainezka duten arren oraindik ez dute arrakasta nabarmenik lortu. Ikuskizun berria prestatzen ari direla, Xebasek benetako gorila bat erostea erabakiko du, bere aurrezki guztiak xahututa. Izan ere, sinetsita dago gorila mendean hartu eta euren emanaldiak erakutsiz gero, sekulako txalo zaparrada jasoko duela. Baina Kibubu ez da ikusle erraza izango: eszeptikoa da, hainbat jabe izan dituena eta beste horrenbeste zirko eta zoologikotatik pasatakoa. Coco, bestalde, izututa dago hasieran gorilaren presentziarekin eta horregatik kaiola erraldoi baten izango dute preso.

Kibuburen aurrean Xebasek egiten dituen antzezpenek ez dute arrakastarik izango. Animalia mendean hartzeko zailtasunez aparte, gorilak ez du laguntzeko asmorik erakusten eta horregatik Xebas hura zigortzen hasiko da; orduan, Kibubuk, ordura arte erakutsi gabeko indarra erabiliz, Xebas zaurituko du, fisikoki zein psikologikoki. Bada, Coco Kibuburekin erlazionatzen hasiko da, musikaren bidez. Harremanetarako modu berri bat aurkituko dute horrela, Kibubu oso alaia eta gizakien imitatzaile ederra dela konturatzeraino.

Xebas Kibuburekin obra ikusgarri bat egiteko gai dela ohartuko da; beraz, munduko pertsona zoriontsuena da. Baina estreinaldi handiaren egunean Kibubuk ihes egingo du...

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

**4. JARDUNALDIA**

| | |
|---|---|
| Abokajarro - Haizea´s Weah | **3-5** |
| Betrayer- Birigarruak | **11-2** |
| Lasagabaster - Sport in tus bragas | **4-3** |
| Aldatz - Dribling | **2-5** |
| Ostantz - Jibaros F.C. | **6-3** |
| Fidel & Discipulos - Iluntz | **1-4** |
| Sonografos - Cantauri | **4-3** |

**5. JARDUNALDIA**

| | |
|---|---|
| Fidel & Discipulos - Lasagabaster | **1-2** |
| Sonografos- Iluntz | **5-4** |
| Betrayer - Dribling | **1-3** |
| Abokajarro - Ostantz | **5-2** |
| Aldatz - Sport in tus bragas | **7-2** |
| Haizea's Weah - Cantauri | **6-3** |
| Jibaros F.C. - Birigarruak | **9-2** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | J | P |
|---|---|---|---|
| **1** | Dribling | **5** | **15** |
| **2** | Haizea's Weah | **5** | **13** |
| **3** | Aldatz | **5** | **12** |
| **4** | Betrayer | **5** | **12** |
| **5** | Lasagabaster | **5** | **12** |
| **6** | Sonografos | **5** | **10** |
| **7** | Iluntz | **5** | **9** |
| **8** | Jibaros F.C. | **5** | **6** |
| **9** | Fidel & Discipulos | **5** | **4** |
| **10** | Ostantz | **5** | **3** |
| **11** | Abokajarro | **5** | **3** |
| **12** | Sport in tus bragas | **5** | **3** |
| **13** | Cantauri | **5** | **1** |
| **14** | Birigarruak | **5** | **0** |

**PARTIDUAK**

HILAK 11, ZAPATUA

| | |
|---|---|
| **10:00** | Jibaros F.C. - Dribling |
| | **Birigarruak** |
| **11:00** | Ostantz - Birigarruak |
| | **Jibaros F.C.** |
| **12:00** | Haizea's Weah - Iluntz |
| | **Ostantz** |
| **13:00** | Sonografos-Lasagabaster |
| | **Haizea's Weah** |

HILAK 12, DOMEKA

| | |
|---|---|
| **10:30** | Fidel & Discipulos-Aldatz |
| | **Betrayer** |
| **11:30** | Betrayer - Sport in tus bragas |
| | **Aldatz** |
| **12:30** | Abokajarro-Cantauri |
| | **Sport in tus bragas** |

### Protestak zigortzen

Antolakuntzak aditzera eman du lekuz kanpoko protestak eta sarrera zikinak zigortu egingo direla. Gogora ekarri dute partiduak atzeratzeko edo ordutegi eskaera egiteko epea aurreko domekara artekoa dela.


Carrascal dominarekin. | F. ZUFIRIA

## Eneko Carrascal kadeteak, urrezko domina Donostian

**J.B.** | ARRASATE

Euskadiko atletismo proba konbinatuen txapelketan urrezko domina lortu zuen Eneko Carrascal atleta arrasatearrak –14 urte–, kadete mailan. Urtarrilaren 3an eta 4an Donostian jokatutako txapelketan, 3.243 puntu lortu zituen Carrascalek, estatu mailan lehiatzeko behar diren 3.300 puntuetatik oso gertu.

Arrasate Kanpanzar taldeko arduradun Fernando Zufiriaren arabera, probak "oso gogorrak" izan ziren eta Carrascal "oso pozik" itzuli zen Arrasatera.

# Olentzerok eta Errege Magoek ilusioa barra-barra banatu zuten umeen artean

Euriak goibeldu zuen ikazkinaren bisita; desfilean, berriz, eguraldi ona izan zen

**J.B.** | ARRASATE

Txoronpiok, Txoronpiak eta Galtzagorriek goiz osoan zehar ume arrasatearren gutunak jaso ostean, abenduaren 24ko arratsaldean heldu zen Olentzero herriko kaleetara. Euriak ez zuen etenik izan eta horrek goibeldu egin zuen ikazkin maitatuenaren bisita. Ibilbidea ohi baino azkarrago egin behar izan zuten eta amaierako mutil-dantza eta herri-dantza ere euripean egin zituzten.

**Erregeek, eguraldia lagun**

Bestalde, Ekialdetik etorrita, hilaren 5ean heldu ziren Errege Magoak Arrasatera. 17:30 aldera Iturbide egoitzan hainbat opari banatu ostean, 19:00etan puntuan hasi zen desfilea Zerkaosteta kalean. Eguraldia lagun, Herriko Plazara heldu arteko ibilbide osoan errepide bazterrak bete zituzten herritarrek.

Gasparrek, Meltxorrek eta Baltasarrek danbor eta tronpeta hotsen artean eta abesbatzaren Gabon kantekin batera osatu zuten ibilbidea, eta Herriko Plazako jaiotza bizidunarekin amaitu zen. Gero, ospitalera joan ziren, eta han ere opariak eta ilusioa barra-barra banatu zuten.


Euriari aurre eginez, gozokiz eta opariz josita etorri zen Olentzero. | IKER SAN MIGUEL


Baltasar Errege Magoa Garibai etorbidean. | JOKIN BEREZIARTUA

## Kantariko entseguak bihar Harresi aretoan, goiz eta arratsalde

Gabonetako oporretan egokitu zaien kantua etxean ondo entseatzeko aukera izan ostean, Arrasateko eta Aramaioko gaztetxoek bihar egingo dute ikuskizunaren aurreko entsegu ofiziala. Arrasaten 39 taldek eman dute izena, 8 eta 12 urte arteko 175 neska-mutikok. Ikuskizuna hilaren 18an izango da, Amaia antzokian, 14:30ean hasita; Amaia Txintxurretak gidatuta, arratsalde osoan zehar izango dira saioak. Saioen arteko atsedenaldiak Eskoriatzako DJ Andonik girotuko ditu.

Sarrera doakoa izango da eta ez dago aurrez gonbidapenik eskatzeko beharrik.

# Ia 30.000 argazki zahar herritarren kontsultarako

Udal Artxiboaren ondoan ordenagailua jarri dute erabilera horretarako

IRATI GOITIA | OÑATI

Udal argazki bildumak kontsultatzeko ordenagailua jarri dute udaletxeko hirugarren solairuan, artxiboaren ondoan.

**Herritarrentzat erabilerraza**

"Proiektu horren helburua da Oñatiko Udal Artxiboak kudeatzen dituen argazki-funtsa ezberdinak kontsultatzeko bilgune bateratu bat sortzea, sofware askean oinarritua, eta ikerlari eta herritarrentzat erabilerraza izango dena", adierazi digu Izar Salaberria artxiboko arduradunak. Izan ere, zehaztu digu orain arte Interneteko plataforma ezberdinetan zeudela argazkiak ikusgai, baina orain guztiak bateratu eta edozein herritarrek kontsultatzeko modua ahalbidetu dela. Horrenbestez, udaletxea irekita dagoen orduetan edonor joan ahal izango da kontsultak egitera (astelehenetik egubakoitzera (09:00etatik 21:00etara). Hala ere, Salaberriak gomendatzen du norbaitek bere laguntza behar izanez gero, hobe dela aurretik deitzea bera bertan egongo dela ziurtatzeko.

Datu-base bateratuaren proiektua Euskomedia Fundazioak egin du eta 7.744 euroko aurrekontua izan du. GipuzkoaIKTren 4.646,40 euroko diru laguntza jaso da.

**30.000 argazki inguru**

Udal artxiboak Oñatiko argazki zaharren bilduma ezberdinak gorde eta kudeatzen ditu, besteak beste: XX. mende hasierako irudi bilduma, *Oñatiko Historia eta Arte Bilduma* libururako ateratakoak eta Jesus Mari Arzuagak eta Andres Arlazonek Udalaren esku utzitako argazki funtsak. Guztira, ia 30.000 argazki dira. Irudi horiek hainbat euskarritan zeuden (kristalezko plakak, negatiboak, papera...) eta poliki-poliki guztiak digitalizatzen joan dira artxiboko arduradunak. Orain, guztiak kontsulta daitezke udaletxeko ordenagailuan. Lau multzotan daude antolatuta argazkiak: Arzuagaren funtsa, Arlanzonen funtsa, Oñatiko Historia eta Arte Bilduma eta XX. mende hasierako argazki zaharrak. Bilaketa aurreratuak egiteko aukera ere badago hitz gakoak erabilita (egilea, gaia, urtea...).


Jarri duten ordenagailua. | UDALA.

Bestalde, kontsultak egiteko hiru erabiltzaile mota izango dira: administratzailea, gonbidatua (erabiltzaile eta pasahitz gabe kontsultatuko du) eta erabiltzaile pertsonala (erregistratua, iruzkinak egiteko aukera izango du), hain zuzen ere.

**Kopiak**

Argazkien kopia digitalak egiteko aukera ere badago, tasa ordainduta (0,51 euro).

# Atez atezko esekitokietan hobekuntzak egingo dira

I.G. | OÑATI

Azkenaldiko haizeteekin nahiko arazo izan dira atez ateko kuboekin: apurtuta azaldu dira, errekara jausita edo errepideen erdian. Bada, Udala badabil arazoa konpontzeko irtenbidearen bila.

**Zintzilikarioak aldatu**

"Oso kezkatuta gaude. Gabon inguruan ikaragarrizko haizetea ibili da eta argi ikusi da kuboak zintzilikarioetan jartzeko sistemak baduela hobetu beharra", esan du Mikel Biain alkateak. Hala, konponbidea topatzeko lanean dabiltzala gaineratu du: "Dagoeneko egin dugu proba bat aste honetan. Esekitoki bati aldaketak egin zaizkio eta hiru eredu ezberdin frogatu dira: maratila bat jartzea, zirrikitua bera txikitzea eta engantxea ezartzea. Azkenean, lortu behar duguna da konponbidea erabilerraza izatea herritarrentzako eta baita langileentzat ere. Aldi berean, hobekuntzak izan behar du eraginkorra haizeteen aurka. Egia da izan ditugun haizeteak ez direla ohikoak izan, baina kasu hauek ezin dira berriro errepikatu eta hori kontuan hartuta erabakiko da soluzioa. Hain zuzen, horretan gabiltza eta epe laburrean jakinaraziko dugu planteamendua".

**"Pazientzia"**

Biainek dei bat egiteko ere aprobetxatu du: "Herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen diegu. Ikusi ditugu oso egokiak izan ez diren jokabideak. Norberak arduratu behar du bere kuboa jasotzeaz. Zoritxarrez apurtzen bada, informazio bulegora joan eta bertan eskura daiteke beste bat. Arazoa konpondu bitartean, arduraz jokatzea eskatzen dugu".


Kuboak errekan. | O.E.

# Iñaxio Ibarrondok pieza bat egin du Aratusteetarako

Martitzenetan eta zapatuetan dira dantzen entseguak Oñatzek Errekalden duen lokalean

O.E. | OÑATI

Martxoaren 1ean ospatuko dira aurten Aratusteak eta Oñatiko Inauteriak taldea hasi da dagoeneko egun horretako festa prestatzen. Joan den urtean bezala, asmoa da dantzan hasi eta dantzan bukatzea eguna.

**Ibarrondoren pieza**

Joan den urteko asmoa, baina, berrikuntzekin dator. Dantzetan, arropetan eta pertsonaietan egongo dira berrikuntzak. "Iñaxio Ibarrondok propio konposatu du pieza bat Aratusteetarako, eta dantza sortu dugu. Arropei dagokienez, berriz, jantzi berezi bat eramango dugu aurpegian. Pertsonaietan ere egongo da aldaketa, eta hori lantzen hasi gara dagoeneko", azaldu du Oñatiko Inauteriak taldeko kide Arkaitz Bengoak.

Aratusteetako dantzen entseguak ere hasi dituzte. Joan den martitzenean egin zuten lehen saioa eta 60 herritar joan ziren. "Batzuk joan den urtean ere etorri ziren, baina berriak ere baziren, eta pozik gaude, gogotsu etorri dira denak", dio Bengoak.


Iazko Aratusteetan. | AMAIA TXINTXURRETA

Gazteak zein nagusiak dira entsegura joan diren herritarrak, baina aurten antolatzaileek muga jarri diote adinari. "Gaztetxo asko etorri dira, baina denondako festa izatea gura dugu, denok parte hartzeko modukoa eta jarraipena izango duena. Horregatik pentsatu dugu 16 urtetik gorakoak izatea parte-hartzaileak", argitu du Bengoak. Entseguak Oñatzek Errekalden duen lokalean egingo dituzte: martitzenetan 20:00etan eta zapatuetan 12:00etan.


Espazio berrian egokitutako geletako bat. | KONTZEJUPETIK

# Txiki-Txoko eraberritua erakutsiko dute gaur eta bihar

O.E. | OÑATI

Txiki-Txoko haurreskolan eraberritze lanak egin dituzte, eskariari erantzun ahal izateko. Gaur arratsaldean inauguratuko dituzte Oñatiko Udalak udatik hona Txiki-Txoko haurreskola handitzeko eta egokitzeko egin dituen lanak. Egokitzapen lan horiei esker, 0 eta 2 urte arteko 40 haurrentzako tokia egongo da Txiki-Txokon; lehen baino 8 gehiago.

90,40 metro koadroko espazio berria da egokitu dutena; hain justu ere, eraikin nagusiaren eta psikomotrizitate gelaren artean zegoen terrazan. Espazio berrian, 1-2 urteko haurrentzako bi gela, komuna eta logela egokitu dituzte. Irekiera ekitaldia gaur, egubakoitza, egingo dute, 18:00etan. Bihar, aldiz, eskola zabalik egongo da 12:00etatik 14:00etara eta datorren aste osoan egongo da irekita matrikula epea.

**Azpiegiturak berritu**

Gune berriarekin irabazitako espazioari esker, orain arteko eraikin nagusian hainbat egokitzapen egin dira, baita hainbat azpiegitura berritu ere; besteak beste, saneamendua, argindarra, ura... Biltegi bat ere egokitu dute. Espazio berrian zoru erradiatzailea jarri dute.

## Irrien Lagunak datoz domekan Antixena gaztetxera

Irrien Lagunak klubeko kideak Antixena gaztetxera datoz domekan. *Arrantzara dantzan* izeneko ikuskizuna ekarriko dute, orain arteko berriena. *Arrantzara dantzan* ikuskizuna Irrien Lagunak klubeko kideen azken ikuskizuna da eta taldeko hainbat kide joaten dira herriz herri antolatzen dituzten hitzorduetara. Domekan Oñatin izango dira. Umeendako ikuskizuna izango da, eta arratsaldean, 17:30ean, hasiko da. Sarrera bost euro kostako da.

## Marrazki tailerra egingo dute bihar arratsaldean Kuboan

Gaztelekuak antolatuta, gaztetxoendako marrazki tailerra egingo dute bihar, zapatua, arratsaldean, Kuboan. Andoni Jimenez izango da tailerreko irakaslea eta haren eskutik marraztuko dute gura duten gaztetxo guztiek.

Arkatza hartu eta marraztea gustatzen zaien gaztetxoendako tailerra izango da. Arratsaldeko bostetan egingo dute gaztelekuko Kuboan. Ez da aurretik izenik eman behar, nahikoa da ordu horretan Kubora joatea.


Mikel Laskurain gainerako aktoreekin. | GOIENA

# Bihar 'Emaztegaiaren semea' Zabalotegin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

*Emaztegaiaren semea* antzezlana ikusteko aukera egongo da bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan. Bi emanaldi egongo dira, 20:00etan lehena eta 22:30ean bigarrena, eta sarrera 10 euro da.

*Emaztegaiaren semea* komedia handi egiten duen istorio horietakoa da eta horren arrazoia da eszena gehienetan, elkarrizketa dramatikoen erdian, umorea azaltzen dela.

Gertakizun nagusi bi dira egitura tragikomikoaren oinarria: gurasoen ezkontza eta zorigaiztoko negozioa bilakatu den familia-jatetxea kate multinazional bati saldu beharra. Ikuslea barre algaratik negargurara eramaten duten pertsonaiak eta egoerak dira nagusi, emozio bi horiez berdin gozarazita. Azken baten, bizitzaren beraren pasarteak eszenaratzen dituzte; gutako edonori gertatutako edo gerta dakizkiokeen istorioak.

**Mikel Laskurain ere bai**

Taula gainean aktore ezagun on asko batuko dira: Asier Hormaza, Sara Cozar, Kandido Uranga eta Iñake Irastorza, hain zuzen ere. Eta horiekin guztiekin batera, Mikel Laskurain bergararra ere bai.

## Euskal musika Juan Mari Beltran hirukotearekin

M.B. | BERGARA

Juan Mari Beltran herri-musikari, ikertzaile eta irakasleak saioa egingo du domekan, 18:00etan, Zabalotegi aretoan. Ander Barrenetxea eta Andoitz Antzizar musikariekin batera arituko da eta saio didaktikoa egingo dute, familia guztiarendako. Saioaren helburua da Euskal Herriko kantuen, doinuen, dantzen eta soinu-tresnen hotsen bidez Euskal Herriko musikaren zenbait alderdi erakustea. Hala, kontzertuan barrena, Euskal Herriko zenbait eskualdetako ospakizun publiko nahiz familiarretan erabili izan diren soinu-tresnak –arrabita rabela, xirula, ttunttuna, musukitarra...– eta musikak entzun ahal izango dira.


Juan Mari Beltran. | GOIENA

## Kontzertuak eta musikari buruzko argazkiak Tapoi Fest-eko izarrak

M.B. | BERGARA

Badator aurten ere Tapoi Fest harcore-punk festa gaztetxera. Hirugarren urtez, gaur eta bihar artean ospatuko da.

Gaur, egubakoitza, hasiko da, 19:00etan, liburu aurkezpen batekin. Hain zuzen ere, Banizu Nizuke argitaletxeak, *Euskal Herriko Musika Argazkilariak* izeneko bildumaren barruan, *Musika eteten denean dantzariak tokialdatu egiten dira* argitalpena kaleratu du, eta horixe aurkeztuko dute. Hodei Estebanek hartu du parte bertan, Egoitz Irizarrekin eta Ariane Smiercirekin batera: "Hasieran euskal hardcore-punkari buruzko argitalpena egitea proposatu ziguten. Gu eremua *underground* edo gaztetxe mugimendura zabaltzearen alde agertu ginen, eta ildo horretako argazkiak jaso ditugu", azaldu dute egileek.


Argazkietako bat. | TAPOIFEST

**Kontzertuak ere bai**

Liburuaren aurkezpena ez ezik, kontzertuak ere egongo dira Tapoi Fest jaian. 22:00etan hasita lau taldek hartuko dute parte eta sarrera 4 euro ordaindu beharko da.

Azpeititik Gaitze taldea etorriko da; duela gutxi sortutakoa, baina esperientziadun kidez osatua. Punk azkarra eta gordina jorratzen dute. Lasartetik, berriz, Bar Remigio taldea etorriko da; Bad Religion taldearen bertsioak egiten dituen tributu -banda. Bilboko eta Donostiako kidez osatutako Trigger Travis hardcore-rock taldea ere izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean eta gaueko laugarren banda Logroñoko Raiser izango da. Kontzertuaren ondoren, Mugu&Seti disko-jartzaileak egingo du saioa.

Zapatuan, berriz, Teodora Barbarie, Fly Shit, Drop eta MKT taldeek egingo dute kontzertua –sarrera 4 euro–, 22:00etan hasita, eta ondoren, Pantxinon&Romano disko-jartzailearekin dantza egiteko aukera egongo da.



Astelehen, astearte eta asteazkenetan
%20ko
deskontua ile-apaindegian*
Eta **mutilek** ere, **ostegunetan**,
garbitu eta moztu, %20ko deskontuarekin.
WiFi GUNEA
Ibargarai 43 · 20570 Bergara · 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com
Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30
Ostirala: 09:30 > 18:30
Larunbata: 08:30 > 12:30
*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.



Maider Osa –Kultura teknikaria– eta Leire Iruin –Kultura zinegotzia–, diru-bonuaren aurkezpenean. | IMANOL GALLEGO

# Diru-sarien ordez bonuak banatuko ditu Udalak

## Bonua jasotzen dutenek herriko komertzioetan erabili beharko dute

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bergarako Udalak aldatu egin du herritarrek era boluntarioan egindako lana eskertzeko eta antolatzen dituen lehiaketen sariak emateko modua. Orain arte zuzenean eman du dirua (urtean 10.000 euro inguru bideratu izan ditu horretarako); aurrerantzean, baina, erosketak egiteko diru-bonuak banatuko ditu.

Diru-bonu horiek, baina, badute berezitasunik; izan ere, herriko denda, taberna eta jatetxeetan erabili beharko dira derrigorrez. "Herritarrek egindako lan boluntario hori saritu gura genuen, baina baita sari horiek herriko komertzioetara onura ekartzea ere; bonu hauekin, bi helburu horiek betetzen ditugu", azaldu zuen eguaztenean egindako aurkezpenean Leire Iruinek, Kultura zinegotziak, eta gaineratu zuen herriko komertzioa indartzeko asmotan egiten ari diren ekimen sortan txertatzen dutela. Diru-bonuen balioa, urteko, 10.000 euro ingurukoa izatea kalkulatzen dute.

**Bonuaren funtzionamendua**

Udalak emandako diru-bonua erabili gura duen herritarrak ordaintzeko orduan datu gutxi batzuk bete beharko ditu bonuaren atzeko aldean: izen- abizenak, nortasun agiri zenbakia eta sinadura. Bonua jasotzen duen herritarrak hiru hilabete izango ditu hura erabiltzeko. Era horretara, erabilera okerra saihestu gura du Udalak.

Bonu horiek hartzen dituzten dendari eta ostalariek udaletxera jo beharko dute dirua kobratzeko. Bertan, orri bat bete beharko dute izen-abizenekin, NIF edo nortasun agiri zenbakiarekin eta dirua sartzea gura duten kontu korrontearen zenbakiarekin. Ekimenean parte hartu gura ez dutenek Udalari jakinarazi beharko diote.

### Oraindik ere izena eman daiteke Jardunen plazako dantzetan

Arin-arina, fandangoa, aurreskua, banakoa eta koreografia berriak ikasteko aukera dago ekainera arte, eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara. Asteon hasi dira eskolak, Zabalotegin, Abarka taldeko irakasleen eskutik. Oraindik ere eman daiteke izena, 942 76 36 61 zenbakian eta *jardunkultura@topagunea.com* helbidean.

### OHARRAK

**1956AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 25EAN**

Zabala jatetxean egingo dute. 19:00etan elkartuko dira Usoa tabernan; 20:00etan talde argazkia egingo dute San Martin plazan eta 20:30ean autobusa hartuko dute azoka ondoan. Afalostean dantzaldia egongo da. Izena emateko, deitu 943 76 42 57 (Zabala) edo 630 62 61 30 telefono zenbakira hilaren 21a baino lehen.



IBON GABILONDO

### Etxabarri eta Crespo irabazleak

28 bikotek jokatu zuten hilaren 4an Euskal Herriko VI. Mus Txapelketaren barruko kanporaketa Artatse elkartean eta horietako lau sailkatu ziren Gipuzkoako kanporaketarako: Eloi Crespo eta Luis Etxabarri izan ziren lehenak (250 euro eta ardoa); bigarrenak, *Gotxi* Ibarra eta Mikel Zubizarreta (150 euro eta ardoa); hirugarrenak, Ibai eta Unai Pagaldai (txerrikumea, bi botila ron eta bi botila ardo) eta laugarrenak, Gabilondo aita-semeak (bi txuleta eta lau botila ardo).



# Euskararen Erabilera Plana onartu du Udalak

Abenduko ezohiko bilkuran, gainera, presoen aldeko mozio bat onartu zuten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Abenduaren 23an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen Aretxabaletako udalbatzak 2013-2017 epealdirako V. Euskararen Erabilera Plana, aho batez. Hain zuzen ere, administrazioan euskarari dagozkion hainbat aurrerapauso ematea da egitasmoaren helburua.

Horrez gain, ezohiko osoko bilkuran aditzera eman zutenez, euskararen erabileraren derrigortasun indizea gutxi gorabehera%72an kokatzen da Aretxabaletan, baina praktikan datuak hobeak direla esan zuen Iñigo Louvellik, Euskara eta Hezkuntza zinegotziak: "Momentu honetan gure Udaleko zerrenda ofizialeko langileek %80 betetzen dute, eta, beraz, zehaztutako indizearen gainetik gaudela esan dezakegu". Zifra positiboa dela dio zinegotziak: "Zenbaki onak dira, eta aurrerapausoak ematen jarraituko dugu, ahalik eta indize gorenena lortzeko asmoz".



Urteko azken bilkuran onartu zuten plana. | AMAIA TXINTXURRETA

**Fernandez, Kirol batzordera**

Bestelako gaiak ere landu zituzten urteko azken bilkuran. Besteak beste, Debagoieneko Kirol batzordean aurrerantzean Tomas Fernandez zinegotzia egongo dela erabaki zuten. Bada, proposamena aldeko bederatzi botorekin eta EAJren abstentzioarekin onartu zuten.

**EH Bilduren mozioa, aurrera**

Bestalde, EH Bilduk euskal preso politikoen eskubideen aldeko mozioa aurkeztu eta aurrera atera zen. Ana Bolinaga alkateak espetxeetan ez direla presoen eskubideak bermatzen esan zuen, eta gaineratu zuen horren erakusgarri dela jasaten duten isolamendua, "hain zuzen, presoek eurek eta haien senideek jasaten dutena". Ziklo berrian urratsak egitearen garrantziaz egin zuten berba: "Jendarteak euskal presoen eskubideak bermatu eta horren aldeko prozesuan inplikatzea aldarrikatzen du".

**Euskal Herriko Musika Eskolak**

Amaitzeko, Euskal Herriko Musika Eskolen elkartearen adierazpena onartu zuten aho batez. Hala, 2013ko otsailaren 28an Legebiltzarrak onartu zuen elkarteak %33ko finantzazioa izango zuela, baina oraindik %14koa besterik ez dela salatu zuten abenduko bilkuran.

## Urtarrilean hasiko da frontenis txapelketa

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Hilaren 17an amaituko da Loramendi elkarteak eta UDAk antolatutako emakumeen frontenis txapelketan izena emateko epea. Horretarako Loramendiren egoitzara edo udaletxera joan beharko da, zein *emakumeenfrontenisauda@gmail.com* helbide elektronikora idatzita. Bikoteko 10 euro ordaindu beharko dira lehenengo partiduaren egunean bertan.

Emakumea, kirola eta euskara uztartzen dituen txapelketa urtarrilaren 25ean hasi eta martxoaren 8an amaituko da. Asteburuetan jokatuko dira partiduak, hain zuzen ere Iturrigorri frontoian eta azken egunean, finala jokatzeaz gain, sari banaketa egingo dute. Lehen bikoteak 200 euroko bonua, trofeoa eta txapela jasoko ditu; bigarrenak, aldiz, 100 euroko bonua eta trofeoa.

## Fiare banku etikoa aurkezteko berbaldia egingo dute hilaren 16an

Z.V.D.M | ARETXABALETA

Fiare banku etikoari buruzko hitzaldia egingo dute urtarrilaren 16an, eguena, 18:00etan hasita, Arkupeko bigarren solairuan. Aretxabaletako Udalak, Basotxok, Parrokiak eta Hiruatxek antolatutako berbaldian, banku etikoaren sortzaileetako batzuek, Periko Etxaburuk eta Iñigo Errastik, hartuko dute parte.

**Herrian, ordezkaritza**

Basotxoren egoitzan aurkeztu zuten hitzaldia eguaztenean. Arrazoia da aurrerantzean Aretxabaletan ere Fiare banku etikoaren ordezkaritza bat egongo dela. Oraindik ez dute zehaztu, baina, non kokatuko duten. Eguaztenean Oier Etxebarriak, Pedro Etxebarriak, Joseba Errastik eta Josema Corcuerak hartu zuten parte prentsaurrekoan.

Aditzera eman zutenez, banku etiko ezberdinak daude, baina Fiarek jendartea hobetzeko egiten duela lan azpimarratu zuten: "Gardena da, jendartea aldatzeko eta injustiziak arintzeko sortu zen, eta Aretxabaletarentzat eta batez ere herritarrentzat aukera egokia dela iruditu zaigu".

Hala, aretxabaletarrak animatu gura dituzte datorren asteko berbaldian parte hartu, Fiare bankuaz gehiago ikasi eta, interesa izanez gero, banku etikoaren parte izatera.

## Tokiz eta egunez aldatu du Jaiki elkarteak dantza laborategia

Z.V.DM. | ARETXABALETA

Jaiki elkarteak orain arte kuartel zaharrean egin izan du gorputz-mugimendu-dantza laborategia. Aurrerantzean, baina, eguenetan elkartuko dira Arkupen, 17:30etik 19:30era bitartean.

Halaxe eman digu aditzera Maier Etxebarria elkarteko kideak: "Dantza aretoan elkartu gara, eta, oraingoz, laborategia soilik lekualdatu dugu. Gura duten guztiak gerturatu daitezke".

**Domekan, dantza familian**

Bestalde, 2014rako ere familian dantzan aritzeko saioak antolatu ditu Jaikik, eta, beste behin ere, Kuku Miku elkartearekin batera antolatutako saioak izango dira; azken horrek Durana kalean daukan egoitzan egingo dituzte saioak.

Urteko lehenengoa domeka honetan, urtarrilak 12, izango da, 16:30etik 17:30era. "Interesa dutenei gogoratu gura diegu oso baliagarria zaigula aurrez izena ematea, hobeto antolatzen lagunduko digu eta". Gainera, saioko eta pertsonako 3 euro ordaindu beharko direla ere eman du aditzera Etxebarriak. Parte hartu gura dutenek *jaikielkartea@yahoo.es* helbidera idatz dezakete, eta 943 53 43 96 telefonora deituta ere eman daiteke izena.

## Astelehenean irekiko dute 'Jar gaitezen' erakusketa

Astelehenean ireki eta hilabete osoan egongo da ikusgai *Jar gaitezen* erakusketa Arkupen. Ekimenean jasotako hainbat ekarpen bilduko dituzte paneletan; ekarpen berriak ere batuko dituzte. Gainera, *Aretxabaleta argazkitan* izeneko lehiaketara aurkeztutako lanak ere egongo dira ikusgai. Herritarrek gustuko dutena bozkatu ahal izango dute.

## Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa Urbaltzen

Domekan, urtarrilak 12, Euskal Herriko Mus Txapelketaren barruko partidak jokatuko dira Urbaltz elkartean, 16:00etan hasita. Martxoaren 8an Heletan (Nafarroa Behera) egingo den finalaren aurretik tokian tokiko norgehiagokak egingo dira. Herrietako partiden ostean, herrialdekoak egingo dira, Orion, otsailaren 14an, 15ean eta 16an.

## Abortuaren Legearen aurka jantzi zen kabina

Urteko lehenengo eraldaketa bizi izan zuen Aretxabaletako telefono kabina famatuak. Oraingo honetan, *Abortoa libre eta doan* dioen karteltxoa zintzilikatu dute, eta horrekin batera zenbait panpina, untxi belarri eta tanga ere.




UGUTZ USANDIZAGA

## Dolua ardatz duen 'Aulki hutsak' lana ikusgai martitzenan

Martitzenean, hilak 14, doluari buruzko dokumentala egongo da ikusgai Zaraia aretoan, 19:30ean hasita. Lanaren egileek diotenez, "gure gizartean tabu bihurtu den gaia dakar dokumentalak. *Maite dugun hori hiltzean zer?* galderari erantzuna topatu nahi dio". Dokumentala Iñaki Peña medikuak idatzi eta zuzendu du.

# Kiroldegia 07:30ean zabaltzen hasi dira

Astelehen goizetan itxita dago; 14:00etatik 21:00etara dago erabilgarri

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aldaketak daude kiroldegiko funtzionamenduan. Ordutegiari dagokionez, astelehen goizetan ixten hasi dira, eta aste barruko gainerako egunetan lehenago zabaltzen; hain justu, astelehenetan, 14:00etatik 21:00etara dago orain zabalik; eta martitzenetik egubakoitzera, 07:30etik 21:00etara. Zapatuetako ordutegia ere aldatu dute, goizetan 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 16:00etatik 20:00etara izango dituzte erabiltzaileek herriko kirol instalazioak eskura. Domeketan eta jaiegunetan, azkenik, goizez baino ez dira zabalik egongo.

Abenduko lehen hamabostaldian herritarren kiroldegiak zuen ordutegiari buruzko iritzia jasotzen ibili ziren. Bi aukera eskaintzen ziren: domeka arratsaldetan zabaltzea eta astelehen ixtea, edo ohiko ordutegiarekin jarraitzea. Emaitza parekatua izan zen; hori bai, bigarrena aukeratu zuten askok goizean kiroldegia lehenago zabaltzearen alde egin zuten. Horren harira, honakoa azaldu digu Rosa Lasagabaster kirol aholkulariak: "Domeka arratsaldean zabaltzea ez da samurra, esfortzu handia eskatzen duelako. Hortaz, lehenago zabaltzea erabaki dugu, baina horretarako, astelehen goizetan instalazioak itxi behar ditugu".



Kiroldegiko harreran informazio guztia dute herritarren eskura. | M.B.

**DATUA**

**15**

EURO

Tarifa berriak daude. 18 urtetik gorakoek 15 euro ordainduko dituzte hilean.

**Bonifikazioak Axtrokietan**

Bestalde, urte berriarekin batera, tarifa berriak sartu dira indarrean. Orain arte, urte osoko kuota ordaintzen zen; eskoriatzarrendako 103 euro zen. Hemendik aurrera hiru modutan ordaindu ahal izango dute bertakoek: esaterako, 18 urtetik gorakoek 15 euro ordaintzen dituzte hilero, 35 euro hiru hilez behingo, eta 110 euro urte osokoagatik. Lasagabasterrek gaineratu du bonifikazioak eskatzeko aukera dagoela; Axtrokia izena duen moneta lokala jasoko dute deskontu moduan.

Azkenik, kirol jarduerei dagokienez, kirol aholkulariak azaldu du eguerdiko spinning saioa izan ezik, gainerakoak mantendu egiten direla; eta gogorarazi du izena eman aurretik debalde egin daitekeela proba.



Atzo goizean Santa Mariñen ateratako irudia. | MIRIAN BITERI

# Amaitzear dago Santa Mariñeko aparkalekua

Eguraldiak laguntzen badu, asteon bertan amaituko dituzte lanak; asfaltatzea falta da

M.B. | ESKORIATZA

Oso aurreratuta daude Santa Mariñeko aparkalekuko obrak. Abendu hasieran hasi ziren lanak, eta asmoa da datorren astean bertan zabaltzea 80 bat ibilgailurendako gune berria. Obretako arduradunak jakinarazi digu asfaltatzea eta margotzea baino ez dela falta eta, eguraldiak laguntzen badu, aurreikusitako epeak beteko direla eta asteon bertan amaituko dituztela lanak.

Obrak, baina, ez dira amaituko. Langileek oraindik lanean dihardute erdiguneko biribilgunearen ingurunean, eta datozen asteotan Olazar eta Arbiñoste inguruetan hasiko dira lanean. Jakina denez, martxorako Bolibar eta Azkoaga Enea hotelaren arteko zatia ibilgailuendako mugatu eta oinezkoendako ireki gura da, eta, hori ahalbideratzeko, bide alternatiboak egokitu behar dira aurretik. Hain justu, Olazarren, besteak beste, oinezkoendako zubia jarriko dute Telefonica ondoan; eta Arbiñosten, garbileku ondoan, egurrezko zubi berria izango dute oinezkoek. Horrez gain, ingurunea asfaltatuko da eta Arbiñoste eta Aranburuzabala kaleetako bidegurutzea zabalduko da.

**Erdiguneko errepidea**

Bestalde, herriko hegoaldea zeharkatzen duen errepide zatia asfaltatu egingo da datozen asteotan; hain zuzen, Aranburuzabala kalea eta Dorleta eta Olazar arteko pasabidea. Iparraldeko errepide zatia dagoeneko asfaltuta dago eta margotze eta seinaleztatze lanak falta dira.

# Areto futbolean hitzarmena sinatu dute Debabarrena eta Eskoriatzako elkarteek

T.M. - M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteak areto futbolarekin lotutako lankidetza hitzarmena sinatu du Debabarrena klubarekin. Eskoriatzako arduradun Narciso Pavok azaldu du asmoa dela areto futbola indartzea eta bi urte eman dituztela eguazten iluntzean sinatutako hitzarmena adosten.

Hainbat puntu ditu horrek: batetik, teknikariak formatzerakoan kluben arteko kolaborazioaz egiten da berba; horren harira, besteak beste, urtero hiru hitzaldi teoriko eta praktiko egitea adostu dute. Horrez gain, kluben arteko topaguneak eta entrenamenduak ere aurreikusi dituzte; denboraldi hasieran eta denboraldian zehar.

**Beheko kategorietan lanean**

Bestalde, beheko kategorietan egiten den lanari garrantzia eman gura diote. Debagoien eta Debabarren osoan maila horiek indartzeko neurriak hartzea erabaki dute. Beste askoren artean, udalerriekin hitzarmenak egitea, eta horien bidez udaleku ibiltariak antolatu nahi dituzte.

Bestetik, ondo dabiltzan jokalariei erreferentziazko taldeetan jokatzeko erraztasunak ematea eta bi klubetako jokalarien arteko elkartrukea aurreikusten da; hala, Eskoriatzako jokalariek goragoko mailan dagoen Debabarreneko taldean jokatu ahalko dute.

Azkenik, Pavok nabarmendu du hasiera baino ez dela eta Gipuzkoako klub gehiagorekin nahi dutela elkarlanean lan egin.




Eskoriatzan sinatu zuten eguaztenean hitzarmena. | TXOMIN MADINA

## OHARRAK

**ATE IREKIAK**

Herriko kiroldegian ate irekiak egiten dabiltza; astelehenean amaituko dira horiek.

**AURREKONTUAK**

Aurtengo udal aurrekontuak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan hilaren 21era arte. Epe horren barruan, kontuak aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal dira.

**KINTOEN ARGAZKIAK**

2012ko amaieran eta 2013. urtean 50 urte egin dituzten kinto eskoriatzarrek argazki albuma egin dute eta otsailaren 15era arte ikusgai egongo da Zarauztarra tabernan. Azken urteotan egindako bazkari eta afarien irudiekin dago osatuta hori. Interesa dutenek, gainera, albuma eskatu ahal dute tabernan bertan.

# Imsersoren termalismo programan izena eman daiteke hilaren 16ra arte

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko zabalik dago Imsersok nagusiendako urtero gertatzen duen termalismo programan izena emateko epea. Otsailetik abuztura arteko txandetarako, lekua esleitzerakoan lehentasuna izan gura dutenek hilaren 16 baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak; eta irailetik abendura bitarteko txandetan izena emateko epea, berriz, maiatzaren 16an amaituko da.

Interesatuek bi bide dituzte esandako eskaerak egiteko: Imsersorekin harremanetan jarrita 901 10 98 99 telefono zenbakira deituta; edo udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara jota, bulegora joanda edo 943 71 31 36 telefono zenbakira deituta.

## Antzuolako mus txapelketa gaur iluntzean hasiko da

Mus txapelketak lau kanporaketa izango ditu eta lehena gaur iluntzean jokatuko da, Mox tabernan, 22:15ean. Bigarren kanporaketa Eperra elkartean izango da domekan, 16:30ean. Datorren astean, hirugarren eta laugarren kanporaketak jokatuko dira, bata egubakoitzean, urtarrilak 17, Gailur tabernan, 22:15etan, eta zapatuan, hilak 18, Ongi Etorri jatetxean, 16:15ean. Finalari dagokionez, urtarrilaren 26an jokatuko da, Arin jatetxean, 16:30ean hasita. Izena jokatu nahi den tokian eman beharko da eta, gutxienez, lau bikotek egon beharko dute lehian.

## Domekan irekiko dute Antzuolako 8 Milietan parte hartzeko epea

Iazko lasterketak izandako arrakastaren ondoren, aurten ere Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa jokatuko da. Otsailaren 16an izango da eta domekatik aurrera izena emateko aukera izango da. Antolakuntzako kideak aldatu egin badira ere, lasterketak bere horretan jarraitzen du. Beraz, 13,8 kilometroko bidea osatu beharko dute korrikalariek. 10:30ean hasiko da lasterketa eta parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu. Apuntatzeko *www.kirolprobak.com* webgunera jo behar dute interesatuek. Halaber, herritarren parte hartzea bultzatzeko, doako 10 izen-emate zozketatuko ditu Udalak.



Aurtengo aurrekontuak herritarrei azaltzen. | ANE ETXEBERRIA

# Aurrekontuaren banaketa ezagutu dute herritarrek

Aurrekontuetako dirua zertan gastatuko den ezagutu zuten herritarrek

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Nahiz eta asteartean ezohiko batzarrean onartuko diren aurtengo aurrekontuak, aste honetan herritarrei aurkeztu dizkiete aurrekontuen zirriborroaren nondik norakoak. Hala, dozena bat herritar Olaranen izan ziren herrian egingo diren inbertsio eta gastuen berri ematen. Halaber, euren iritzi, kezka eta zalantzak argitzeko ere balio izan zuen ekitaldi informatiboak.

Departamentu bakoitzeko zinegotziek euren sailek izango dituzten kopuru eta asmoen berri eman zuten. Aurten, 2.526.087 euro izango ditu Udalak eta diru gehiena Ongizate Sailean gastatuko da. Murrizketak izan ez dituen ataletako bat da; izan ere, 463.384 euro izango dira aurten sail horretan gastatzeko.

2014an inbertsioetarako diru gutxi geratzen dela aipatu zuen Inma Beristain alkateak: "Gastu asko ditugu herrian, zor publiko handia dugu, maileguak ordaindu behar dira, baina zerbait egiterik izango dugu". Hala, besteak beste, herriko argiteria konponduko da koadro elektriko berriak jarrita, autobusa herritik ateratzeko bigarren faseko lan batzuk egingo dira, baserrietara ur sarea zabaltzen joango da, futbol zelaian aterpe bat egingo da zaleak ez bustitzeko, Torresoroan jarlekuak jarriko dira Goizper-en eta Foru Aldundiaren laguntzarekin eta elkarbizitza protokoloa aurrera eramango da. Horiek dira, besteak beste, Udalak aurten aurrera eramango dituen ekimenetako batzuk. Horretaz guztiaz gainera, alkateak hauxe argitu nahi izan zuen: "Aurrekontu hauetan EAJren ekarpenak ere kontuan izan dira; horrenbestez, martitzeneko batzarrean aurrera aterako dituzte kontuak.

**DATUA**

**2.526.087**

EURO

**Hori da aurten Udalak izango duen diru kopurua. Iazkoarekin alderatuta 80.000 euro gutxiago izan dira sarreretan; beraz, gutxiago gastatzeko.**

### GASTUAK SAILKA

| DEPARTAMENTUA | EHUNEKOA |
|---|---|
| **Ongizatea** | %18,54 |
| **Hirigintza** | %15,84 |
| **Zor publikoa** | %10,26 |
| **Ingurumen-nekazaritza** | %5,01 |
| **Hezkuntza** | %3,55 |
| **Kultura** | %3,31 |
| **Kirola** | %1,93 |
| **Euskara** | %1,53 |
| **Gazteria** | %0,95 |
| **Udal mantenua** | %8,09 |
| **Udal taldea** | %1,86 |
| **Pertsonala** | %29,13 |

ITURRIA: ANTZUOLAKO UDALA

# DKT kirol txartela erabilgarri gimnasioan

Debagoieneko Kirol Txartela erabiltzeko eskaintza bereziak izango dira Udal Gimnasioan

A.E | ANTZUOLA

Debagoieneko Kirol Txartelaren (DKT) jabe direnei, Oñatiko, Arrasateko, Eskoriatzako eta Bergarako kirol instalazioak erabili ahal izateaz gainera, txartel hori eduki eta urtean 15 euro ordainduta Antzuolako Udal Gimnasioko bazkide egiteko aukera ematen die Udalak. Hala, Antzuolako Udal Gimnasioan bazkide izateak fitness gela doan erabiltzeko aukera ematen du, baita urteko jardueretan, besteak beste, spinning, pilates, body tono eta zunba kiroletan, prezio merkeagoak lortzeko ere.

**2014ko prezioak**

Hori horrela, DKTri Antzuolako Udal Gimnasioan sartzeko 15 euroko ordainketa gehituta, prezioak honakoak dira: helduendako txartel indibiduala 229,92 euro izango da (214,92+15 euro), bi laguneko familientzat 422 euro (392+30 euro) eta hiru laguneko familientzat 437 euro (392+45 euro). Informazio gehiago jasotzeko, gimnasiora bertara joan edo *antzuolakogimnasioa@gmail.com* helbidera idatzi behar da.

**Ginmasiok, 4 urte**

Nahiz eta azaroan urteak bete, hil honetan hainbat ekintza egingo dituzte herritarrekin batera urteurrena ospatzeko. Hala, astelehenetik ostiralera, herritar guztiei zabalik egongo da gimnasioa eta gonbidapenak banatuko dituzte ekintza bereziak egiteko. Hilaren 18an fitness jaialdi handia ospatuko da.


Udaletxean jarri beharko dute Espainiako bandera. | A.E

# Ikurrinaren aldeko omenaldia gaur plazan

Espainiako bandera jartzeko agindua salatu eta ikurrinari omenaldia egingo diote gaur 19:30ean

A.E | ANTZUOLA

"Espainiako bandera ezartzea agindu digutela salatu eta ikurrinari omenaldia egiteko" ekitaldia antolatu du Udalak gaur arratsalderako. 19:30ean izango da ekitaldia, herriko plazan, eta bertan parte hartzeko dei egin du Udalak.

Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzatik jasotako agindu baten haritik eta helegiteen bitartez bide administratiboak agortu ostean, Espainiako bandera jarriko dute udaletxean domeka honetan, hilak 12. "Gobernutik datorkigun inposaketaren aurrean" Antzuolako Udalak azalpenak eman nahi izan dizkie herritarrei; izan ere, bandera ez jartzeak ondorio latzak izan ditzake; besteak beste, alkatearen eta arduradunen gaitasungabetzea eta isun ekonomikoak.

Udalak argitaratutako oharrak dioenez, ebazpena bete ezean, "administrazioak Espainiako bandera ipiniko luke udaletxean datozen hilabeteetan, horretarako polizia edo dena delako autoritatea bidaliaz". Horretaz gain, alkatearen urtebeteko soldataren pareko isuna jasoko luke Udalak eta alkatearen edo dagokion arduradunaren gaitasungabetzea. "Bandera ipini ezean, praktikan Udala Gobernurik gabe geratzera eramango luke, bandera jarri nahi ez duten guztiei, ordezkari guztiei, aplikatuko baitzieten gaitasungabetzea".

Horrenbestez, herritarrei dei egiten die ikurrinaren aldeko omenaldian parte hartzeko eta "ezadostasuna adierazteko etxeetako leihoetan ikurrina jartzeko urtarrilaren amaierara arte".

ARAMAIO

# Euskara Plana aho batez onartu zuen udalbatzak

Abenduaren 30eko osoko bilkuran onartu zuten 2013tik 2017ra arteko plana

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Datozen lau urteotarako Euskara Plana aho batez onartu zuen udalbatzak abenduaren 30eko ezohiko osoko bilkuran. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) prestatutako txostena hartu dute oinarri eta helburu nagusia da Udalaren funtzionamenduan euskararen aldetik identifikatu diren hutsuneak betetzea. Besteak beste, espediente zein aktak, ahozko erabilera –formala zein informala–, beste erakundeekin ematen diren harremanak edota herriko eragileekin ematen direnak euskaraz egiten diren aztertzen ditu txostenak. Uemaren irizpideak betetzeko bidean 2017 amaierarako Udalak zein helburu lortu behar dituen zehaztu dute. Urteroko neurriak kudeaketa planetan jasoko dira, epeak eta arduradunak zehaztuta.

Udalak 2002an onartu zuen lehenengoz Euskara Plana eta ordutik hainbat aurrerapen egin ditu euskararen arloan.

**Jon Ortueta zinegotzi berria**

Bestalde, Andoni Solupe zinegotziaren dimisioa modu ofizialean jakinarazi zen osokoan. Arrazoi pertsonalengatik utzi du kargua Solupek eta alkateak haren "borondate ezin hobea" nabarmendu du: "Erraza izan da harekin lan egitea, hurbil sentitu dugu beti". Haren ordez Jon Ortueta sartuko da; auzoetako ardura hartuko du, Lierni Altunarekin batera: "Ikasteko eta lanerako gogoarekin nator", dio Ortuetak.



Olentzero, Sastiñan, haurren gutunak jasotzen. | AIZPEA AJURIAGERRA

## Haurrek zein helduek ez dute aspertzeko astirik izan Gabonetan

**J.B.** | ARAMAIO

Gabonetan, Aramaion ere, haurrak izan dira protagonista: tailerrak ludotekan, Olentzeroren etorrera, ipuin kontalariak, Hontza Extrem abentura parkera eta Bilboko PIN jolas parkera irteerak, magia emanaldia, Gabonetako jolas parkea kiroldegian... Ia egunero egon da haurrendako ekintzaren bat. Olentzeroren etorrera izaten da urtero ilusio gehien pizten duen ekintza eta aurten ere ez da salbuespena izan. Elkartasuna guraso elkarteak deituta, traktorean heldu zen ikazkina. Euripean egin zuen kiroldegitik plazara arteko kalejira eta gero Sastiñan jaso zituen, banan-banan, haurren gutunak. Papargorri abesbatzak girotu zuen ikazkinaren bisita.

**Bertso saioan, sarrerarik ez**

Helduek ere ez dute aspertzeko astirik izan. Abenduaren 27ko bertso saioan, esaterako, Kultura etxea lepo bete zen –batzuk kanpoan geratu behar izan ziren–. Amets Arzallus txapeldun berriarekin batera, Unai Iturriaga, Xabier Silveira eta Paula Amilburu aritu ziren bertsotan, Manex Agirrek eta Xabi Igoak jartzen zizkieten gaiekin. Aramaio plaza ederra dela argi geratu zen beste behin.



Paula Amilburu aramaioarra bertsotan, Gabonetako saioan. | ALEX MENDIKUTE



JOSU OLAIZOLA

## Del Campo eta Olaizola, finalean

Gabonetan Debagoieneko pilota txapelketa jokatu da lau egunean zehar. Aramaion, Arrasaten, Oñatin eta Antzuolan jokatu ziren kanporaketak eta finalak Oñatin izan ziren abenduaren 31n. Aramaiotik bikote bakarra heldu zen finalera, alebin mailan: Asier Del Campo eta Julen Olaizola. Antzuolako bikotearen aurka jokatu zuten, baina ezin izan zuten irabazi (16-15). Hala ere, pozik jaso zuten txapeldunordeen garaikurra.

### Kantariko entseguak bihar Arrasateko Harresi aretoan

Aramaioko sei taldek –21 gaztetxok– hartuko dute parte Kantarin. Bihar izango da ikuskizunaren aurreko entsegu ofiziala, Arrasateko Harresi aretoan –goiz eta arratsaldez–. Ikuskizuna hilaren 18an izango da Amaia antzokian, 14:30ean hasita. Sarrera doakoa izango da eta ez da gonbidapenik eskatu behar.

### Aramaixok bihar jokatuko du urteko lehen norgehiagoka

Areto futboleko Aramaixo taldeak bihar jokatuko du bederatzigarren jardunaldiko partidua, Colegio San Prudencio taldearen aurka (17:00). Sailkapenean gora egiten hasteko aukera ederra izango dute aramaioarrek; Aramaixo bederatzigarrena da (4 puntu) eta Colegio San Prudencio, berriz, seigarrena (9 puntu).

LEINTZ GATZAGA

# Labidea eskualdatzeko lanetan dabiltza asteon

Sei hilabeterako adjudikatu du zerbitzua Udalak

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak adjudikatu du Labidea oinarrizko produktuen dendaren kudeaketa. Bertan lanean ibili den Inaxio Gabilondok kudeatuko du, Ixidor Salaberri gatzagarrarekin batera. Eta kudeatzaile berriek dagoeneko jakinarazi dute berritasunak egingo dituztela.

**Irekiera data zehazteke**

Oraingoz, baina, denda eskualdatzeak dakartzan zereginekin dabiltza. Horretan jardun dute buru-belarri oraingo astean. Adibidez, azken 12 urteotan bertako kudeatzaile izan den Aitziber Gorosabelek denda husten dihardu eta kudeatzaile berriek, berriz, batez ere burokrazia kontuetan dihardute.

Gauzak horrela, oraindik ezin dute zehaztu noiz zabalduko duten atzera ere. Dena den, kudeatzaile berrien asmoa da ahalik eta lasterren zabaltzea Labidea oinarrizko produktuen denda.

Gabilondok eta Salaberrik sei hilabeterako hartu dute Labidea, kontratua urtebetera luzatzeko aukerarekin.

## Zaborrari dagokion zergak berritasunak izango ditu 2014an

**U.M.** | LEINTZ GATZAGA

Urteko ohiko jarduna hasteaz batera, zerga bilketa egiten hasi da Udala. Hain justu ere, bi zerga ordaintzeko epea zabaldu du oraingo astean: urari dagokion 2013ko laugarren hiruhilekoa eta zaborrari dagokion aurtengo lehen seihilekoa.

Urari dagokion zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik izango da urtarrilaren 15etik martxoaren 14ra. Behin epe hori bukatuta, zerga ordaindu ez dutenei gainkargurarekin kobratuko die Udalak.

Zaborrari dagokion zerga ordaintzeko borondatezko epea, berriz, urtarrilaren 15etik otsailaren 28ra bitartean izango da zabalik, eta uraren kasuan moduan, gainkargua izango da borondatezko epe hori betetzen ez bada.

Edozelan ere, zaborrari dagokion zergaren kasuan, berritasun nabarmena izango du aurten: bonifikazioa izango dute hondakin organikoekin konposta egiten duten herritarrek, auzo-konposta edo autokonposta egiten badute, bestela esanda. Bonifikazio hori kontuan hartzeko modukoa da, gainera, %50ekoa.

Bestalde, kontuan izan 2014an %3ko igoera aplikatuko diotela zaborraren zergari.

### Baserri inguruan sortutako plastikoaren bilketa egutegia

Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi du plastiko bilketari dagokion 2014ko egutegia. Eta Leintz Gatzagari dagokionez, aurrez deitu beharko da zerbitzu hori erabili beharra izanez gero, bestela ez da-eta pasatuko. Telefono zenbakia honakoa da: 943 76 25 47. Gatzagari dagokion bilketa lekua Dorletako bidegurutzea da.

Zerbitzu horren bitartez batzen den plastiko mota da siloa estaltzeko, belar boletarako eta berotegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegietan erabiltzen den plastiko zuria.

# Aurten mantentze-lanek izango dute lehentasuna

## 2014ko udal aurrekontua iazkoa baino 47.000 euro handiagoa izango da

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA
Elgetako udalbatzak 2014. urterako 1.651.125,61 euroko aurrekontua onartu zuen abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran. Aralar-Independenteak eta EAJko ordezkarien aldeko botoekin egin zuen aurrera aurrekontuak. EH Bilduko hiru ordezkariak abstenitu egin ziren.

"2014ari ere aurre egingo diogu udaletxetik", adierazi zuen Oxel Erostarbe alkateak. Azaldu zuen Udalak zerbitzu eta dirulaguntza guztiak mantenduko dituela, kontratazio zuzenak egiten jarraituko duela, eta inbertsioak aurrera eramaten jarraituko duela. Foru Fondoaren handitzeak lagunduko duela esan zuen Erostarbek, baina argi utzi zuen Udalak bidelagunak beharko dituela hainbat inbertsio egiteko, izan ere, 2014ko aurrekontuak ez du mailegurik aurreikusten. "Sinistuta gaude herritarren beharrei erantzuten dien aurrekontua dela", esan zuen. "Herritarrek egindako ekarpen ia guztiak jaso ditugu".

**Lehentasuna mantentze-lanek**
Inbertsioen atalean 202.582 euroko diru-lerroa jasotzen du aurrekontuak. Erostarbek esan zuen mantentze-lanek izango dutela lehentasuna: eskolan, argiteria berritzen, hilerriko horma, herriko espaloiak eta hesiturak... Garrantzia izango dute baita ere memoria historikoaren inguruko proiektuak, usoak kentzeko neurriek eta komertzioa sustatzeko ekimenek. "Gainerakoan, udalekuak luzeagoak izango dira 2014an, batzorde gehienetan handitu egin dugu diru-lerroa, eta euskaraz ikasi nahi dutenendako dirulaguntza mantendu egingo dugu".

### INBERTSIOAK

| EGITASMOA | KOPURUA |
|---|---|
| Ibilbide tematikoa | 25.500 |
| Lanak eskolan | 24.000 |
| Argiteria berritzea | 20.000 |
| Irisgarritasun lanak | 20.000 |
| Baserritarren batzordea | 19.680 |
| Hilerriko horma | 18.000 |
| Autoen abiadura murriztea | 15.000 |
| Espaloiak eta hesiturak | 9.468 |
| Konpost komunitarioa | 9.000 |
| Lursaila Asentzion | 7.500 |
| Komertzioak | 7.000 |
| Lursaila Domingo Iturben | 6.000 |
| J. Gastesi artxiboa | 3.500 |
| Usoak kentzeko neurriak | 3.000 |
| Bizikleta gunea | 3.000 |
| Gimnasioko lanak | 3.000 |
| Brigadakoen lan tresnak | 2.100 |
| Kaleko altzariak | 2.000 |
| Udal artxiboa | 1.500 |
| Fotokopiagailua | 1.134,36 |
| Uztaileko ur putzuak | 600 |
| Bizikleta aparkalekua | 600 |
| Liburutegiko apal berriak | 500 |
| Telebista gaztelekurako | 500 |

ITURRIA: ELGETAKO UDALA

### GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOA

**JANIRE LAZKANO**
Elgetako EH Bildu

**"Abstenitu egin gara; ez dugu gure sentitzen"**

"Ez zaigu iruditzen kontra egiteko moduko aurrekontua, baina ez dugu gure sentitzen. Ez dugu ulertzen udako monitoreen soldata 5. mailan mantentzea, zalantzak ditugu Turismo teknikariaren faltak eragingo dituen hutsuneekin, eta komenigarri ikusten genuen diru-lerro bat zabaltzea Espaloiaren gertuko etorkizunerako. Eta herritarrek aurrekontua erabakitzeko eskubidea eduki beharko lukete. Irizpide argi barik gelditu dira ekarpen horiek".

**PATXI BASAURI**
Elgetako EAJ

**"Konforme gaude aurkeztu den aurrekontuarekin"**

"Beti nahi izaten dugu gehiago, baina ikusita urtea zela joan den konforme gaude aurrekontu honekin. Bi batzorde ditugu guk: Baserritarren batzordea eta Turismo batzordea. Aurrekontua erabakitzeko batzarretan parte hartu dugu, eta konforme gaude bi batzorde horietarako egin diren aurreikuspenekin. Orokorrean ere konforme gaude 2014rako aurkeztu den aurrekontuarekin. Horregatik, aldeko botoa eman dugu".


Tanta erraldoia, abenduaren 29an, herriko plazan. | GOIENA

# Tantaz Tanta dinamikari babesa emateko ekimena

**L.Z.** | ELGETA
Herritar talde batek tanta erraldoia irudikatu zuen abenduaren 29an herriko plazan. Tantaz Tanta dinamikarekin bat egiteaz gain, bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egin zuten: "Urtarrilaren 11n preso politikoen alde egingo den itsasora herritarrak mobilizatzeko", adierazi dute.

Autobusa antolatu dute bihar Bilbora joateko. 16:00etan irtengo da Elgetatik.

**Mozioa aho batez**
Elgetako talde politikoek aho batez onartu dute gaiarekin lotutako mozio bat. Eskatzen da sakabanaketa politikaren eta Sevilla II. euskal presoek pairatzen dituzten muturreko bizi-baldintzen amaiera, eta baita oinarrizko giza-eskubideen errespetua ere.

Mozio horren bidez Udalak giza eskubideen eta bakearen defentsan antolatzen diren dinamiketan parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak.

## Martxan da futbito lehiaketa; hiru partidu daude aste bukaeran

Gaur, barikua, jokatuko da txapelketako lehen norgehiagoka. 20:30ean aurrez aurre izango dira La Kokotxa eta Txapela taldeak. Domekan, berriz, 10:30ean, Jaitxo eta Astuan Villa ariko dira, eta 11:30ean Nahaste Borraste eta Intxortas Crew. Hamar taldek eman dute izena.

## Liburutegiko logoa aukeratuko dute elgetarrek egunotan

Lehiaketara aurkeztutako 29 logoen artean gogokoena aukeratuko dute erabiltzaileek hilaren 17ra bitartean. Liburutegian eman daiteke botoa. Marrazki lehiaketako irabazleak, berriz, Leire Egizabal (5 urte), Izar Han Xue Irazabal (11 urte) eta Ane Ugarteburu (15 urte) dira.

# Pilotan egin dute elgetarrek Gabonetan

Nagusien txapelketa Urtezahar egunean erabaki zen, eta gazteetan, Odei Zenitagoiak eta Andoni Elortzak jantzi zuten txapela. Nagusietan, berriz, Alberto Telleriak eta Angel Ibarluzeak. Txapela bana jaso zuten, baita ere, hamar urteotan antolatzaile lanetan ibili diren Jesus Belamendiak eta Fernando Zenitagoiak. Txikiek ere egin dute pilotan. Txapeldunak, eskuz, Janitz Isasi, Jokin Zeziaga, Unax Isasi eta Anje Loiti izan dira. Palarekin, berriz, Asier Alkorta, Pablo Manso eta Hodei Valdivia.






L.Z.

## OHARRAK

**IPUINEN ORDUA**
Ipuinak kontatzeko boluntario taldea osatzeko bilera gaur, 17:30ean, liburutegian.

**HERRIXA DANTZAN**
Domekan, 19:00etan, saio irekia Espaloian Aiko taldeko Alvaro Gartziarekin.

**KANTSATZEKE TALDEA**
Bazkide zein federatu txartelak ateratzeko kultura etxeko bulegoa zabalik urtarrileko eguaztenetan, 19:00etan.

**ZENBAKI SARITUAK**
*Ontziratu zaitez* kanpainaren zenbaki sarituak: Goikoetxe harategian, 824; Amagoia arrandegian, 1.247; eta Ugari dendan 131.



Amaia Txintxurreta Kantariko aurkezlea

4. edizioa

# Kantari

# Arrasateko saioa!



**Arrasateko** eta **Aramaioko** partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!



ENTSEGUAK

**ARRASATEN**
**Urtarrilaren 11n**
Harresi aretoan.



IKUSKIZUNA

**ARRASATEN**
**Urtarrilaren 18an**
Amaia antzokian.

BABESLEA:
LABORAL kutxa
SUPER BAT KONTUA

***Etorri zuen lagunak animatzera.***
***DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!***

**Informazio gehiago:** 943 25 05 05
http://blogak.goiena.net/kantari/

goiena

# Gabonetan zehar kirolez busti da Debagoiena

## Saskibaloian, xakean, pilotan eta futbolean ibili dira, besteak beste

Z.V.D.M. | ARRASATE

Makina bat kirol hitzordu egon da Gabonetan gure ibarrean. Arrasateko Ointxe! taldearen Gabonetako txapelketan, esaterako, Arrasaten 1968an jokatutako lehen saskibaloi partidua ekarri zuten gogora lagunarteko partidu batekin. Eta Bergaran ere sartu dute Gabonetan baloia saskian: batetik, hiruko txapelketa jokatu zen; eta bestetik, infantil mailako Bolintxo txapelketa egin zuten.

XIII. Arrasate Hiria nazioarteko xake txapelketa ere jokatu zen abendu amaieran eta maila bikaina egon zen. Azkenean, 5,5 punturekin Alejandro Franco madrildarrak irabazi zuen; Debagoieneko ordezkarien artean, Arrasate-Arlutz taldeko Aitor Alcaide izan zen onena.

Eta errugbiari dagokionez, Gipuzkoako 18 urte azpiko selekzioak Mojategiraino bidaiatu zuen, eta, haize bolada gogorrei aurre eginez, bertan entrenatu ziren.

Pilotan ere jokatu dute hainbat herritan; besteak beste, Bergarako eta Oñatiko Gabonetako txapelketak egin zituzten. Eskoriatzan, ostera, Joseba Iñurrategik kirol horregatik eginiko lana aitortu eta Udal Pilotalekuari haren izena ipini zioten.

Eta fubolak ere izan du bere tokia. Emakumeen futbol txapelketa antolatu zuen Arizmendik abenduan eta finala bi talde handiren artekoa izan zen: Realak Athletic hartu zuen menpean. Txapelketa berean, gainera, Anaitasuna, Aloña Mendi eta Aurrera izan ziren irabazleak infantil, kadete eta alebinetan, hurrenez hurren. Bestalde, Agorrosinen jokatu zen urteko lehenengo derbia eta banako emaitza erdietsi zuten Bergarak eta Antzuolak.

Urtea ongi amaitzeko korrika egiten dute batzuek, eta Oñatiko San Silbestrea eta Eskoriatzako Silbestrada ere izan ziren.

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.




03





06


09


10


11

**01 REALA TXAPELDUN** Arizmendik antolatzen duen Gabonetako Emakumezkoen Futbol Torneoan Realak Athletici 3-1 irabazi zion finalean.

**02 350 NESKA FUTBOLEAN** Kiroltasuna eta heldutasuna erakutsi zuten emakumeen futbol txapelketan parte hartu zuten 22 taldeek.

**03 286 KORRIKALARI** San Silbestre lasterketan Varela eta Ramos izan ziren azkarrenak Oñatin.

**04 IÑURRATEGIREN OMENEZ** Joseba Iñurrategi eskoriatzarra omendu zuten urtetan pilota munduan eginiko lanagatik. Udal Pilotalekuari haren izena ipini zioten.

**05 PILOTAN BIKAIN** Partidu politak Oñatiko Gabon Kopako finalean; giro ederra egon zen.

**06 TXAPELKETA JENDETSUA** Ointxe! saskibaloi taldearen Gabonetako torneoan 200 gaztek hartu zuten parte.

**07 XAKE LEHIA** XIII. Arrasate Hiria nazioarteko xake txapelketan Alejandro Franco gailendu zen.


01


02


04


05


07


08


12


13

**08 GAZTEEN HIRUKOA** Ederto igaro zuten 8 eta 13 urte arteko neska-mutilek Bergaran abenduan gazteentzako antolatutako hiruko saskibaloi txapelketan.

**09 ERRUGBILARIEN TXANDA** Urtarrilaren 4an 18 urtetik beherako Gipuzkoako errugbi selekzioko jokalariak Mojategin izan ziren entrenatzen.

**10 SILBESTRADA** Silbestrada ohitura bilakatu da Eskoriatzan eta Endika Donnay izan zen azkarrena gizonezkoetan eta Rakel Alonso, ostera, emakumeetan.

**11 HARROBIA SENDO** Pilotako Gabon sariko finalak jokatu zituzten abenduaren 30ean Bergaran eta harrobia indartsu dagoela erakutsi zuten.

**12 BERDINKETAZ GOZATZEN** Zale ugarik jarraitu zuten Bergararen eta Antzuolaren arteko derbia. Banako berdinketaz amaitu zen Agorrosingo norgehiagoka.

**13 16 TALDE SASKIBALOIAN** Bergarako infantil mailako IV. Bolintxo sarian Iraurgi izan zen txapelduna nesketan eta mutiletan, berriz, Easok irabazi zuen.

MENDI BIZIKLETA

# Markel Uriartek Udalatx bizikletan jaitsita bete du urteko lehen erronka

XABIER URZELAI | ARRASATE

Udalatxetik itzulia eginda hasi du Markel Uriarte aretxabaletarrak 2014a. Orbeako riderrak joan den martitzenean, hilaren 7an, jaitsi zuen Udalatx (1.120 m), Rallon bizikletaren gainean: "Ez dut giharretako minik, ohituta gaude halakoetara", dio, barrez. "Gogoa nuen bizikleta halako toki tekniko batean probatzeko, eta ederto ibili naiz".

Udalatik abiatuta, tarte batzuk bizikleta gainean igo zituen, baina ez zuen izan bizikleta bizkarrera botatzea beste erremediorik: "Gorantz inpresioa eman zidan, zalantzak nituen bizikletan jaisteko kapaz izango nintzen. Bideak baditu hiruzpalau tarte oso arriskutsu, eta mendiko bizikleta batekin jaistea ezinezkoa da. Trialeko bizikletaz nik uste dut posible dela, tarte batean ezik, baina mendikoaz, ez".

## %90 bizikleta gainean

Dena dela, jaitsieraren %90 bizikleta gainean egin zuen aretxabaletarrak: "Poliki egin beharreko jaitsiera da, teknikoa, eta siku dagoela jaitsi behar da, derrigor. Bustita egongo balitz ezinezkoa izango litzateke, trakzioa behar delako derrigor, bizikletak aldapa behera ihes ez egiteko. Gainera, haitz askoko lekua da, eta ez da komeni behar dena baino gehiago arriskatzea".

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.


Markel Uriarte, Udalatx jaisten, Arrasate aurrean duela. | BEÑAT BURGI

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKU. BIGARREN MAILA**
Añorga-Mondra
Domeka. 12:30. Rezola.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Deportivo Alaves
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aretxabaleta-Zarautz
Domeka. 16:30. Ibarra.
Beti Gazte-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Lesaka.
Antzuola-Tolosa
Zapatua. 16:00. Estala.
Aurrera-Bergara
Zapatua. 17:00. Ondarroa.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zumaiako-Mondra
Zapatua. 16:00. Aita Mari.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Urola-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Argixao.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza (atsedena).

**LEHENENGO MAILA**
Aretxabaleta-Hirukide
Zapatua. 17:30. Ibarra.

**HIRUGARREN MAILA**
Aizarnazabal-Mondrate
Egubakoitza. 20:30. Zestoa.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Corrales-Ford Mugarri
Zapatua. 17:00. Corrales.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ereintza-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Errenteria.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Aloña Mendi-Aiala ZKE
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**SASKIBAOIA**

**KIMU MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA**
Egubakoitza:
18:00: Bizkaia-Gipuzkoa (nesk.)
20:00 Bizkaia-Gipuzkoa (mut.)
Zapatua
10:00 Araba-Bizkaia (mut.)
12:00 Araba-Bizkaia
Domeka
10:00 Gipuzkoa-Araba (nesk.)
12:00 Gipuzkoa-Araba (mut.)

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Deusto Loiola Indautxu
Zapatua. 18:00.Iturripe.

**AUTONOMIKOA**
Natra Oñati-Berrio Otxoa
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Uribealdea B-Kanpanzar ART:
Domeka. 12:00. Plentzia..

**PILOTA**

**BERGARAN**
Gaur. 19:30. Inafntilak.

**OÑATIN**
Gaur. 20:00. Inafntilak.

**IGERIKETA**

**ERRENDIMENDU ETA PARTE-HARTZEKO HIRUGARREN JARDUNALDIA**
Zapatua. 10:00. Bergara.


Agorrosinen lehiatuko dira bihar Gipuzkoako talde asko. | GOIENA

# Huhezinemaren zazpigarrena badator

Otsailaren 14ra bitartean aurkez daitezke hiru lehiaketatarako lanak

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultateak bultzatutako Huhezinema euskal film laburren jaialdiaren zazpigarren edizioa abian da; otsailaren 14an amaitzen da lanak aurkezteko epea. *Huhezinema.com* webgunean daude oinarriak irakurgai.

**Aurtengo berrikuntzak**

Hiru sail batuko ditu aurtengo edizioak: sail ofiziala, Mondragon Unibertsitateko ikasleen lehiaketa eta Basque Culinary Center lehiaketa berria.

Sail ofizialean parte hartzeko ezinbestekoa da Euskal Herrian jaio edo erroldatuta izatea eta edozein hizkuntzatan egindako eta gehienez 30 minutuko iraupena duten askotariko generotako lanak aurkez daitezke. Ikasleen sailean parte hartzeko, berriz, aurten Mondragon Unibertsitatean matrikulatuta egotea ezinbestekoa da eta hautaketan lehentasuna izango dute ikus -entzunezko ikasketen barruan egindako askotariko lanek.

Iaz emandako Culinary saria eman ondoren estreinatu dute aurten hirugarren saila, Basque Culinary Center lehiaketa. MUko Donostiako Gastronomia Fakultatearekin elkarlanean, MUko ikasleentzako lehiaketa da. Edozein euskarritan egindako eta gehienez hiru minutuko film laburrak onartuko dituzte; besteak beste, bideokamera, mugikor, argazki kamera digital eta GoPro-rekin filmatutakoak.

Aurtengo beste berrikuntza da sail ofizialaren barruan banatuko duten *Vertigo* saria; hau da, ekoizpenerako eta banaketarako diru laguntza publikorik jaso ez duen lan onenak 800 euroko saria eskuratuko du.

**Ikasleak antolatzaile nagusi**

Jaialdia martxoaren azkeneko astean egiteko asmoa badute ere, dagoeneko buru-belarri ari dira prestatzen: "Momentu politenean gaude orain, film laburrak jasotzeko eta ikusteko irrikitan. Lanik gogorrena sailen oinarriak berridatzi eta banatuko diren sarien diru kopurua lortzean datza", dio Iban del Campok, Huhezinema jaialdiko koordinatzaileak. Egiteko lan asko dagoela dio: "Finantzazioa sendotu, hitzaldietarako hizlariak lotu, epaimahaia erabaki, jaialdiaren irudia landu (kartelak, iragarkiak....).

Koordinatzailea Iban del Campo Huheziko irakaslea bada ere, eta antolakuntzan ikus-entzunezko saileko irakasle batzuek puntualki laguntzen badute ere, Kultur Ekitaldien Antolaketa ikasgaia aukeratu duten ikasleei dagokie pisu handiena: "Urtero ikasle talde berri batek antolatuta, urtero jaialdi berri bat dirudi. Ona da ideia berriak eta asmo desberdinak dituen jendearekin batera arraun egitea, horrek dakartzan arriskuak ahaztu gabe. Nolabait esateko, ikasgai horren azterketa jaialdia ondo ateratzea da eta ondo atera dadin bakoitzaren inplikazioa eta motibazioa ezinbestekoa da. Ikasleentzako ikasgai erabat praktikoa da; proiektu erreal bati aurre egin behar diote, horrek dakarren erantzukizunarekin. Hiru departamentutan banatzen ditugu ikasleak: komunikazioa, programazioa eta finantzazioa. Motibazio handia sortzen du jaialdiak ikasleengan, antolatzaile zein lehiaketetan parte hartuta.

**Finantzatzeko borrokatzen**

Gertuko erakunde eta enpresen babesarekin egin du aurrera Huhezinemak; Aretxabaletako Udalarekin, Goienarekin eta Ausolanekin dihardu hasieratik; baina badira modu batera edo bestera laguntzen duten beste 40 erakunde ere. "Jaialdiaren erantzuna oso ona izan da eta urtero hobetuz doa", azaldu du Del Campok.

ESANAK

**"Euskal zinemaren etorkizuna eta oraina film laburretan ikusten dudala esango nuke"**

IBAN DEL CAMPO | HUHEZINEMA

DATUA

**34**

LAN

Hori da momentuz jasotako kopurua. Aurten ere 100 lanetik gora jasotzea aurreikusten dute.



Iazko Huhezinema jaialdiko irabazleak sari banaketa ekitaldian. | GOIENA


Iñigo Alberdi, EOSeko zuzendari orokorra. | GOIENA

**Iñigo Alberdi** | Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari orokorra

# "EOSek euskal konpositoreekin konpromisoa du"

Miguel Gonzalez Bastida omentzeko Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Bergaran

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Miguel Gonzalez Bastidaren omenezko kontzertua egingo du urtarrilaren 17an, egubakoitzean, 20:00etan, Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrerak dagoeneko salgai daude, 10 eurotan, Bergarako Kultura Etxean eta Lazkano oinetako-dendan; emanaldiaren egunean leihatilan ere izango dira, 12 eurotan. Xehetasunak jasotzeko, Euskadiko Orkestrako zuzendari orokor Bergarako Iñigo Alberdirekin izan gara.

**Euskadiko Orkestrak proposatu du Bergaran kontzertua egitea. Zer dela eta?**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak askotariko ekitaldiak egiten ditu, horien artean dago *Orkestra Herrietan* deiturikoa. Egubakoitzeko emanaldia, Bergarako Udalarekin elkarlanean, EOSek Bergaran egingo duen bosgarrena izango da eta oraingoan, Miguel Gonzalez Bastida maisuaren heriotza hain gertu egonda, kontzertua haren omenez egitea pentsatu dugu.

**Ze harreman izan zuen Miguel Gonzalezek EOSekin?**

Harreman zuzenena 1980ko hamarkadan izan zen. Bergarako Orfeoiarekin batera, 1982an, Haendl-en *Messias* egin zuten San Pedro elizan. Enrique Jorda maisuak zuzendu zuen orkestra; Miguel bera zen garai hartan Orfeoiaren zuzendaria. 1985. urtean, berriz, *Alexander Nevsky* kontzertua egin genuen elkarrekin. 2008. urteko abenduan egin genuen Bergarako pilotalekuan hurrengoa eta, besteak beste, Miguelen *Lorea* jo genuen, Migel bera ere han zela.

**Horrelako omenaldi kontzertuak sarritan egiten dituzue?**

EOSek euskal konpositoreekin konpromiso eta harreman berezia dauka. Sarritan, urteurrenak direla eta, egile ezberdinen omenezko programak edo grabaketak egin izan ditugu; beraz, orkestraren adierazgarria dela esan genezake.

**Zelako kontzertua izango da errepertorioari dagokionez?**

Oso erakargarria. Gonzalez Bastidaren *Lorea* zortzikoarekin hasiko dugu kontzertua, Miguelen seme Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean. Gero, Brahms-en biolin eta biolontxelorako kontzertu bikoitza joko dugu, non bi bakarlariek beraien maila handia erakusteko aukera izango duten. Bigarren zatian, berriz, sinfonia guztien artean ezagunena den Beethoven-en Bosgarrena joko dugu. Beraz, hiru B batuko ditugu kontzertu horretan: Bastida, Brahms eta Beethoven.

**Zelako emanaldia, berriz, musikariei dagokienez?**

Orkestra 65 musikarik osatuko dute; horien artean, biolontxeloan, bakarlari moduan, Juan Ignacio Emme izango dugu. Zuzendari-concertinoa, berriz, Lorenz Nasturica izango da, EOSeko concertinoa (lehen biolina) da eta baita Munich-eko Filarmonikakoa ere. Miguel Gonzalezen *Lorean*, berriz, Alfredo Gonzalez Chirlaquek, haren semeak zuzenduko du.

**Nori gomendatuko zenioke?**

Kontzertu oso erakargarria eta oso gustagarria da; beraz, musikazaleei eta kontzertuetara sarritan joaten ez direnei ere gomendatuko nieke. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zerbitzu publikoa da eta guztiona; horregatik uste dut etxetik hain gertu entzuteko aukera hori ez dela galtzeko modukoa.

**"EOS etxetik hain gertu entzuteko aukera hori ez da galtzeko modukoa"**

# Bi euskal musikari beterano Oñatiko Gaztelekuko oholtza gainean

Keuk eta Garik aurreko urtean argitaratutako diskoak aurkeztuko dituzte

**IMANOL GALLEGO** | OÑATI

Nekez uler daitezke XX. mendeko euskal doinuak Keuren eta Gariren lanei erreparatu gabe. Bi sortzaile horiek sentipen gazi-gozoei kantatu arren, taula gainean ikuskizun polita eman ohi dute eta gaurko emanaldia (22:30) horren adibide izango da.



Gari bakarlariak bere azken diskoa aurkeztuko du. | ELKAR

### Euskal rockaren arima

Hertzainak taldearen garaietatik agertokietan dabilen kantaria izanik, maisua da agertokian bertan, eta publikoarekin, aldi oro, hari sendo bat sortzen du, harengandik hurbil senti dadin.

Abeslari bikain horrek espresibitate musikalaren gainean oinarritzen du bere ahots beroa, komunikazio samur bezain hunkigarria lortzeko eta une ahaztezinak sortzeko. Disko berrian, zuzeneko kontzeptu artistiko heldua erabili du publikoa berriro ere bere kantuen sakontasunaz liluratzeko.

### Musikari oparoa

Keu Agirretxea Ondarroako musikari beteranoa ezin da musikarik gabe bizi. Bere ibilbidean jorratutako guztia lerrotan jasotzea ia ezinezkoa da: Psychophony, Zain, Etsaiak, Fjord, Keu, Uek, Governors… Azken urteotan ere gelditu gabe dabil. Joan berri den azokan, etxean grabatu eta nahastutako *Behe presioaren erdigunean* lana aurkeztu zuen eta kontzertu hau bere aurkezpen biran sar daiteke.



Keu Agirretxea. | MAUKA

Bost euroren truke, gazteek hizki larriz euskal musika zer den ezagutuko dute eta nagusiek, aldiz, aztarna laga zuten bi musikariak ekarriko dituzte gogora.

# Elgetako Espaloiak bigarren monologo mostra antolatu du

**I.G.** | ELGETA

Solilokio, diskurtso, hizketaldi, bakarrizketa... antzerkiak metodo ugari erabili ditu barreak eragiteko, baina azken urteotan monologoa umorearen errege bihurtu da. Elgetako Espaloia kafe antzokian aurreko urteko monologo mostrak izandako arrakastaren ostean, aurten bigarren edizioa antolatu dute. Txabi Franquesa, El Monaguillo, David Guapo eta Luis Piedrahita monologista ezagunak igoko dira oholtza gainera.

### Garraztasuna eta umorea

Gaurkotasunak eta bizitzaren bitxikeriek ez ezik, musikak ere bere tokia izango du. Oso mostra zabala izango da. Guapo *showman*-aren ikuskizunaz gain, ikusleek gauza txikien kontraesanak ezagutuko dituzte. Urtarrilaren 18-19ko aste bukaeran David Guapo izango da gonbidatua, aste bat geroago Luis Piedrahita eta otsaileko lehen asteburuan Txabi Franquesa eta El Monaguillo.

Guapok hiru saio eskainiko ditu: zapatuan 20:00 eta 22:30ean arituko da eta domekan, 19:30ean. Gainontzeko gonbidatuek zapatuan 22:30ean eskainiko dute lehen saioa eta domekan 19:30ean bigarrena. Aurreneko asteburuko saioak 17 euro balioko du eta gainontzekoek, 16. Sarrerak aldez aurretik antzokiko barran eskuratzen dituztenek euro bateko deskontua izango dute.



Luis Piedrahita monologista ezaguna. | GONZALO JEREZ 'EL SELENITA'


## Debagoieneko GREMIOAK

### AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

### ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
ARRASATE
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

### ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

### LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

### LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

### MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
ARRASATE
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Aurreztu eta irabazi

# 1.000€*

erosketa txarteletan

# Gorbeiako Merkealdia rekin

*Sartu

centrocomercialgorbeia.com webgunean

1.000€-ren zozketan parte hartu ahalko duzu, 200€ banako 5 erosketa-txarteletan

2014ko urtarrilaren 7tik otsailaren 1era arte

Oinarri osoak: centrocomercialgorbeia.com webgunean

GORBEIA

www.centrocomercialgorbeia.com

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Laugarren solairua da. 72 metro koadro. Egongela, sukaldea, bi logela, komuna eta trastelekua. Guztiz berritua. Bizitzera sartzeko prest. Aukera ezinhobea. 99.999 euro. 618 44 38 44

**Bergara.** Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan ematen da. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. 170.000 euro, negoziagarri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 65 99 94

**Oñati.** Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 00 84 92

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuolan duplexa errentan.** Herri erdian kokatua. Duplex dotorea. Beheko solairuan sarrera-egongela-sukaldea, zabalik, logela bat eta bainugela guztiz jantzia. Atikoan, 50 metro koadroko logela eta egongela. 550 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 92 18 60

**Eskoriatza.** Duplexa (lau logelarekin) eta hiru logelako etxebizitza bat errentan ematen dira, oso merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645703663

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxea hartuko nuke errentan Arrasaten. Hiru logelekin eta igogailuarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 98 88 76

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 669 30 16 89

**Arrasaten.** Etxea hartuko nuke errentan. Prezio onean eta igogailuarekin. Deitu 617 98 88 76 telefonora

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Gehienez, 400 euro ordaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 36 17 62

**Oñati.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, gehienez bi logelakoa eta aukeran, erdigunean. Mila esker. Interesatuok deitu telefono honetara: 672 62 27 57

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Arrasaten logela hartuko nuke errantan. Alokairuaren kontratua beharrezkoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 664 13 67 44

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen, espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 69 31 56

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko San Josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. 628 85 42 06

**Bergara.** Logelak emango nituzke errentan Zubiaurre inguruan. Emakumeentzat nahiago. 637 18 07 23

**Oñati.** Logela alokatzen da plazatik gertu dagoen duplex berri batean (langileei, ikasleei..). Wifi konexioarekin. Deitu telefono honetara: 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen. 943 79 09 59 edo 687 04 49 90

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Uribe auzoan, unibertsitatea eta Garaia artean. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 83 06 83

### 204. ERRENTAN HARTU

**Autokarabanandako garajea.** Autokarabana sartzeko lekuren bat hartuko nuke Antzuola edo Bergara inguruan. 676 20 74 35

## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Aretxabaleta.** Lokala erosiko nuke. 40-90 metro koadro artekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Gazteentzako lokalak ematen dira errentan. Oso toki ona. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara. Deitu telefono honetara: 669 36 69 53

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** 15-16 urteko neskak lokal baten bila gabiltza, Arrasaten. Lokal baten berri badazue deitu zenbaki hauetara: 634 45 27 44 edo 671 44 31 90

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Bergaran, Arrasate edo Oñati.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko.Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Bergara.** Premiaz lana bilatzen dut. Edozein motatako lana egiteko prest. 606 24 79 09 edo 943 76 52 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Esperientziaduna eta tituluduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, baita garbiketa lanetarako ere. 680 77 06 46

**Debagoiena.** Erizain graduatuak lana aurkitu nahi du osasun arloan: ospitaleak, klinikak eta egoitzak. 628 30 00 28

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperitziaduna, etxeko lan edo zainketarako. Nahiz heldu edo haur. Gidabaimena daukat. 680 87 38 66

**Debagoiena.** 24 urteko neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Eritzaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia dauzkat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Asteburuetan orduka edo gauetan lan egingo nuke. Legezko paperak, gidabaimena eta autoa dauzkat. 632 83 32 68

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanetan, tabernan, sukaldean zein nagusiak eta umeak zaintzen lan egiteko. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaindu, garbiketak eta abar. Egunez,, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 673 78 08 99

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen zein edozelako garbitasun lanetan. Esperientzia daukat eta ordutegia adosteko gertu nago. Autoa daukat. 618 10 37 50

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. 602 69 31 56

**Debagoiena.** Esperientziadun mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu, egunez. Ospital zein egoitzatan ere lan egingo nuke orduka eta asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaindu eta sukaldeko laguntzaile lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 04 46 37 edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientzia handia dut pertsonen zaintzan. Sukaldatzen ere badakit. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: garbiketak, sukalde laguntzaile, gidari, eraikuntzan eta abar. Ez deitu sexu proposamenak egiteko, mesedez. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. 699 09 46 26

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo pasioan ateratzeko gertu. Deitu 695 73 87 95 telefonor zenbaki honetara.

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketak orduka egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: egun osoz, etxean bertan bizi izanda, edo bestela. Deitu 673 78 08 99 telefonora.

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, baita gauak ospitalean pasatzeko ere. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Edozein ordutan lan egiteko prest. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edota garbitasunean lan egingo nuke. Esperientzia dut geriatrian eta erizainlaguntzaile moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: furgoneta gidari, denetariko garbiketak, zerbitzari eta abar. Auto eta kamioiak gidatzeko baimena daukat eta baita autoa ere. 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: tabernatan, etxean eta abar. Neska arduratsua, langilea eta euskalerritarra. 943 53 28 45 edo 659 34 31 43

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume edo nagusiak zaintzen zein garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz eta baita orduka ere. 636 41 98 14

**Klinika laguntzaile.** 25 urteko esperientzadun klinikako laguntzaile naiz. Ospitalean jendea zaintzeko prest nago. 609 98 02 52

**Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest.** Gizarte hezkuntzan ikasketak dituen eta haurrekin esperientzia duen 28 urteko neska oñatiarra naiz. Arratsaldetan umeak zaintzeko prest. 637 05 63 35

**Neska euskalduna umeak zaintzeko gertu.** 24 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko edota hezkuntza errefortzua emateko prest. Pedagogian lizentziatua eta haurrekin esperientzia handia. 669 88 49 55.

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berrituta. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berrituta. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berrituta. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Neska euskalduna eta esperientziaduna, Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu. 655 72 41 22

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Peugeot 307 SW Pack 2.0 HDi 110 .** 2.003 urtekoa. 159.000 kilometro. Neguko gurpilak. Uhal eta filtroak aldatu berri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 43 80 66

### 602. EROSI

**Enduro motorra.** Bigarren eskuko Enduroko motorra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 76 34 40

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurra.** Setter ingeles arrazako txakur gazte bat daukat oparitzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 76 99 83

### 704. BESTELAKOAK

**Perikitoa galdu Aretxabaletan.** Aretxabaletako Iturrizar plaza inguruan perikito urdin bat galdu zen urtarrilaren 7an. Norbaitek ikusi edo hartu badu, dei dezala mesedez zenbaki honetara: 680 68 22 93 edo ainereca@gmail.com

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Conor WRC Road Ride errepideko bizikleta.** Aluminiozko kuadroa eta karbonozko horkilarekin. Shimano Ultegra piezak. Interesatuok deitu telefono honetara. 687 11 07 21

### 802. EROSI

**Elurretako erraketak.** erosiko nituzke. Salgai duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

**Ogia egiteko makina.** Soberan daukazun ogia egiteko makina hori saldu nahi baduzu deitu telefono honetara: 666 45 87 32

**Soinu txikia.** Trikitixa jotzeko bigarren eskuko soinua erosiko nuke. Salgai duenak dei dezala telefono zenbaki hauetara: 689 20 72 41 edo 943 76 07 09

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

**Moisesarentzako gurpilak.** Moises kapazo batendako gurpilak behar ditut. Emateko edo saltzeko badituzu, gustura hartuko nituzke. 688 61 73 43

**Poltsikoko egutegiak.** Poltsikoko egutegi txikiak hartuko nituzke. Edozein urte eta irudi-takoakizan daitezke. 617 17 15 88

### 806. GALDU

**Samsung S2.** Samsung S2 telefonoa galdu da Aretxabaletan. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskerrik asko. 639 99 33 34

**Eskularru eta lepokoa.** Eskularruak eta buffa galdu nituen Mekolalderako bidean abenduaren 17a inguruan. Aurkitu baditutzu, deitu mesedez zenbaki honetara: 943 76 52 39

## ASTEA GOIENAN


ELPAIS.COM

### 'Slow fashion' moda geldoa berbagai

Moda jasangarria diseinatzen du Tyti Thusbergek eta harekin izan gara birziklatutako materialaz egiten duen lanari buruz hitz egiten. *Slow fashion* delakoaren nondik norakoak jaso ahal izango ditugu haren hitzen bitartez, Goiena telebistan.

**'Erreportajea'**
Martitzena, 14:25


GOIENA

### Kimu mailako Euskadiko Txapelketa

Asteburuan jokatuko da Arrasaten, Iturripen, kimu mailako Euskadiko Txapelketa. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako selekzioak lehiatuko dira eta horren laburpena egingo dizuegu, besteak beste, asteleheneko *Harmailatik* kirol saioan.

**'Harmailatik'**
Astelehena, 20:57

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 10**

**12:00** Ikusi irratia
**12:48** Onein
**13:24** Bideo klipak
**13:54** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**14:24** Erreportajea
**14:39** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Bertso saioa
**16:40** Zorion Agurrak
**16:50** Berriak
**17:15** Kantari
**17:45** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**18:20** Nere herrie
**18:55** Zorion Agurrak
**19:04** Berriak
**19:24** Aniztasunean bizi
**19:51** Aizank!
**20:33** Berriak
**20:58** Organo zikloa
**22:28** Berriak
**22:58** Tobera herri-antzerkia
**01:09** Aho bizarrik gabe

**ZAPATUA, 11**

**10:00** Udakoak
**11:10** Kantari
**12:10** Ur eta lur
**12:44** Berriak
**12:59** Onein
**13:30** Bideo klipak
**14:00** Ikusi irratia
**14:48** Zorion Agurrak
**14:53** Onein
**15:28** Aho bizarrik gabe
**16:35** Bertso saioa
**18:05** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**18:35** Zorion Agurrak
**18:40** Kantari
**19:40** Berriak
**19:55** Tobera herri-antzerkia
**22:02** Aho bizarrik gabe
**23:09** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**23:39** Organo zikloa

**DOMEKA, 12**

**10:00** Aho bizarrik gabe
**11:07** Zorion Agurrak
**11:12** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**11:42** Onein
**12:17** Berriak
**12:32** Ikusmira
**13:12** Udakoak
**14:22** Aniztasunean bizi
**14:49** Zorion Agurrak
**15:16** Aho bizarrik gabe
**16:23** Organo zikloa
**17:53** Kantari
**18:53** Bertso saioa
**20:23** Bideo klipak
**20:44** Aniztasunean bizi
**21:11** Bideo klipak
**21:41** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**22:11** Berriak
**22:26** Bertso saioa
**23:56** Ikusmira

**ASTELEHENA, 13**

**12:00** Aho bizarrik gabe
**13:07** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**13:37** Onein
**14:06** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**14:36** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:20** Ur eta lur
**15:54** Onein
**16:23** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Bideo klipak
**17:48** Klaketa
**18:22** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**18:52** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Onein
**19:59** Ikuskizuna: Ilusio gaua
**20:29** Berriak
**20:54** Eguraldia
**20:57** Harmailatik
**22:42** Berriak
**23:07** Eguraldia
**23:10** Harmailatik
**23:55** Gurean gaur

**MARTITZENA, 14**

**12:00** Nere herrie
**12:35** Harmailatik
**13:20** Klaketa
**13:54** Zorion Agurrak
**14:25** Erreportajea
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:53** Onein
**16:24** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Klaketa
**17:37** Harmailatik
**18:22** Nere herrie
**18:57** Zorion Agurrak
**19:02** Berriak
**19:27** Eguraldia
**19:30** Zorion Agurrak
**19:35** Kantari
**20:05** Zorion Agurrak
**20:12** Erreportajea
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Bertso saioa
**22:28** Berriak
**22:53** Eguraldia
**22:56** Gurean gaur

**EGUAZTENA, 15**

**12:00** Harmailatik
**12:40** Onein
**13:10** Kantari
**13:35** Aho bizarrik gabe
**14:42** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Aizank!
**15:55** Harmailatik
**16:35** Berriak
**17:00** Eguraldia
**17:03** Harmailatik
**17:48** Ikusmira
**18:28** Aniztasunean bizi
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Bideo klipak
**19:48** Aizank!
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:57** Zurriolako butaka
**21:27** Organo zikloa
**22:57** Berriak
**23:22** Eguraldia
**23:52** Gurean gaur

**EGUENA, 16**

**12:00** Harmailatik
**12:45** Onein
**13:15** Ikusi irratia
**14:03** Zurriolako butaka
**14:33** Zorion Agurrak
**14:42** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Ikusmira
**15:50** Onein
**16:26** Zorion Agurrak
**16:31** Berriak
**16:56** Eguraldia
**16:59** Planik bai?
**17:19** Zurriolako butaka
**17:49** Nere herrie
**18:24** Aizank!
**19:06** Berriak
**19:31** Eguraldia
**19:34** Planik bai?
**19:54** Kantari
**20:22** Erreportajea
**20:37** Berriak
**21:02** Eguraldia
**21:05** Planik bai?
**21:25** Berriak
**21:50** Eguraldia
**21:53** Zurriolako butaka
**22:23** Gurean gaur
**22:53** Planik bai?

## ARRASATE IRRATIA

### 'Okatxu hegal egiten' liburua zozketatuko dugu

Datorren astean, haur eta gaztetxoei zuzendutako liburu bat zozketatuko dugu: *Okatxu hegal egiten*. Egubakoitzean egingo dugu zozketa eta parte hartzeko 943 25 05 05 telefonora deitu beharko duzue, edo, bestela, *irratia@goiena.com* helbidera idatzi. Zorte on!

### Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Astean 107.7ko uhinetan izan ditugun elkarrizketen gainbegiratua egingo dugu asteburuan. Besteak beste, entzun ahal izango duzue Kepa Aranburu oñatiarrari egindako elkarrizketa; izan ere, *Tindaya montaña sagrada* dokumentala egin nahian dabil, eta hori izango dugu hizpide.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 10** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Zapatua, 11** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 12** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 13** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 14** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 15** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 16** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 10** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Zapatua, 11** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Domeka, 12** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 13** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 14** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 15** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguena, 16** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 10** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 11** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 12** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 13** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 14** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 15** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 16** | GARATE | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EZKONTZA-OSPAKIZUNAK



### Arantxa eta Luis

Aretxabaletako Arantxa eta Luis 1964ko urtarrilaren 11n ezkondu ziren. "Zorionak, bihotz-bihotzez, aitona Luis eta amama Arantxa, zuen eztei egunaren 50. urteurren honetan, zuen familiaren partetik. Eskerrik asko eman diguzuen maitasunagatik, eta egun berezi hau ederto ospatu".



### Blanki eta Isidro

Blanki Gonzalez eta Isidro Urkia urtarrilaren 9an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak, bikote!

## HILDAKOAK

**M. Asuncion Nafarrate Mendizabal.** Arrasaten, abenduaren 19an. 91 urte.
**Ines Zangitu Eguren.** Bergaran, abenduaren 19an. 92 urte.
**Ana Hurtado Valor.** Arrasaten, abenduaren 19an. 65 urte.
**Esperantza Carabias Carabias.** Aretxabaletan, abenduaren 21ean. 97 urte.
**Catalina Gabilondo Fernandez de Arroiabe.** Aretxabaletan, abenduaren 21ean. 98 urte.
**Anastasio Uribe Mendizabal.** Aramaion, abenduaren 21ean. 81 urte.
**Luciano Gutierrez Uribarri.** Oñatin, abenduaren 21ean. 84 urte.
**Martin Zabaleta Ibarra.** Bergaran, abenduaren 22an. 96 urte.
**Maximo Rubio Bartolome.** Bergaran, abenduaren 23an. 84 urte.
**Elias Gomez Arevalo.** Eskoriatzan, abenduaren 23an. 64 urte.
**M. Dolores Unzurrunzaga Varas.** Arrasaten, abenduaren 24an. 89 urte.
**Juana Ilarduia Arza.** Bergaran, abenduaren 24an. 82 urte.
**Victoriana Urzelai Azkargorta.** Oñatin, abenduaren 24an. 98 urte.
**Jesus Basterra Rodriguez.** Arrasaten, abenduaren 25ean. 92 urte.
**Esmeralda Arriola Azkarate.** Bergaran, abenduaren 27an. 84 urte.
**Gabriela Saenz de Biteri Glez de Aurikana.** Arrasaten, abenduaren 27an. 72 urte.
**Jose Manuel Junco Lazkanoiturburu.** Oñatin, abenduaren 29an. 63 urte.
**Migel Ibarguren Campos.** Arrasaten, abenduaren 29an. 53 urte.
**Manuela Agirre Larrea.** Oñatin, abenduaren 31n. 83 urte.
**Gregorio Kortabarria Agirre.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 88 urte.
**Angel Tricio Rodriguez.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 92 urte.
**Feliciana Arenaza Lasagabaster.** Aretxabaletan, urtarrilaren 2an. 98 urte.
**Victoria Larrion Martinez.** Bergaran, urtarrilaren 2an. 92 urte.
**Maximo De Benito Pura.** Bergaran, urtarrilaren 2an. 82 urte.
**Jabier Albisua Arozena.** Bergaran, urtarrilaren 2an. 94 urte.
**Julian Cobos Zubia.** Aretxabaletan, urtarrilaren 2an. 66 urte.
**Andoni Axpe Madinabeitia.** Arrasaten, urtarrilaren 3an. 76 urte.
**Jose Castañeda Cuevas.** Oñatin, urtarrilaren 3an. 96 urte.
**Adoracion Perez Baños.** Oñatin, urtarrilaren 3an. 86 urte.
**Justina Arregi Lazpiur.** Bergaran, urtarrilaren 3an. 97 urte.
**Maxima Markuleta Azurmendi.** Oñatin, urtarrilaren 5ean. 95 urte.
**Paulina Fernandez Avila.** Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 90 urte.
**Jose M. Makazaga Agirregabiria.** Aretxabaletan, urtarrilaren 6an. 97 urte.
**Maria Txintxurreta Goenaga.**Oñatin, urtarrilaren 6an. 96 urte.
**Francisco Lazkano Barrena.** Arrasaten, urtarrilaren 6an. 95 urte.
**Jesusa Bengoa Sagasta.** Arrasaten, urtarrilaren 7an. 87 urte.

ESKER ONA

## Jose Mari Makazaga Agirregabiria



Carmen Arriolaren alarguna

Arrasaten hil zen 2014ko urtarrilaren 6an, 97 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Aretxabaletan, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

ESKER ONA

## Catalina Gabilondo Fernandez de Arroiabe



Jose Mari Elkororen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2013ko abenduaren 21ean, 98 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Bizitza hontan eman diguzu*
*eman beharreko dana*
*oraindik be leihotik begira*
*ikusten zaitugu amama.*

**Aretxabaletan, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

ESKER ONA

## Julian Cobos Zubia



Aretxabaletan hil zen orain dela gutxi, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Beti hain alai eta irribarretsu,*
*gogoratuko zaitugu berdintsu.*

**Errasti-Arana familia.**
**Aretxabaletan, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

ESKER ONA

## Anastasio Uribe Mendizabal

Barajuenen hil zen 2013ko abenduaren 21ean, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Bihotzean betiko*
*nahi zaitugu lotu*
*zure maitasuna*
*dugu aipatu*

*laguntzeko prest*
*zintugun ezagutu*
*umore on horrekin*
*denori txunditu.*

**Etxekoak.**
**Aramaion (Barajuen), 2014ko urtarrilaren 10ean.**

ESKER ONA

## Julia Inza Leturiaga



Simon Alcelayren alarguna

2013ko abenduaren 18an hil zen, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Oñatin, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

ESKER ONA

## Andoni Axpe Madinabeitia



Gasteizen hil zen 2014ko urtarrilaren 3an, 76 urte zituela.

Hileta elizkizunera bertaratutakoei eta samin agurra bidali zenigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Beti gure bihotzean izango zara.*
*Aurrera bolie!*

**Arrasaten, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

OROIGARRIA

## M. Josefa Alvarez Osorio

Arizmendi Ikastolako gurasoa

Aretxabaletan hil zen, 59 urte zituela.

*Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.*

arizmendi ikastola

**Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.**
**Leintz bailaran, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

OROIGARRIA

## Andoni Axpe Madinabeitia



Gasteizen hil zen 2014ko urtarrilaren 3an, 76 urte zituela.

*Musakolagatik lan asko egin duen adiskidea joan zaigu.*
*Mila esker, Andoni. Beti gure bihotzetan!*

**Musakolako Alkatetza eta Jai Batzordea.**
**Arrasaten (Musakola), 2014ko urtarrilaren 10ean.**

OROIGARRIA

## Andoni Axpe Madinabeitia



Gasteizen hil zen 2014ko urtarrilaren 3an, 76 urte zituela.

*Musakola auzoan*
*oso ezaguna*
*Santa Teresan berriz*
*aitteitte kuttuna,*

*gaztainak erretzean*
*alaitu eguna*
*Andoni, zu guretzat,*
*jator ta laguna.*

**Idoia Axperen Santa Teresako lankideak.**
**Arrasaten, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

URTEURRENA

## Miguel De Pedro Arrieta



2013ko urtarrilaren 23an hil zen, 70 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

URTEURRENA

## Joaquina Cestau Polo



Jacinto Markiegi Laskurainen alarguna

2013ko urtarrilaren 17an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

URTEURRENA

## Antonio Mellado Conti



Elgoibarren hil zen 2013ko urtarrilaren 21ean, 52 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Utzi gintuzun baina sekula utzi gabe.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2014ko urtarrilaren 10ean.**



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**


**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*


URTEURRENA

## Jose Antonio Aranguren Beitia



Apotzagan hil zen 2013ko urtarrilaren 9an, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 10:30ean, Apotzagako Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Bada urtebete*
*ez zaudela gure artean,*
*baina beti eramango zaitugu*
*gure bihotzean.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Eskoriatzan, 2014ko urtarrilaren 10ean.**

**BERGARA Juan Mari Beltran hirukotearen kontzertua**
Emanaldi horretan, kantu, doinu, dantza eta soinu-tresnen hotsen bitartez Euskal Herriko musikaren hainbat alderdi erakutsiko ditu Juan Mari Beltranek. Familia osoarendako kontzertu didaktikoa izango da. Beltranekin batera egongo dira Ander Barrenetxea eta Andoitz Antzizar.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.


JUAN MARI BELTRAN


ADOS T EATROA

**BERGARA 'Emaztegaiaren semea' antzezlana**
Ados Teatroa taldeak *El hijo de la novia* pelikularen egokitzapena egin du. Oholtza gainean egongo dira Asier Hormaza, Sara Cozar, Kandido Uranga, Iñake Irastorza eta Mikel Laskurain. Emanaldi bikoitza egingo dute.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan eta 22:30ean.

# NON-ZER

URTARRILA 10
URTARRILA 16

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI Gari eta Keu Agirretxea**
Garik *Ez da amaiera* bere azken lana aurkeztuko du gaztelekuan. Zazpigarren lana du, bakarka. Haren aurretik Keu Agirretxea ondarrutarrak abestuko du. Sarrera bost euro da.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

**BERGARA Tapoi Fest III**
Bueltan da asteburuan Tapoi Fest hardcore-punk festaren hirugarren aldia. Egubakoitzean, Gaitze, Bar Remigio, Trigger Travis eta Raiser taldeek egingo dute zuzenekoa. Sarrera lau euro da.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Tapoi Fest-en bigarrena**
Hardcore-punk jaialdiaren bigarren egunean, Teodora Barbarie, Fly Shit, Drop eta MKT taldeak igoko dira oholtzara. Sarrera lau euro da.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

**ARRASATE Niña Coyote eta Chico Tornado**
Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, kontzertua egingo du Donostiako rock bikoteak. "Intentsitea eta indarra" dituzte etxeko marka.
Urtarrilak 16, gaztetxean, 22:00etan.

## ANTZERKIA

**ARRASATE 'Kibubu' antzezlana**
Marie de Jongh taldeak haurrendako "errespetuaren eta askatasunaren inguruko ikuskizuna" eskainiko du. Xebasek eta Cocok bikote artistikoa osatzen dute, biak ala biak pailazoak dira. Ikuskizun berria prestatzen dihardutela, Xebasek benetako gorila bat erosiko du. Sarrerak *www. arrasate-mondragon.org* helbidean.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00eta.

## ERAKUSKETA

**BERGARA Bustinzale elkartekoen erakusketa**
Bergarako Bustinzale zeramika elkarteko kideek zeramika lanak ipini dituzte ikusgai.
Hilaren 12ra arte, Aroztegin.

**ARETXABALETA 'Jar gaitezen' egitasmoko ekarpenak**
*Jar gaitezen* egitasmoan jasotako ekarpenak eta proposamenak herritarren eskura ipini dituzte. Era berean, *Aretxabaleta argazkitan* lehiaketara aurkeztutako lan batzuk ikus daitezke erakusketa gelan. Herritarrek euren gustukoena bozkatzeko aukera izango dute.
Urtarril bukaera arte, Arkupen, arratsaldez.

## AURKEZPENA

**BERGARA Liburu aurkezpena**
*Euskal Herriko musika argazkilariak* delako liburuaren aurkezpena egingo dute, Tapoi Fest III. jaialdiaren barruan.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

## GAZTEAK

**OÑATI Marrazketa tailerra**
Andoni Jimenezen eskutik marrazketa lantzeko aukera izango dute herriko gazteek.
Bihar, zapatua, gaztelekuko kuboan, 17:00etan.

## DEIA

**ANTZUOLA Ikurrinari omenaldia**
"Espainiako bandera ezartzea agindu digutela salatu eta ikurrinari omenaldia egiteko" ekitaldia antolatu du Udalak. Herritar guztiak gonbidatu dituzte.
Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:30ean.

**ELGETA 'Ipuinen ordua' taldea sortzeko batzarra**
Haurrei ipuinak kontatzeko boluntario taldea osatzeko bilera egingo dute.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:30ean.

**ANTZUOLA Mus txapelketa**
Herriko mus txapelketa jokatuko dute gaurtik hasita. Hain justu ere, hilaren 10ean (Mox tabernan), 12an (Eperra elkartean), 17an (Gailur tabernan) eta 18an (Ongi Etorri jatetxean). Finalak, hilaren 26an. Bikoteak herritarrek bakarrik, edo herritarrek eta haren senide den kanpotar batek, edo herritar batek eta Antzuolan lan egiten duen kanpotar batek osa ditzakete. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.
Gaur, egubakoitza, Mox tabernan, 22:15ean.

**ARRASATE Kantariko entseguak**
Kantari karaoke ikuskizunean parte hartuko duten Aramaioko eta Arrasateko neska-mutikoek entseguak egingo dituzte. Egokitu zaien kantua nola interpretatu behar duten ikasiko dute Amaia Txintxurretarekin. Kantariko saioen grabazioak hilaren 18an egingo dituzte.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 13:00etan.

**ARETXABALETA Euskal Herriko mus txapelketa**
Martxoaren 8an Heletan (Nafarroa Behera) jokatuko den Euskal Herriko finalaren aurretik tokian tokiko norgehiagokak egingo dituzte. Hori horrela, Aretxabaletako kanporaketak jokatuko dituzte. Finalaren aurretik, herrialdeetako kanporaketak jokatuko dituzte bikote onenek.
Etzi, domeka, Urbaltz elkartean, 16:00etan.

**ARETXABALETA 'Dantza familian'**
Jaiki elkarteak *Dantza familian* delako saioa egigo du, 16:30etik 17:30era. 2-6 urte arteko haurrendako eta haien familiendako saioa da. Hiru euro pertsonako.
Etzi, domeka, Kuku Miku elkartearen lokalean 16:30ean.

**OÑATI Irrien Lagunen emanaldia**
Irrien Lagunak klubeko pailazoek *Marikalanbre eta Martinbertso arrantzara doaz* delako abentura partekatuko dute umeekin. Dantza eta alaitasuna dira arrantzatuko dituztenak. Ume guztiendako 50 minutuko ikuskizun "dibertigarri bezain hezitzailea" taularatuko dute.
Etzi, domeka, gaztetxean, 17:30ean.



IRRIEN LAGUNAK KLUBA

**OÑATI Aratusteetarako entseguak**
Oñatz taldeak hasi ditu 2014ko Aratusteak prestatzeko entseguak. Eguaztenetan (20:00) eta zapatuetan (12:00) elkartzen dira Errekaldeko lokalean. Herritarrak Aratuste-zapatuan, martxoaren 1ean, irtengo dira kalera.
Eguaztenetan eta zapatuetan, Oñatzen lokalean, 20:00etan eta 12:00etan.

**ARRASATE Besaideren batzar orokorra**
Mendi taldeak urteko batzar orokorra egingo du. Lehenengo deialdia 18:45erako egin dute eta bigarrena, 19:00etarako.
Urtarrilak 17, Kulturaten, 19:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**ARETXABALETA 'Aulki hutsak' dokumentala**
Iñaki Peña medikuak egindako dokumentala da. Heriotzari buruzkoa. "Gaur egun gure gizartean tabu bihurtu den gaia dakar dokumentalak, *Maite dugun hori hiltzean zer?* galderari erantzuna topatu nahian".
Urtarrilak 14, Zaraia aretoan, 19:30ean.

## HITZALDIA

**BERGARA Mahai-ingurua**
*1813, Historia edo mitoa* delako mahai-ingurua egingo dute. *Bake ituna* proiektuarekin batera, *1808 -1813: Inbasio napoleonikoak* delako erakusketarekin lotura duena. Xabier Kerexeta, Maggie Bullen eta Mertxe Trancheren ikuspuntu feministatik abiatuta, gure historia eta tradizioak aztertuko dituzte.
Urtarrilak 15, Zabalotegin, 19:00etan.

## LEHIAKETAK

**OÑATI Gabonetako argazki lehiaketa**
Gaztelekuak 8. aldiz deitu du argazki lehiaketa. Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake gehienez. Bi sari banatuko dituzte –biak ala biak, kultura produktuak erosteko– 50 eta 40 euro. Argazkiak aurkezteko azken eguna hilaren 17a da.
Urtarrilaren 17ra arte, gaztelekuan.



ESPALOIA

**ELGETA 'Herrixa dantzan' ekimena, Alvaro Gartziarekin**

Aiko taldeko gitarra-jotzaile Alvaro Gartziak *Soken dantza* CD berriaren aurkezpen-dantzaldia egingo du: balsa, tangoa, habanera, polka, porrusaldak, jauziak... Dantzarako edo besterik gabe entzuteko emanaldi "gustagarria" izango da.

Etzi, domeka, Espaloia kafe antzokian, 19:00etan.

**OÑATI Bertso-paper lehiaketa**

Bosgarren aldiz deitu du bertsolaritza lehiaketa gaztelekuak. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko eta Batxilergoko ikasleek parte har dezakete. Adinaren arabera hainbat neurritako bertsoak idatzi beharko dituzte. Lanak aurkezteko epea hilaren 17an bukatzen da. Sari banaketa ekitaldia hilaren 24an egingo dute gaztelekuan eta Alaia Martin bertsolariak parte hartuko du.

Urtarrilaren 17ra arte, gaztelekuan.

**ARRASATE 'Huhezinema', euskal film laburren jaialdia**

Martxoan egingo dute jaialdia, baina dagoeneko egin dute lanak aurkezteko deialdia. Bi berrikuntza ditu: BCC lehiaketa (Basque Culinary Center) gastronomiaren presentzia handitzeko bi saririkin; eta Vertigo saria, sail ofizialaren barruan, ekoizpenerako edo banaketarako diru laguntza publikorik jaso ez duen lan onena sarituko dute. Informazio osoa *www.huhezinema.com*. Lanak aurkezteko epea, otsailaren 14a.

Otsailaren 14ra arte, Huhezin.

**ARRASATE Euskarazko palindromo lehiaketa**

AEDk laugarrengoz deitu du euskarazko palindromo lehiaketa. Hitz edo espresio kapikuak dira aurkeztu beharrekoak: aurretik atzera nahiz atzetik aurrera berdin irakurtzen diren hitzak edo esaldiak. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 15a da. Informazio gehiago *www.aedelkartea.com* atarian.

Otsailaren 15era arte, AEDren lokalean edo webgunean.

**DEBAGOIENA Bideo-CV lehiaketa deitu du Goiaz! Foroak**

*NiNeu-YoMism@* delako bideocurriculum lehiaketa deitu du Goiaz! Foroak, Debagoieneko Lanbide Heziketako Azokaren programaren barruan. 17 urtetik gorako edozeinek parte har dezake eta hiru kategoria izango dira: ikasleak, langabeak eta langileak. Norberak sorkuntza audiobisual inpaktante bat aurkeztu beharko du, gehienez ere 2 minutukoa. Edukia hau izango da: norberaren burua aurkeztea, lana bilatzera bideratuta. Egilearen profil akademiko eta profesionala, gaitasunak eta helburu eta ibilbide profesionalak jaso beharko ditu. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 7a da. Oinarriak eta material osagarria *www.debagoiena.net* atarian duzue.

Martxoaren 7ra arte, Mankomunitatean.

## IKASTAROAK

**BERGARA Plazetako euskal dantzen ikastaroa**

Abarka elkarteko kide Juantxo eta Janire Urbieta eta Jon Arrillaga izango dira irakasleak. Urtarrilaren 8an hasi ziren eta ekainera arte egingo dute ikastaroa, eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara. Izena emateko: 943 76 36 61 telefonoa edo *jardunkultura@topagunea.com* helbidea.

Ekainera arte, eguaztenetan, Jardunen.

**BERGARA Askotariko ikastaroak Miguel Altuna Institutuan**

Besteak beste, ikastaro hauek egingo dituzte: *Txirbil-harroketa bidez mekanizatutako produktua egiaztatzea*; *Datu-base erlazionaletarako apliazio informatikoak* eta *Argazkilaritza ikastaroa, Photoshop bitartez*. Lehenengo biak langileendako eta langabeendako ikastaroak dira, %100 diruz lagundutakoak, gainera. Hirugarrena, aldiz, sakontze mailakoa da eta ordaindu egin behar da: 40 euro. Ikasleek, erretiratuek eta langabeek 30 euro.

Hainbat astetan, Miguel Altuna Institutuan.

**BERGARA GPS ikastaroa**

Pol-Pol mendi taldeak GPS ikastaroa egingo du hilaren 13an, 15ean, 18an, 20ean, 22an eta 25ean, 19:00etatik 20:00era. Mendi taldeak pilotalekuan duen lokalean egingo dute ikastaroa eta GPSaren erabilera landuko dute. Nork bere materiala eraman beharko du. Interesatuek Pol-Polen eman beharko dute izena.

Urtarrilaren 13tik 25era, Pol-Polen lokalean.

**ARRASATE Hastapen mailako zeramika ikastaroa**

Urtarrilaren 21etik martxoaren 6ra arte egingo dute, astelehenetan eta eguenetan, 18:30etik 20:00etara arte. Izena emateko bi telefono hauetakoren batera dei daiteke: 620 94 11 62 (Paloma) eta 636 24 42 49 (Imanol). Ikastaroaren prezioa 60 euro da.

Urtarrilaren 21etik, Zeramika taldekoen lokalean.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Tres bodas de mas**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Rodencia y el diente de la princesa**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Argo**
Eguaztena: 20:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**El medico**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Vaya pavos**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ZABALOTEGI**

**Blue Jasmine**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Jelly T. (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**ANTZOKIA**

**Lluvia de albondigas 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La leyenda del samurai**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO**

**De tal padre, tal hijo**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22.30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Sobran las palabras**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22.30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**La ladrona de libros**
Egubakoitza: 17:15, 19:50, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:50, 22.30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:50.

**Caminando entre dinosaurios**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**La vida secreta de Walter Mitty**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**A proposito de Llewyn Devis**
Egubakoitza: 20:15m 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22.30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Tres bodas de mas**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**The Grandmaster**
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Ninphomaniac I**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20.00, 22.30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**El Hobbit: la desolacion de Smaug**
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**La gran belleza**
Eguabakoitza: 20:00, 22.30.
Zapatua eta domeka: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**En solitario**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Sobran las palabras**
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 20:30, 22.30.
Astelehena eta martitzena: 18:45, 20:30.
Eguaztena: 18:40.
Eguena: 18:45, 20:00.

**Futbolin**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**En la flor de la vida**
Egubakoitza: 18:00, 20:30.
Zapatua eta domeka: 18:30, 20.30.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**La leyenda del samurai**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**En un mundo mejor**
Eguaztena: 20:20.

**GORBEIA**

**Pense que iba a haber fiesta**
Zapatua: 00:10.
Zapatua eta domeka: 16:50.
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:30, 22.20.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 20:50.

**El unico superviviente**
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 20:15, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 18:10, 20:30.

**El medico**
Egubakoitza eta domeka: 18:30, 21.30.
Zapatua: 19:45, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

**La leyenda del samurai**
Egubakoitzetik domekara: 20:10, 22.30.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**Lluvia de albondigas**
Zapatua eta domeka: 16:15.
Egubakoitzetik domekara: 18:15.

**Futbolin**
Zapatua: 15:30, 17:35.
Domeka: 16:20.
Astelehenetik eguenera: 17:40.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 15:40.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 19:55.
Astelehenetik eguenera: 17:50.

**El hobbit 2**
Zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**El hobbit 2, 3D**
Egubakoitzetik domekara: 22:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Tres bodas de mas**
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**Los señalados**
Zapatua: 00:50.
Astelehenetik eguenera: 18:50.

**BOULEVARD**

**Agosto**
Egubakoitza eta zapatua: 00:05.
Zapatua eta domeka: 16:35.
Egubakoitzetik domekara: 19:05, 21:35.
Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:10.

**La ladrona de libros**
Egubakoitza eta zapatua: 00:10.
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egubakoitzetik domekara: 18:50, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:35, 20:15.

**The grandmaster**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Zapatua eta domeka: 17:00.
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**A proposito de Llewin Devis**
Zapatua: 16:00, 20:00.
Egubakoitza eta domeka: 16:00, 20:00, 22:10.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**En solitario**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.

**La vida secreta de Walter Mitty**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:15.

**La leyenda del samurai**
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 20:00, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:30.

**El Hobbit 3D**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**El Hobbit**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:45.

**12 años de esclavitud**
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

**El medico**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Futbolin**
Zapatua eta domeka: 16:05.
Egubakoitzetik domekara: 18:10.

**Ismael**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Los señalados**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Zapatua: 18:15, 22:10.
Egubakaoitza eta domeka: 18:15.

## KRITIKA

**A PROPOSITO DE LLEWYN DEVIS**

★★★☆☆

**Zuzendaria:** Coen anaiak.

**Herrialdea:** AEB.

**Urtea:** 2013.

**Aktoreak:** Oscar Isaac, Carey Mulligan, John Goodman.

**Iraupena:** 105 minutu.



# Musikari errantea

Coen anaiak euren azkeneko filman, *A Proposito de Llewyn Davis*-en, 1961eko New Yorkera joan dira. Hiriko Greewich Villageko auzoan Llewyn Davis folk kantaria bizi da eta haren gorabeheren lekuko izango gara. Istorioa egun gutxian gertatzen dela ematen badu ere, pertsonaia nagusia ez hasiera ez bukaerarik ez duen bizimoduan murgilduta dago. Lewin arrakasta txikiko musikari bohemioa da. Ez du bere estiloa aldatu nahi, musika ulertzeko eta sentitzeko duen moduari fidel izan gura dio. Denbora darama musika munduan: disko batzuk aterata (hasieran bikote batekin, gero bakarlari moduan), lokal txikietan abesten, lagunen eta beste musikari batzuen etxeetan lo egiten, eta ahal duenean, sexu-harremanak izaten. Nahiko pertsona berezia da, jendearen babesa behar du aurrera egiteko, baina ez da batere maitagarria. Aspektu horretan, antz handia du filmean horren garrantzitsuak diren katuekin: oso independentea da, bere bidea egiten du, ibilaldian topatzen dituen pertsonekin distantzia mantenduz. Coen anaiek ez dute egiten pertsonaiaren erretratu idealizatu bat, Lewyn bizitzan alderrai (errante) dabilen pertsonaia da.

Coen anaiek beste batzuetan baino modu lasaiagoak erabiltzen dituzte. Mugitzen diren giroa grisagoa da, tristeagoa. Badaude umorea eta euren filmetan ohikoak diren pertsonaia xelebreak; John Goodmanek egiten duen pertsonaia, adibidez. Baina pertsonaia horiek eta sortzen diren gertaerak modu neurritsuagoan azaltzen dira. Filmaren ukitu eroa jaitsita dago, atmosfera goibelagoa da, eta kontatzeko moduan ez da igoera eta jaitsiera nabarmenik gertatzen. Ez daude gertakizun handiak: protagonista New Yorken ibiltzen da, eta Chicagora bidaia bat egiten du. Filma pertsonaia baten jarraipena da. Loturarik gabe bizitzan barrena noraezean dabilen mamu antzeko bat da.

**ANTONIO ZABALA**

IÑAKI SAN MIGUEL




goiena" 2014-01-10

BUKATZEKO

# Plastikozko buruak barazki-dendan

- Leintz Gatzagako Ander Aranak zazpi eskultura izan ditu ikusgai Londresko arte erakusleiho baten
- Window 135 etxe partikular bateko egongela da eta astero artista ezberdinen lanak jartzen dituzte

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Leintz Gatzaga eta Basauri artean bizi den Ander Arana gazteak erakusketa egin du Londresko Window 135 arte erakusleihoan. Esne botilekin egindako zazpi buru izan dira artelanak, eta tokia, etxe partikular bihurtutako barazki-denda zahar bat.



Ander Arana, plastikozko eskulturak ikusgai izan dituen arte erakusleihoaren aurrean, Londresen. | MARI LUZ ESTEBAN

### Astero artista bat

Window 135 oso arte-erakusleiho bitxia da: erdi erakusleiho, erdi mikro-erakustoki. Londresko New Cross Road izeneko kale jendetsuan dago kokatuta, etxe bateko beheko solairuan. Jabeak dira Tim Jones eta Meena Chodha, bi sortzaile, oso jantzita artean, musikan eta zineman. Tokia, lehenago, barazki-denda bat zen, baina, etxea berritu zutenean, erabaki zuten erakusleihoa uztea (gaur egun, etxebizitzako egongela da). Txoko horretan kokatzen dituzte jabeek eurek edo beste artista batzuek egindako artelanak. Mugimendu handia dago erakusleihoan: astero-astero aldatzen dute erakusketa. Ander Aranaren lanak astebetez egon ziren ikusgai.

Ikasturteko lehen hiruhilekoko ikasketak Londresen egin ditu Aranak, amak han egin behar zituelako hiru hilabete lanagatik. Abuztuan hara joan ziren aita eta biak, eta erakusleiho aurretik pasatzean geratu egiten ziren artelanak ikustera. Egun baten, erakustoki ondoko atetik bikote bat eta bi ume ikusi zituzten ateratzen. Bigarrenean, harridura argitzeko, eurekin hitz egiten hasi ziren. Horrelaxe ezagutu zuten aretoa. Eskulturak, berriz, premiagatik sortu zituzten. Hortzetako eskuilak jartzeko pote bat behar zutela-eta esne pote bat erabili zuten, eta orduan hasi zen 15 urteko gaztea forma ezberdinetako buruak egiten: txirrindularia, Frankenstein, Ameriketako indiarra, erregea, Elvis Presley, eta abar.


Frankenstein eta punka. | ANDER ARANA

AZKEN BERBA



**AINTZANE OIARBIDE**

## Urte zahar, urte berri

Eskasa, gogorra eta ezustekoa izan da 2013a Debagoienean. Gure bailarako ikur ekonomikorik handiena, Fagor etxetresna elektrikoak, ezustean joan zaigu eskuetatik, gure familietatik, lagunengandik. 30 urte bete dira Euskadiko uholde larrienak jasan genituenetik eta bi sute ikaragarrik 60 familiatik gora etxerik gabe utzi zituzten. Apirilean Bermeon eta urteko azken egunean, Pasaian. Azkenera arte izan behar zuen ba urte zaharrak kaskagogor! Pintzelada koloretsu bat aipatzekotan, Arrasaten loteria tokatu! Bejondeizuela zorionekoei! Urte berriaren etorrera ez da, bada, arinagoa izan! Horko gripe, bronkitis, pneumonia, horko hego haize eta olatu bortitzak, uraren indarra lur eta harriaren aurka garaile. Olatuek atzaparretan eramandako pertsonak desagertuta, kostaldean ere ez da giro. 2014 hau ere ekonomikoki ez omen da batere erraza izango, beste urte txar bat pasatzea tokatzen zaigu nonbait. Esaera zaharrak dioenez, *Urtarrila bero, zinkurinak gero,* eta hala dirudi, hego haizeaz hasi dugu urtea eta hortxe etorriko dira kexuak edo zinkurinak. Baina itxaropena ez dugu galduko, ez da alferrikakoa izango urte berria… ekaitz ostean beti dator barealdia!

Zorionak denoi!

**Hauek dira Goiena Klubeko abenduko zozketetako irabazleak**



**Play Station 3a**
Anuska Elorza
Altuna (Arrasate)

**Baserrisarea.com-ek emandako otarrak**
Justina Iñarra Mazmela (Arrasate)
Maider Perez Martinez (Eskoriatza)
Eusebio Errasti (Arrasate)
Claudio Isasmendi Arando (Aretxabaleta)

**Pamielak emandako liburu sortak**
Karmele Agirregabiria Agirre (Aretxabaleta)
Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)

**Arrikrutzerako sarrerak**
J.M. Arrieta Armendariz (Eskoriatza)
Francisco Zubia Azkoaga (Arrasate)
M. Angeles Padilla (Bergara)

**Harreman dendako otarrak**
Karmele Korta Mendiguren (Arrasate)
Maritere Galdos (Oñati)

**SARIAK JASOTZEKO:**
**Arrikrutzeko sarrerak**. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrak** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak**. Zatoz, **urtarrilaren 7tik aurrera**, GOIENAren Aretxabaletako bulegora. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Basabe poligonoa E–O–5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 – 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 – 14:00.

goienakluba"
Euskara irabazle, denok irabazle!